

JAKIN sorta

KOPERATIBAK

u. l.
gurutz ansola
koldo gorostiaga
c. harlouchet
ibarrekua
angel larrainaga
imanol laspiur
beñat laxague
ramuntxo kanblong
x. zabala

EFA
arantzazu

JAKIN SORTA

KOPERATIBAK

Azala: X. Egaña

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15
16
17
18
19
20
21
22
23
24
25
26
27
28
29
30
31
32
33
34
35
36
37
38
39
40
41
42
43
44
45
46
47
48
49
50

E. F. A. (N.º de Registro 1692)

Dep. Legal: S. S. 3 / 1973

Arantzazu-ko Inprimategian argitara emana.
Oinati (Gipuzkoa)

aurkibidea

Ohar	7
KOPERATIBA MUNDUAN	9
Sueziako koperatiba mugimendua: U. L.	11
I. Lehen jakingarriak	11
Suezia: dato geografikoak	13
Enplegu eta soldaten merkatua	14
Soldatak	16
Enplegu politika	17
Erakundeak	19
Taldekako akordioak	20
Liskar sozialak eta konponbideak	20

II. Suezia eta beronen koperatibismoa	20
Sueziako koperatiben sorrera	22
Zazpi printzipioak	23
Koperatiba elkarteen garrantzia	24
Koperatiben erakundea	24
Koperatiba elkarteen zereginak	26
Banaketa eta kosto arazoak	26
Koperatiben egoera ekonomikoa	28
KFren egungo erakundea	28
KFren ekintzak	30
KFk monopolioren aurka egiten duen borroka	30
Erretiro sarien rejimena	33
Osasun ardura	34
Irakaskintza	34
Enpresen jabeak	37
Jugoslavia-ko Autojestioa: X. Zabala	45
Autojestio konzetuaren goraldia	45
Jugoslavia-ko autojestioaren bilakaera	48
Autojestioaren gaurko egoera	54
Lan-antolamenduak	55
Langile Kontseilua	56
Jestioko komitea	57
Zuzendaria	58
Enpresako autojestio konzetua	59
Autojestioa beste zenbait mailetan	62
Jabego eskubidea	63
Elkargo sozio-politikoak	65
Jugoslaviar planifikazioa	71
Israelgo elkarteak: Beñat Laxague	75
I. Kibutzak	76
II. Moshav-ak	77
III. Moshav xitufi	78
Herriko batasuna	78

Quebec-eko Koperatibak: C. Harlouchet	81
1. Quebec-eko koperatiba mugimenduaren kondaira ..	82
2. Quebec-eko koperatiba sailaren deskribamena	84
A) Finantza erakundeen saila	85
1) Aurrezki eta kreditu kutxak	85
2) Seguruko koperatiba-elkarteak	85
3) Finantza-elkarteak	86
B) Produzio saila	87
1) Nekazari-koperatibak	87
2) Arrantzale-koperatibak	87
3) Basa-koperatibak	88
D) Kontsumo saila	88
3. Quebec-eko koperatiba mugimenduaren gaurko arazoak eta etorkizuna	89
KOPERATIBA EUSKAL HERRIAN	93
Koperatibak eta Nafarroako nekazalgoa: Ibarrekoa	95
Eibarko "Máquinas de coser ALFA, S.A.": Imanol Laspiur ..	101
Sarrera	101
Oporketak	111
"ALFA S.A. Cooperativa"	114
Toribio Echevarria	118
ALFA sortzearen nekeak	120
Josteko makina	124
1936ko gudua eta ondorena	130
ALFAko langileen onurak	135
Koperatibagintza	138
Amaia	145
Mondragoeko koperatiba entsegua: Anjel Larrainaga	149
A. Historia	149
B. Egungo errealidade eta hedapena	151

D. Ideologia	153
E. Amaia	157
KOPERATIBA NORA	159
Koperatibismoa... zertarako?: Koldo Gorostiaga	161
1. Koperagintza ideologia bezala	161
2. Koperatibismoa nola baliatzatu?	162
3. Hautapen politikoa	163
4. Koperagintzaren ekintza berritzailea	165
5. Indar politikoen jokia	166
6. Koperatibismoa abagune iraultzalean	170
Euskal koperatibismoa haro berri baten atondoan:	
	<i>Gurutz Ansola</i> 173
I. Teknika haroa	175
Ekonomismoaren arriskua	176
II. Hedakunde haroa	177
Sendotze haroan buruzagiak agertzen dira	178
Ideologiaren sostengua	180
Langileak, lansariak, autofinantza	180
III. Gizarte kontzientziaren haroa	182
Lantegi berriak sortzeko erabakiak	183
Ingurumenaren eraginak	184
 Eraskina	
Arrasateko Koperatibismoa: Iparraldetik begira:	
	<i>Ramuntxo Kanblong</i> 186
I. Euskal koperatibismoa empresa bezala	187
II. Iparraldeak nola sentitu dituen koperatibak	188
III. Iparraldean eta Parisen izan diren bilkura zenbaiten eta agertu diren artikulua zenbaiten berri	190

*Koperatiba bai, koperatiba ez. Hor dabil ezta-
baida kalean.*

*Koperatibismoa izpiritu bat da eta gizabide
bat ere izan nahi du. Ez da ekonomia hutsa, gi-
zartegintza bat ere bada, bere ekintzaileen asmo-
tan. Izpiritu horrek gizonari heziketa bat eskaini
nahi dio.*

*Horregatixe dira asko eta sutsuak koperati-
bazaleak. Arrazoi beragatik dira hainitz, kope-
ratibarik nahi ez dutenak.*

*Dena den, Euskal Herrian eta gaur-gaurkoz
koperatibismoa oso hainzakotzat hartzeko egi-
nahala da. Ezin uka.*

*Etorkizunak nondik joko duen? Geroak da-
kike, guk ez.*

Desroche-k, Frantziako Koperatiba Ikaste-

txearen zuzendariak, orain guti seinalatu ditu Koperatibismoaren arazorik gordinenak:

—barne bizitzan koperatibak dituen problemei erantzutea,

—koperatiba-arteko lankidetza jator baten beharra,

—gizarte osoa gidatzeko beste gizarte-inderrekin (Sindikatu, etab.) elkartu beharra,

—Europako Merkatu Elkartuan irtenbide egoiki bat bilatu premia.

Koperatibak —lantegi eta gizartekidetza bidebatez delako— tentsio eta sokatira gogorrek ditu bere baitan. Nola ezkon elkarrekin koperatibari dagokion egitura demokratikoa eta lantegi bizi batek gaur eskatzen duen erakunde bizkorra? Hortxe daude buruhaustea.

Asmatuko ote du koperatibismoak, “etengabeko heziketa” delakoaren bidez, produzio harreman berriekin, gizon eta gizarte berri bat sortzen. Ez dira guti itxaropen hori bizi-bizirik dutenak eta ekinza asperrezinean dihardutenak.

Láburu honek munduko berri zenbait jasotzen du, baita Euskal Herriko zerbait ere (ez noski guk nahi genuen hainbat). Iritzi eta aburuak ez datoz bat, ikusiko denez. Lan bilduma honek ez du azterketa soziologiko bat izateko asmorik, ezta ekonomi azterketa sistematikorik ere. Askí du zenbait datu jasotzearekin, esperantza eta etsipenen arrazoi batzuk agertzearekin.

JAKIN

koperatiba munduan

SUEZIAKO KOPERATIBA MUGIMENDUA

U. L.

Gure lantxo honek ez du gaia agortzeko asmorik. Eskandinabiar erakundeen obserbazio zuzena —bere muga eta guzi— eta gizarte klase desberdinetako pertsonekin ukaniko elkarrizketa ugarriak ditu, hein handi batetan, oinarritzat.

Sueziar ekintzaren eta koperatibismo ororen zenbait pondu argitu eta desmitotu beharraz ohartu naiz. Gai honek, duela gizaldi bat, bere polemikotasuna galdu duela derizkiot, ikuspegi sozialistaren aldetik bederen; baina baduke oraino interesik.

I. LEHEN JAKINGARRIAK

Ezaguna da koperatiba mugimenduak Euskal Herrian duen begiramena. “Koperatiba herrixkatatik” hasi eta gaurko israeldar eredura arte, asko izan dira Europan eta Ipar Ameriketara egin diren koperatiba saioak. Israeldar “kibutzim” delakoa izan da euskaldunak gehienbat liluratu dituen etsenplua.

Israelgo Estadua, Iparramerikaren eta Bretaniaren inperialismoen eskutik, 38-45 gerla ondorengo urteetan ONU-n sortutako ondoren artifizial bat da. Estadu hau alderdi geografiko haietako

interes inperialisten defentsarako giltzarri baliotsu bat da egun, Petrolio Elkarteentzat batez ere; munduko inperialismo sareari ezin hobeto datorkion giltzarria.

Antola- eta asma-lanez jaiotako Estadu hontan, desarroilo bidetan dauden lurraldeetan erakarmen itzal handia sortarazi duten koperatiba esperimendu batzuk —nekazaritza mailan jeneralki— egiztatu dira.

Kibutzim-ak koperatiba elkarteak dira: sozialistak, zenbait autorek dioenez; eta areago, komunista ortodoxia garbienekoak, beste zenbaiten iritziz. Aurrerago joaz, oinarri ekonomikoa sozialista duen eta sozial klaseak iraungi bidetan dituen herri demokrazi batasun bat bezala hartu nahi da gehienetan israeldar gizartea.

Baina Israel, Estadu kapitalista aurreratu bat da. Kibutzim-ek herri osoaren % 2 osatzen dute ozta-ozta, eta ondo hertsu eta kontrolpetutako erakundeak dira.

Zalantzarik gabe esan daiteke, frente hontatik letorkeen “ofensiba sozialista” munduko inperialismoaren interesen aurkako arrisku bilaka baledi, jaurgu egitura nazionalek berehala desegingo luketela.

Kibutzim-ak, herrian oinarriturik, helbidean den gizarte sozialista baten aitzindaritzat onartzen baditugu, eta multzo kapitalista batean sarturik, hedatu-ala egitura inperialistaren zokoratze osoraino azpi hondatzen joateko asmoz saiatzen den erakunde bezala, on litzake saioa. Edo bestela esan, kapitalismotik sozialismorako igaropide lirake.

Baina erakunde abangoardista hauek, klase borrokan erroturik, Ekialdi Erdian munduko inperialismoaren agerkai den gaurko Erresuma desegiten lehiatuko diren beldurrik ez dagoela esan dezakegu.

Beste elkarte etsegu bat —ezezagunagoa, baina guretzako hurbilagoa— sueziar ekintza da. Goragoko lerro horiek, laburre-

giak noski, ikuspegi sozialista batetatik behinik behin amets huts litzakeenaren aurrean ernarazteko balio dezaigukete.

Suezia: dato geografikoak

Suezia, lur gain osoaren % 0,3rekin, Europako laugarren lurraldea dugu zabalerari dagokionez, Rusia, Frantzia eta Espainiaren ondotik. Alaskaren latitude berean dago; Malrröe, Hegoaldean, Glasgow-en latitude berean; Kirma, mehatza toki seinalatua, berriz, Iparraldean, Ipar *Circulo Polar*-aren gainean kokatzen da. 1970. urtearen azkenetan 8.100.000 biztanle zituen orotara, Km²/18 bizilaguneko trinkotasun (*densidad*) demografiko batekin.

I *Laukia*.—Biztanle trinkotasuna, 1969ko ekainaren 30ean

Erresuma	Km ² biztanleak
Holanda	353
Beljika	316
Japon	277
Mendebaldeko Alemania	245
Bretania Handia	228
Italia	180
Suiza	151
Dinamarka	114
Frantzia	91
Espainia	65
Iparramerika	22
SUEZIA	18
Finlandia	14
Noruega	12
Argentina	5

Jaiotza porzentaiari buruz, herri malthusianoa dugu garbiki;

aldi berean, munduko haur heriotza urriena eta bizitza kopuru luzeena ditu. Familiako, 2'8 persona ditu, bataz beste.

Jaiotza-heriotza porzentaiari buruz, gonbara dezagun zenbait datu:

II *Laukia.*—*Jaiotza-heriotzak. 1969*

	(a) Jaiotzak 1.000 biz- tanleko	(b) Heriotzak 1.000 biz- tanleko	(a-b) Biztanle haziketa naturala 1.000 bko.	Haur-he- riotzak 1.000 biz- tanleko
Mexico	42'2	9'1	33'1	64'2
Japon	18'3	6'7	11'6	15'0
Espainia	20'4	9'2	11'2	32'0
Australia	20'4	10'0	10'4	18'3
Holanda	19'2	8'3	10'9	13'6
Mendebaldeko Alemania	15'0	11'9	3'1	23'1
Iparramerika	17'7	9'5	8'2	21'7
Italia	17'6	10'1	7'5	32'2
Frantzia	16'7	11'3	5'4	20'6
Bretania Handia	16'6	11'9	4'7	18'8
SUEZIA	13'5	10'4	3'1	12'9

Enplegu eta soldaten merkatua

Nekazaritza lanbidea gero-ta urriagotzen doan artean, handika-xehakako salmenten eta ekar-eramanaren eta zerbitzuen alde nabarmentzen den joerak berezten du lanbide merkatua. Aldi berean, langile administratibuen neurria gero-ta ugariagotzen ari da.

Ia gerla oste osoan, lanbide betekia eta langile eskasia izan dira Sueziaz merkatuaren berezgarri. Lan-erik gertatu denean, erreinuaren iparraldeko gauza izan da eskuerki. Honoko lauki gonbaratibu honek argi adiarazten digu hori:

III *Laukia.—Lan-eza (urteko ehuneko media)*

	1966	1967	1968	1969	1970
Italia	3'9	3'5	3'5	3'4	3'3
Iparramerika	3'8	3'8	3'6	3'5	5'0
Beljika	2'7	3'7	4'5	3'7	3'2
Dinamarca	2'3	2'7	5'0	3'9	2'9
Bretania Handia	1'6	2'5	2'5	2'5	2'8
Finlandia	1'6	2'8	4'0	2'8	2'2
SUEZIA	1'4	1'8	2'0	1'8	1'7
Holanda	1'1	2'0	1'9	1'4	1'3
Japon	0'9	1'2	1'2	1'1	1'3
Noruega	0'8	0'8	1'1	1'0	1'2
Mendebaldeko Alemania	0'7	2'1	1'6	0'8	0'7

Eskandinabiar lau estadiuek (Dinamarca, Finlandia, Noruega eta Sueziaz) enplegu merkatu bakar bat osatzen dute. Honek zera esan nahi du: eskandinabiar bat beste hiru estadiuetako batean lanbidea hartu eta bertan bizitzen geldi daiteke —han egoteko baimenik eta lan agiririk eskatu gabe—, mugak pasaportetik gabe pasa ditzake, bere profesioiko lan-eraren seguroa badu, eta lanbidea galtzen badu, berriz aurkitu artean, Estadiuaren laguntza jasotzen du.

IV *Laukia*.—*Suezian lan jakin bat harturik, bertan bizi diren atzerritarren zenbateko-nondikoak.*

	1960	1965	1970
Finlandiarrak	47.493	70.445	103.788
Dinamarkarrak	19.430	19.157	18.899
Alemaniarrek	14.246	16.723	14.050
Jugoslabiarrak	780	7.472	22.573
Noruegarrak	10.212	12.861	14.017
Greziarrak	178	4.066	8.498
Italiarrak	3.648	5.234	4.621
Espaniarrak	—	2.979	2.749
Beste	18.136	22.355	39.922
Guzira	114.123	162.232	229.117

Soldatak

1969tik 1970era, langilearen orduko kostua % 10'7 batetan igo da; haueetatik % 3 igotze normalei dagokie eta gainerakoa soldaten higidurari.

V *Laukia*.—*Gizonezkoen orduko soldatak zenbait industri sailetan, peztatan emanak (Urteko media).*

	1960	1965	1970
Burni, altzeiru eta kobre	92	133	203
Metal aldakuntza	91	132	202
Zerrategi	76	118	182
Paper eta paper pasta	85	123	203
Janari	77	121	178
Jantzi eta oihaltegi	72	112	160

Goiko xifra hauk, oporraldi ordaindu eta gaixotasun-ezbehar kasutako ordainketak barne dituztela eratuak dira.

VI *Laukia.*—*Gizonezko langileriaren orduko soldata, zenbait estadutako industrian (peztatan).*

	1960	1965	1970 (lehen sei hilabeteak)
Iparramerika	160	182	272
SUEZIA	79	126	188
Dinamarka	58	93	141
Noruega	63	91	128
Mendebaldeko Alemania	50	79	109
Bretania Handia	73	72	107
Finlandia	41	60	83
Frantzia	29	52	58

VII *Laukia.*—*Astearen buruan langileak industrian ematen dituen orduak, 1970.*

SUEZIA	35'4
Noruega	35'6 (1969)
Finlandia	38'9 (1969)
Iparramerika	40'0
Mendebaldeko Alemania	43'8
Suiza	44'7
Frantzia	44'8
Bretania Handia	45'7 (1969)

Enplegu politika

Sueziar partidu politikoek, ekonomia politikoaren lehen xedezat ororen enplegua betetzea dela onartzen dute. Helburu hau lortzeko, politika biziki aktibu bati ekin diote gobernuek.

Suezian ez dago legedirik, soldata gutienezkoa finkatuko duen legerik alegia. Lan merkatuko antolabideetan, huelga edo nagusien "lock-outs" delakoak azaltzen direnean, bitartekoak seinatzera mugatzen da Estaduaren jokabidea. Hau da, hain zuzen ere, kapital-lanen arteko kontradizioa agiri duten herrien artean Suezia ere sartzen duen adigarririk funtsezkoenetako bat. Oso desarroilaturik dagoen edozein estatu kapitalistatan bezala, klase-borrokaren dinamika makaldu egiten da, helburu bakartzat soldaten kobrantza hartuaz.

Azken bost urteotan, Lanaren Zuzendaritza Nazionala era guzietara ahalegindu da langileriaren higidura gehiagotzen, bai tokiz eta bai lanbidez aldaraziaz. Eskaintza-eskeen arteko desgokitasuna, enplegu aldaketarako bulegoetara esker berdindu da batez ere. Eginbide honi ekiteko, Lanaren Zuzendaritza Nazionalak badu eraturik profesio galduei laguntzeko eta lanbide gabe-koak birklasifikatzeko programa zabal bat.

Estaduak hortarako hartu dituen erabakien artean, lan publikoak hasi ditu; neguan batez ere, garai hontan gelditzen bait dira langileak lanik gabe, eta ez bait da hortarako beste soluzio biderik aurkitu. Azken urteotan helburu hontarako eman diren kredituen hirutatik bat karretera nazionaletarako izan da.

Urteoro, Estaduak eta Udaletxeek egindako proiektuak orohartzten dituen reserba-inbersioaren presupostu bat aurkezten dio Lanaren Zuzendaritza Nazionalak Gobernuari. Programa hau epe laburrean aplikatu daiteke lan-eza borrokatzeko. Aipagarria da udal-etxe eta eskualdeetako zuzendariak duten eragipen zabala, erabatekoa sarri. Demokrazia batean, nahiz-eta parlamentarioa izan, hezi eta ohitu gabe dauden pertsonentzat, *hirigizona*-ren eta *administratua*-ren artean dagoen aldea argitzeko, egoki da datu hau ohartaraztea, *tocqueville*-ar ortodoxia garbienaren arabera.

Neguz lanik gabe aurkitzen diren gehienak etxegintzako langileak izan ohi dira. Problema hau zuzentzeko, langileen, ugaza-

ben, Lanaren Zuzendaritza Nazionalaren eta bertako agintarien ordezkariak osaturiko tokian-tokiko komiteak eratzen dira, etxegintza programak zehaz ditzaten eta beharrezko baimenak eman. Kapital-lanen arteko erlazioen laztasuna *lehundu* —ez ordea inolaz ere *desegin*— nahi duen borondate jatorra ageri da hemen.

Era berean, lantegi berriak eraiki nahi dituzten elkarteei berri emateko zerbitzu berezi bat eratu du Lanaren Zuzendaritza Nazionalak, lurrik behartsuenetan jaso ditzaten lantegi hoik. Asmo honekin, Espainiako egungo *polo de desarrollo* delakoaren antzeko politika bat asmatu zuen Gobernuak, hura baino askozaz ere egokiago banatua eta kordinatua, ordea. Hortarako eman den prestamoa, 71-72 urte fiskalerako, 4.500 miloe peztatakoa izan da.

Erakundeak

Horizontalki eratu eta azken 70 urteotan desarroilatu diren erakunde arras zentralizatuen kontrolpean egoteak berezten du Sueziako enplegu merkatua. Ugazaben aldetik erakunderik nagusia *Sueziar Ugazaben Konfederazioa* (SAF) da: 24.000 partaide ditu, eta 1.200.000 pertsonari ematen dio lana. SAFek, *Nekazari Ugazabatza*-rekin (SLA) eta *Harmadore Federazioa*-rekin (SRF) batera antolatzen ditu bere ekinbideak.

Derrigorrezkoa ez izan arren, langileriaren % 95 sindikatuta dago. *Lanaren Konfederazio Nagusia* (LO) dugu lehenen erakundea, 37 federaziotan banaturiko 1.700.000 bazkiderekin. Federazio hauek *Sindikatu*-tan osatzen dira eta hauek, aldi berean, lantegi bereko langileak batzen dituzten *Sail*-etan. Agertu beharra dago *Closed shop* delakoa ez dela orohar betetzen; alegia, sindikatuta daudenentzat ez direla lan-tokiak gordetzen.

Taldeakako Akordioak

Aspaldidanik, industri sail bakoitzari interesgarri zaizkion konbenioek sortu dituzten konponketen arabera eratzen da enplegu merkatua.

Liskar sozialak eta konponbideak

Sueziak, liskarrak ahal den neurrian alendu nahian, sistema oso taxutu bat eratu du; baina sarri, sistema horren kapital-lanen arteko kontradizioa konpondu ezina azaltzen da, eta orduan bortxaz ekiten zaio represio fisikoari, pondu hontan, oraingoz, beste zenbait herriren mailara heldu ez bada ere. Dena dela, 1935az geroztik ez du erresumak sei une larri besterik ezagutu; azkenekoa, iparraldean Kirmako mehatzarien (finlandiarrak gehienak) huelga aldi gogorra. Legeak erraztasunik ematen du konponketetarako; lehen negoziazioek akordiorik lortzen ez badute, langileek ez dardukate huelgara jotzerik aste bete aurrez jakinarazi gabe. Aste hontan zehar elkarrizketak egiten dira, Gobernuak hautatutako talde bat bitarteko dela.

Bada tribunal berezi bat, *Lanaren Tribunal*a, Taldeakako Akordioei buruzko gorabeherak azken finean erabakitzen dituena. Zazpi bazkide ditu hauzi mahain honek: ugazaben ordezkariak bi, langileenak beste bi, eta Gobernuarenak hiru. Baina langileen ordezkariak minoria izan dira beti, liskar larrietan batez ere. Behin uñe hau igaroz gero, lege-kontrako bilakatzen dira huelgak eta hauekin bat datozen guziak.

II. SUEZIA ETA BERONEN KOPERATIBISMOA

Sueziak, hortaz, Parlamendu Demokrazia bezala dihardu, ekonomiazko oinarria kapitalista duelarik eta funtsezko kontradi-

zioa zutik dadukalarik, nahiz-eta goi mailako bizitza standard bat ukan. Ondoren, mugimendu koperatibistak zer-nola jokatzen duen ikusiko dugu, bai nolakoari begira, bai zenbatekoaz mintzatuz. Hain zuzen, itxura koperatibista honek lagundurik, bere goi standard harek pantaila moduan jokatzen dio Sueziari, iritzi publikoaren begietan sarri sozialismoaren sublimazio bezala azalduaz.

Hedadura handiaren jabe egin da Suezian koperatiba mugimendua. Halere, Suezian ez da onartzen koperatiba bat ekonomia sozialistak eragina, produzio bideen jabego komunean oinarritua eta kapitalismoaren produzio eta banaketa eraren aurkako indar bezala erabilia.

Ez litzake bidezko, ezta, gizartea organizatzeko bi era horiek indar berdinez koexistitzen dutenik esatea. Suezia herri kapitalista da, biziki desarroilatua, kapital handia nagusi duena eta klase borrokaren edozein aztarna errotik beretik deusezteko nahiko ahalmenaren jabe dena. Hala eta guziz ere, ez da beti horrela gertatuko; ipar eskualdeko Kirmako mineroen huelga zakarra gogora besterik ez dugu. Liskar gutien duten mendebaldeko herrialdeen artean Sueziari eusten dion ekintzarik lehenetako bat, langilearen erosbide handi baten sortze eta eragitean datza. Eta honen bidez hasten dira koperatibak beren efikazia erakusten, *kontsumokoak* bait dira. Bestela esan, langilearen interes ekonomikoak begiratzten dituzte, monopolio kapitalista handien interesen kontra; eta egiteko hau, neurri handi batetan, lortzen dutela esan behar. Baina ez dira, ezarririko erakundeak baztertuaz, produzio bideen jabego komunean oinarritutako beste egoera berri batetara doakkeen klase borrokan errotzen. Esan beharra dago, gainera, indar kapitalistaren eta langile klasearen arteko liskar egoera nabari eta iraunkor bat eta isilpeko borroka ez datozela sueziar jende arruntaren gaurko idiosinkrasiarekin ados: izan ere, ez dio harek *klase borroka* perpausari sentidurik batere aurkitzen.

Sueziako kooperatiben sorrera

Ekonomi zientzia modernoak, teknikak, industriak eta komertzioak bizitza standard oso aurreratua ekarri diote Sueziari. Hala ere, ekonomi aurrerapena zenbait urritasun eta ahultasunen erakarle ere dela agertu du. Horiek gainditzeko, Estaduak legeak jarri ditu eta herriak bere indarrez zenbait aldaketa zuzendu du, arrakasta handiz.

Hala eta guziz ere, haien bizitza standard-a ez du soilik irabaziak eragiten, diruaren bidez lort ditzaketen ondasun eta zerbitzuek ere baino. Biztanle bakoitzak hainitz interes begiratu behar du, soldatari eta erosle bait da aldi berean. Hortarako, beste soldatariekin elkartu eta bere ondasunen banatzaile bilakatu da; hau da, kooperatibak sortu ditu bere egonoroko beharrak elkarteka erosteko. Era berean, gero-ta kontsumo ondasun gehiago ematen hasi da bere lantegian. Erosleen kooperatiba mugimendua deus gutirekin hasi zen; egun, aldiz, oso haintzat hartzeko gauza da sueziar bizitza ekonomikoaren arloan. Helburu hauek, ordea, berandu lortu dira.

Lehenengo kooperatiba —Lagunda eta Hagunda auzoetako erostaldea, Orsundsbro-n— 1850koa da, eta Rochdale-ko *The equitable Pioneers Cooperative Society* azken owenianoek sortu eta munduko kooperatiba guzientzat eredu izan den kooperatiba sortu baino sei urte bakarrik beranduagokoa. Kooperatiba oweniano hori ez zen lehen owenianoak bezain *sozialista*, eta Fourier-engan oinarrituagoa zen, St. Simon-engan baino. *Sozialismo* era hau egungo sozial-demokrazia bilakatu da.

Orsundsbro-ko “eros-elkarte”ko partaideak nekazari eta lur-gintzako lagunak ziren; elkarte hau, urtetan lanean ari ondoren, desegina izan zen eta ez zuen inolako erakarmentik ukan sueziar kooperatiba mugimenduaren ondorengo desarroiloan.

Kooperatibarik zaharrena —Thollhättan hirian— 1867koa da,

eta egun oraindik *Koperatiba förbundet* (KF) edo koperatiba elkartearen taldekide da. Piskanaka-piskanaka koperatiba berriak sortzen ari dira estadu osoan; bakiotzak berekasa jokatzeko du, gehienak denbora aldi baten buruan desegiten direlarik.

Sueziar koperatibaren desarroiloan, 1899an KF sortzeak ezartzen du funtsezko abiagunea; harek batu bait zituen estadu osoko koperatiben bakarkako ekinaldiak. Posible zen horrela era guzietako sektoreez informazioa eta kontseilua aurkitzea. Hamar urteren buruan, komertzio garrantzia benetako baten jabe egiten de KF.

Zazpi printzipioak

Gorago esan bezala, Inghaterrako *Rochdale-ko Aintzindarien Elkartea*-ren arauak munduko koperatiba mugimenduarentzat eredu izan ziren; egun, arau horien formulazioa zertxobait eraberritu egin da. *Nazioarteko Koperatiba Elkartea*-ren Batzarrak onartu dituen formulak hauk dira:

- 1.—Atxikimendu librea.
- 2.—Kontrol demokratikoa.
- 3.—Eros-gaien deskontua.
- 4.—Kapital mugatuaren interesa.
- 5.—Zuzenean ordainduriko salmenta.
- 6.—Neutralidade politiko eta erlijioso.
- 7.—Hezibidearen desarroiloa.

Sueziar herriaren heren bat baino gehiago pasatzen da konsumoko koperatibatatik. 1965.aren azken aldean, Sueziako erosle elkarteek 1.300.000tik gora familia zituzten lagun, 7.800.000 pertsonako biztanle kopuru osotik.

Koperatiba mugimenduaren alde, sineste erlijioso edo ideologia politiko guziengandik aparteko beste zenbait talde sozial diferent sartzeko da. Eta hau da sueziar koperatibismoa bide sozialistatik aldendu eta sozial demokraziaren barnean kokatzen duten

faktorerik garrantzitsuenetako bat. Elkar-lanean dihardute denek, beren kontsumidore eskubideak zaintzearren.

Ik. VIII laukia 42. horr.

Koperatiba elkarteen garrantzia

Koperatiba elkarteak, biltzarkide zenbakiari eta zabalera geografikoari dagokionez, asko berezten dira: hasi Stockolm-eko koperatibatik —228.000 lagun, 549 saletxe eta saletxe handi eta 14.000 miloe peztako negozio kopuru batekin— eta 100 bat laguneko baserri elkarte tipietaraino. Baserri elkarte hauek, ordea, garrantzi handia dute, bakoitzak betetzen duen hedadura geografikoari begiratzen badiogu: Ipar aldeko zenbaitek milaka km² hartzen du.

Azken urte hauetan elkarte asko batasun handiagotan biltzen ikusi dugu, beren efikazia indartu nahiak eraginik. Elkarteen kopurua tipiagotu egin da, batuaz-batuaz joan direlako, 1958ko 663tik, 1965ko 338ra.

Konzentrazio mugimendu azkar hau, 1960ko Batzarrean elkar-tekideen erakundeari buruz egindako eskabideari zor zaio. Eskabide honek dioenez, entidade ekonomiko-geografiko natural bat eginen duen eradura behar du ukan elkarte bakoitzak; apartekorik ezean behintzat, elkar-tekideek kanpotik ezer erosi beharrik ukanen ez duten eran. Arau honek estadu osoko koperatiben kopurua determina ahal baleza, ez lirake egun 100dik pasako. Dena dela, koperatiba konzentrazioa aurrera doa, nahiz-eta geldiroago joan, zeren elkar-tekideen erabaki libre eta nahitakoak egiten bait du batutze hori.

Koperatiben erakundeak

100/200 laguneko koperatiba batetan, organizazioa erraza da.

Koperatibistak urtean behin edo bitan, Batzar Nagusi batetan biltzen dira: Komite Zuzendari bat eta kontu emaileak aukeratzera, azken aldiko administrazioa aztertzerantz eta Komite Zuzendariaren eskabideak eta garrantzizko beste arazoak hautestera. Komite Zuzendariak berak darama egunoroko administrazioa, eta berak izendatzen ditu Jerentea eta gainontzeko kargudunak.

Lur sail zabal bat betetzen duen eta milaka lagun dituen Koperatiba Elkarte Handi batetan ez dago horrelako Bartzar Nagusia antolatzerik. Horregatik, distritu ezberdinetan banatzen da langai saila. Distritu bakoitzean, koperatibalariak lurralde Bartzarretan biltzen dira eta, bertan, azken urteko lana eta Komite Zuzendariaren eta Administrazio Kontseiluaren eskabideak eztabaidatzen dituzte, aurrez seinalaturiko mailatan.

Distritu Bartzordeak, Administrazio Zentralaren eta distrituko lagunen arteko zubi izanen den komite bat hautatzen du. Era berean, distritu Bartzordeetan, koperatiba tipietako Bartzorde Nagusiaren antzeko organu erabakitzaile bezala diharduen *fullmäktige* edo Koperatiba Kontseilu izeneko erakundea aukeratzen da, Distritu Komiteko lagunen artean gehienetan. *Fullmäktige* hau da urteoroko txostena eta ejekutibuaren eskabideak onartu ala ihardesteko arduraduna.

Elkarte handiagoetan, Bartzorde Nagusiak (Koperatiba Kontseiluak) Administrazio Kontseilu bat izendatu behar du, eta honek ondoren Komite Zuzendari bat. Administrazio Kontseiluak baitetsi behar ditu ekonomi garrantzi handiko eta oinarrizko arauak ukitzen dituzten arazoak. Elkartearen Administrazio Zentraleko zuzendaria Komite Zuzendariko bazkide dira.

Garrantzi gutiko, baina zabalera handiko lur-saila duten elkarreetan —distritutan banatuak beraz— Bartzorde Nagusiak aukeratzen du Komite Zuzendaria. Ikus IX laukia. 43 horr.

Koperatiba Elkarteen zereginak

Saletxe koperatibarien negozio-dirua jangaien salketatik dator gehienbat, hau bait da erosleentzat sailik inportanteena (irabazi garbiaren % 25-30; Espainian % 55 da). Koperatiba mugimenduak bereganatu duen garrantziak bere eginbidez bestelako ondasunen salketara ere irekitzera bultzatu du. Jangaiak ez beste produktuen salketak negozio-diru guziaren bostetik bat egiten du. Zenbait elkartek *Corte Inglés*-en antzeko bere saletxe propioak ditu. Suezian horietako handiena, Stockholm-en aurkitzen da, eta Paul V. Bergströms AB (*PVB*) deritza; 1965. urtean 1.700 milioe peztako salketa egin zuen. Detaileko salerosketagatik —ardo eta ardo biziak alde batetara utzirik, baina berebil salketa, esaterako, barne— koperatiba mugimenduari zegokiona, Sueziako denaren % 20 izan zen 1970ean. Eta askozaz handiagoa da porzentaia janariak bakarrik kontatzen badira: guziaren % 28. Garrantzi gutieneko saletxeen ordez supermerkatu handiak eraikitzen ari dira; horrela, salketa-xifrak ugariago eta salketa ponduak urriago bilakatuaz. 1965.aren finetan 3.900 ziren saletxeak.

Lekuko zenbait elkartek bere produzio lantegiak jarri ditu, ogitegi eta haragi-eraldatze sailetan batez ere. Koperatiba guziak ez dira, ordea, beren medioz beste horrenbeste egiteko gauza; horregatik, inportanteagoekin elkartu dira ogitegiak, edari lantegiak, harategiak, etab. distritu mailan administra daitezten. Leku nahiz eskualde mailako eginbide hauk, ordea, KFK bereganatu eta eskuperatu ditu. Ikus X laukia. 44. horr.

Banaketa eta kosto arazoak

Teknika eta erakundearen aurrerapenak, aurreko belaunaldiak amestuko ere ez zuten produzio kostuaren merkatzea ekarri du. Produktibidadearen nork-gehiago hontan, ezinbestez atzera

geratu da banaketa. Eta gerora hartu den irtenbidea eskualdeetan depositoak (*Lagercentraler*) eraikitzea izan da. Honek eskualde batetarako *stock* bat gordetzea dakar berekin. Biltegi eta transporteen eratze razionalak, oso baliagarri egiten du erabaki hau.

Eros ahalmenaren gehitzeak, komunikabideen hobetzeak, jakiak kontserbatzeko teknika aurrerapenak, eta kanpo-lanean diharduten etxeoandreen ugaritzeak, aldaketak sortu ditu saletxeen teknikan eta erakundean, frigorifiko eta plater atonduen prestaketa izugarri eraginaz. Hormatutako salketa gehitzeak, bide ugazko banaketa eta isoterma jasokunde baten sortzea eskatzen du, izoztatzeko prozesoa etenaldirik gabe gerta dadin.

Jangai ez diren produktuen salketak problema berezi bat sortzen du. Ikusi dugunez, sueziar kooperatiben negozio diruaren bostena, etxe-produktoek eta merzeriak —oihalki, elektrodomestiko, erredizak, etab.— osatzen dute. Salerosketa hauek, nahiz saletxe arruntetan, nahiz saletxe espezializatuetan egiten dira. Bizitzaren aurrerapenak eta komunikabideen hobetzeak ekarri duten eros-ohitura berriak agerrarazten duenez, konsumidoreak hirietako saletxe handi eta espezializatuetan egin nahi ditu bere erosketak.

Kreditu-salketak ere oso ezagunak dira Suezian, sistema arruntetan hain jasoak dauden interesak, jasankorrak bait dira kooperatibetan. Helburu honekin, Suezian kooperatiba mugimenduak *lanekop* edo “kreditu-erosketa” erakundea sortu du. Aurrezki kutxekin ere elkargo berezi bat taxutu da, horiek ere partehar dezaten. Halere, interes gutiko kreditu hau, *iraunkortzat* jotzen diren (hala nola, josteko makina, elektrodomestiko, etab.) artikuluentzat bakarrik onartzen da. Elkartekideak, erosterakoan, balio osoaren % 10 ordaintzen du gutienez, eta gainontzekoa, Aurrezki kutxaren batek ematen duen kredituz. Sinale bezala, hortarako sortu den *Garanti* izeneko KFren ordezkoko batek erantzuten du. Orain artean tipiak izan dira *Garanti*-ren galerak.

1956an, KFk bere ordezkoko etxeekin batera, saletxe sare razio-

nal bat eraikitzea erabaki zuen, KF eta “*Varuhusföreningen Do-mus*” izeneko lekuko kooperatibek taxutua: honen zuzendari taldeak (sekula ez pertsona bakarra) Batzorde Nagusian izendatzen dira. Egun, 70 saletxe handi aurkitzen dira, DOMUSen administrazio-pean, nahiz-eta kooperatiben SDGM DOMUSen babesean jartzea kooperatiba beroien gogoz egin.

Kooperatiben egoera ekonomikoa

Hemen, nahi-ta-ez, sortzen zaigu galdera bat: alegia, ea nola sortu edo aurkitu ahal ukan duten kooperatibek ekintza hori eratzeko behar den kapitala. Argi dago, eta hau ondo dakigu denok Gipuzkoan, sozioak berak jarria dela kapital hori. Elkartekideak, 150tik 200era koroeko (2.500 peztako) sozial balioak ukan behar dituela agintzen du kooperatiben araudiak. Halere, ez da beharrezkoa minimum hori dena batera ordaintzea, baizik-eta 5 koroeko (70 ptako) aurren ordaintzea batekin has daiteke. Elkartekideak hala nahi badu, erosten duenetiko deskontuarekin ordain dezake gainontzekoa. Deskontu hauk, haren “sozial balioen” kontu pertsonalean eransten doaz, 50 koro egin arteraino. Hemendik aurrera, deskontuaren % 50 bakarrik pasatzen da haren “sozial balio” kontura, 200 koro e osatu arte. Gelditzen den % 50, aurrezki agiri moduko batean pilatzen da; eta edozein unetan atera dezake koantidade hori. Ikus XI Laukia, 40-41. horr.

KFren egungo erakundea

Kooperatiba alderditik, Suezia 24 distritutan banaturik dago. Distritu bakoitzeko kooperatibak udaberriero Distritu Batzarrean biltzen dira; kooperatiba bakoitzak bere distrituko batzarrerara ordezkari bat bidaltzeko eskubidea daduka. Bostehun baino lagun

gehiagoko elkarteak, bostehuneko ordezkari bat gehiago bidal dezake, azken urteko kopuruaren arabera, baldin ordezkari zenbakia, aurreko urtean KFn eta honen ordezekoetan eginiko erosketaren 400.000 koroe (5.400.000 pta.) bakoitzeko ordezkari bat baino gehiago ez badira. Egun, koperatibek 2.800 baino ordezkari gehiago bidal ditzakete distritu Batzarretara.

Distritu Batzarrak, administrazio Kontseiluaren eta KFko Komite zuzendariaren urteoroko txostenen eta Batzar Nazionalen ikusi beharko diren beste arazoen azterketa egiten du. Distritu Batzar bakoitzean, 400 ordezkari izendatzen dira, eta hauen artean bat aukeratzen da. Distrituek izendatutako ordezkariak Batzar Nazionalen Komitea osatzen dute.

Batzar Nazionalaren Komitea, Batzar Nazional hau baino egun batzu lehenago biltzen da, honen lana eta honek egin dituen hautapenak prestatzera.

Distritu Batzar bakoitzak bost laguneko distritu komite bat aukeratzen du. Komite honek propaganda eta hezibide lanak zuzentzearen, herrialdeak ezarritako kontrol-sistema zaintzearen eta distritu mailako desarroilo razional bat bultzatzearen ardura du. Jeneralean, distritu batek KFren administrazio kontseiluko bat aukeratzen du, baina distritu handienetako bik, bi aukeratzen dituzte, eta beste batek, bost. Hautapen hauek Batzar Nazionalak onetsi behar ditu. KFren administrazio kontseilua 30 lagunek osatzen dute; KFren komite zuzendaria izendatu eta honen gora-beherak zaintzeko jarria dago. Funtsezko garrantzidun zenbait arazo, ordea, ezin da administrazio Kontseiluaren baiezkorik gabe erabaki. Era berean, Administrazio Kontseilu hau hanitz komitek osatzen du, bakoitza arlo berezi batez arduratzen delarik.

Batzar Nazionala, Eskualdeetako Batzarren 400 ordezkariak eta, gainera, KFren zati den FOLKSAM Seguru-koperatibaren beste hamar ordezkariak osatzen dute.

Batzar Nazionala da sueziar koperatibismoaren lehen agin-

taritza; bera da goien mailako ejekutibua eta berak izendatzen ditu KFko kontu aztertzaileak. Bost aztertzaile dira; horietatik hiru ohorezkoak, eta ekonomi arazoetan benetan jantziak beste biak.

KFren ekintzak

Duela 60 urte hasi zituen KFk bere komertzio harremanak. Apalak izan ziren lehen pausoak. Komertzio ekintzaren lehen urtean, 1904an, 270.000 koroekoa (4 miloe peztakoa) izan zen KFren negozio kopurua. 1905ean, 805.000 koroekoa (11 miloe peztakoa); eta 1906an, 2.000.000 koroekoa (28.000.000 peztakoa); 1965ean, 3.800 miloe koroetara (53.200 miloe peztara) igo ziren salketak. Horietatik erdiak guti gorabehera, KFren lantegiek sortu zituzten.

KFren zenbait lantegi, Sueziako bere motako handienetakoan sartzen da. Esaterako, Tre Kronor, Stockolm-en; Tre Lejon, Gøteborg-en; Karlshamn-eko margarina eta landare-olio fabrika; Luma-ko argi bonbila fabrika, Stockolm-en; Gustavsberg-eko porzelana fabrika; Stockolm-eko Helios deterjente fabrika; eta Norrköping-eko Fiskeby paper fabrika; Landare-olio fabrika da KFren lantegirik handiena, 5.500 miloe peztako salketa kopurua-rekin.

KFk monopolioen kontra egiten duen borroka

Produzio industrialaren arloan KFk ukan duen garrantziak honen izena Sueziatik kanpora zabaldu du. Suezian, beste herritan bezalaxe, itxuragabeko salneurritan saltzen zuten elkarte pribatuak sortu ziren.

Legeen bidez ahalegin batzuk egin ziren gehiegikeria hauen kontra KFk, 1927az gero, kartel-en agiriko aipamena eskatzen

zuen; eskabide hau 1946an onartua izan zen. Baina, azken finean, monopolioen etsairik gogorrena ez datza legean, mugimendu kooperatibisten konpetentzia baizik: hauek ez bait diete monopolioei nahi bezalako salneurriak jartzea uzten.

Adibidez, ikus dezagun kautxoarekin gertatutakoa: Nahikoa izan zen KFko batzorde zuzendariak kautxozko *eskalapoi*-ak egin-gu zituen fabrika bat eraikitzeko erabakia hartzea, kautxoaren kartelak giza *eskalapoi* parearentzat jarria zedukan salneurria 8,50 koroetatik, 6,50 koroetara jeitsiarazteko.

Berdin gertatu zen bonbila elektrikoekin ere. Bonbilagintza nazioarteko kartel baten menpean zegoen. *Luma* izeneko fabrika sortzeari esker, bonbila bakoitzaren salneurria 1,35 koroetatik 0,85 koroetara jeitsi zen, beraz % 37 batetan.

Deterjenteek beste adibide bat eskaintzen digute: KFk, 1948-aren Ekainean, *Henkel* izeneko alemaniar fabrika erosi zuen eta berehalaxe bere produkto baten salneurria, Persil-ena alegia, % 22 merkatu zen; eta hori, deterjente egileek gobernuari salneurria igotzeko baimena eskatu zioten unean, hain zuzen.

Borrokarik gogorrenetako bat, munduko deterjente enpresarik handiena (*Janki Procter y Gamble*) Suezian sartu zenean, biztu zen. Une hartan bertan, KFk bere "Sulfo" izeneko deterjentearen salneurria % 30 merkatu zuen; honela gainontzeko deterjenteak "Sulfo" baino % 29tik % 64ra garestiago gelditzen ziren. Salneurria gutitu ondoren, "Sulfo"ren salketak % 77 ugaritu ziren urtebetean.

Ikusi dugu, beraz, Sueziako kooperatibismoak duen efikazia monopolioen aurkako borrokan. Baina efikazia honek ez gaitzala lilura, eta ez gaitzala bultza Sueziako "sozialismoa" eredutzat hartzera, monopolio kapitalistarik ez bait dago benetako ekonomia sozialista batetan. Sueziako mugimendu kooperatibistaren dinamismo sozialak benetan iraultzaile dirudike, Eskandinabiakoekin ez beste sartaldeko gizarteekin alderatuz gero. Halare, haren jokabidea

normal eta logikotzat hartzen da, mendebaldeko beste herriek baino egitura sozio-ekonomiko aurreratuago eta egokiago batetan aurkitzen delako. Joera hau, ia axolagabeko joera hau, hobeto ulertzeko, ikus dezagun, laburki bederen, Sueziako lasatasun sozialari buruzko zenbait datu. Sueziako programa sozialaren gastu guztiak Nazioaren Produzio Garbiaren % 20 bereganatzen du, munduko beste edozein herrialdekok baino gehiago. Inbersio izugarri honen zergatiak ez dira helburu sozial ausartak bakarrik; hauetaz gainera oso gogoan hartu behar da pertsona adintsuak oso ugari direla. Ikus dezagun seguru sozialek dituzten inbersioen lauki bat:

XII Laukia.—Sueziar programa sozialaren gastu banaketa (miloe peztatan).

	1950	1960	1968
Erretiro sariak	11.700	37.500	110.000
Sanidadea (*)	10.000	40.000	140.000
Familiari laguntza	9.000	20.000	48.000
Lanezaren segurua	1.000	4.000	18.000
Beste	3.600	5.000	8.000

(*) Gaisotasun seguruaren dirutza 8 miloe baino guttiagoko biztanle multzo bati dagokio: biztanle bakoitzari dagokion koantidatea izugarria dela adiarazten duelarik. Espainian, esaterako, 125.000 miloe biltzen dira guti gora behera, 32 miloe biztanletatik, eta bostetatik bat inbertitzen da.

Onura sozial gehienak bakoitzaren irabaziei begiratu gabe ematen dira. Estaduaren gastu sozialetatik % 85a eta udaletxe-enetatik % 65a onura hau jasoko duenaren irabaziak aztertu gabe eman ohi da. Soldata hau, seguratuaren eta ugazaben kotizazioari begira ematen da.

XIII Laukia.

	1960		1968	
	Miloeak peztatan	Porzentaia	Miloeak peztatan	Porzentaia
Estadua	45.750	44'4	130.000	39'9
Udaletxeak	29.000	28'2	98.000	30'4
Erretiroen fondo nazionalak	—	—	10.000	3'0
Ugazabak	6.200	5'9	35.000	10'6
Seguratuak (Langileak)	22.500	21'5	51.000	16'1
Guzira	103.450	100'0	294.100	100'0

Erretiro sarien rejimena

Sueziar guziak eta Suezian bizitzen urte batzuk daramazkiten arrotzak, 67 urtez gero, Sueziako erretiro-sari sistimak onartzen ditu. Erretiro sari hau hileko 8.750 peztakoa izaten da ezkongabeentzat eta 14.000 peztakoa ezkonduentzat, lantegian irabazten zuen lansariari begiratzeke.

Erretiro-sari basikoaz gainera, bada gero eta jende gehiagorentzat mesedegarri den beste erretiro sari bat; ATP du izen eta 1.960an sortua izan zen. 1896az gero jaiotako saridun lanbide bat ukan dutenei eman ohi zaie; baina 1914az gero jaiotakoek bakarrik ukanen dute ATP sari osoa eskuratzeko eskubidea. Urteko erretiro basikoa eta ATP bat eginda, beren bizitza laboraleko 15 urte hobeto ordainduetan irabazten zutenaren hirutatik bi osatzen dituzte, hots, 200.000 bat pezta urtean, espezializatu gabeko esku langile batentzat. Beraz, bi erretiro sariok bat eginda, sueziar langile batek, amerikar langile batek baino % 20 gehiago irabazten du.

ATP kalkulatzeko hartutako zenbakirik handiena 8.700 \$ (600.000) da; baina langileriaren % 5ek bakarrik gainditzen du xifra hori. Erretiro sari hauek urteoro berritzen dira, kostuen indizearen aldaketak berdintzeko.

ATP, ugazabak ordaintzen du, eta 2.000 urterako, erretiro sari osoa lanbizitzako saririk handienaren parera iritsiko da.

Osasun-ardura

Hirigizon bakoitza gaisotasun aseguru nahi-ta-ezko baten babespean dago. Aseguru honek, tarifa ofizial baten arabera, 95 peztatik gorako sendagile sari guziak ordaintzen ditu, gaisoaldia-ekin zerikusirik duten joan-etorri gastuak ere barne. Gainera, klinikan egindako egonaldia osorik ordaintzen du. Sendagailuetan, berriz, porzentaia tipi bat ordaindu behar izaten du gaixoak; gehienera jota, sendagailurik garestienarentzat, 200 bat pezta (ordubeteko lansaria).

Gaisorik irauten duen artean, lansaria kobratzen jarraitzeaz gainera, indemnizazio bat kobratzeko eskubidea du gaisoak. Indemnizazio hau aldakorra da eta gutien irabazten dutenentzat eguneko 100 pezta izan ohi da eta gehien irabazten dutenentzat, eguneko 700 pezta, bai bata eta bai bestea zergarik gabe.

Sendiei laguntzeko antolatu den programan, laguntza hauek izendatzen dira: a) Hamasei urtetik beherako seme bakoitzeko urtean 16.000 pezta, zergatik gabeak. b) Amak, izaten duen seme bakoitzeko, 15.000 pezta jasoko du.

Irakaskintza

Oinarrizko ikasketak, guziak behartzen ditu; haurrak zazpi urte betetzen dituenean hasi eta ikastetxean bederatzi igaro ondoren bukatzen da. Lehenengo sei urteetan, ikasketa programa ber-

dina da guzienzat. Laugarren ikastaroan hasten dira ingles hizkuntza ikasten. Zazpigarren ikastarotik aurrera, antolaketa zer edo zer aldatu egiten da: Ikasleek zenbait gairen artean aukera eskubidea dute. Gai hauetako bat, beste hizkuntza arrotz bat da (frantsesa edo alemana).

Bederatzigarren ikastaroa bukatu dutenek hiru posibilitate dituzte: *Gimnasium* delakoa, Unibersidaderako prestatzen duen hiru urtetako lizeoa. Ehun bat mila dira *gimnasium*-eko ikasleak. Bigarren motako ikastetxeak *fackskola* du izena. Ez lehen aipatutakoa bezain teorikoa, baina espezializatuagoa da, eta bai lan-tegietarako bai Unibersidaderako prestatzen du. Hirugarren posibilitadea, *Profesio heziera-eskolak* direlakoak eskaintzen dute.

Suezian, ikastetxe pribatu batzuk kenduz gero, gainontzeko ikastetxe eta Unibersidadeak gobernuko agintarien edo herrietako buruzagien zuzendaritzapean aurkitzen dira. Irakaskintza, maila guzietan mixtoa eta debaldekua da. Eta gehienetan nola bazkaria hala liburuak debalde ematen dira, eta eskolak banatzen ditu.

Unibersidadeetako ikasleak interesik gabeko prestamuak jasotzen dituzte. Prestamu hauek urteko 1.730 \$ izatera iristen dira; hauetatik 340, itzuli behar ez direnak. Sueziak bost Unibersidade ditu egoki banatuak, eta lau filial beste hainbeste hiritan. Unibersidadeko ikasleak 120.000 inguru dira. Lanerako izugarritzko posibilitadeak dituzte.

Koperatiba mugimendua lan handia ari da egiten berri-emate eta hezibide sailean. KFK, *Vi* ("gu") izeneko asterokoa argitaratzen du, argitaraldi bakoitzean miloe erdi bat ale atereaz; famili aldizkaria da, kulturaz ondo jantzia. *Kooperatören* aldizkaria ere argitaratzen du; honek, gai ekonomiko eta koperatibuak bakarrik erabiltzen ditu. Ikastaldeen *Vi vill* ("guk nahi duguna") argitaratzen dute. Eta azkenik personalarentzat eguneroko bat *Var tidning* ("gure egunerokoa").

KFK, Vår Gård koperatiba eskola bat daduka Saltsjöbanen-en,

Stockolm-etik hurbil; goi mailakoa da, eta bertatik igarotzen dira, txanda-jiran, funtzionarioak, ikastaldeen buru egiten dutenak eta Unibersidadeetako ikasleak.

Ikastalde kooperatibua heziketarako barne erakundeak dira. Bost bat mila talde dira, 30.000 lagun dituztelarik. Ikastaroak bi urtetakoak izaten dira.

Argitaldaritzan ere lan handia egiten du KFK, bere filial diren *Rabén* eta *Sjögren*-en bitartez; baita *Liber* soziedadearen bitartez ere (hau ez da KFrena bakarrik). Argitaldari hauek gai askotan espezializatu dira: ekonomiko eta sozial literaturan, haurren literaturan eta gaztetxoentzako liburuetan, irakaskintzarako tresnerian, eta edozein literatura motatan. Entzun-ikusgailuetan (*métodos audiovisuales*), Eskandinabiako beste mugimendu kooperatibulariekin bat eginik lan egiten dute, hezibide film ugari sortuz.

KFK duen liburutegia, munduko aberatsena izango da seguru asko, sozial eta kooperatibismo mugimenduei buruzko liburuetan behintzat.

Hezibide egitamu hauetaz gainera, badu korrespondentziaz klaseak ematen dituen eskola bat (*Brevskolan*); eta nazio mailan ere sortu du zenbait erakunde, kultura fisikoa, gastronomikoa, etab. hazibideratzeko. Beste erakunde bat ere sortu da herrietako aktibidadeak eta aktibidade zentralak kordinatzeko, kontrol bakar batekin. Adibidez:

Distritu bakoitzeko kontu zainzaileek, zensoreek, KFren kontrolerako zerbitzuarekin harreman herstuak izaten dituzte; eta herrietako kooperatibentzat berriemaile oso baliosak dira: hots, kontabilidade teknikei, antolaketari, finanziaioari, prestamuei eta abarri buruzko berriak zabaltzen dituzte. Era berean, KFK 1918 aldera SHF izeneko elkarteak sortu zuen, krisian aurkitzen diren kooperatibei, antolaketa-laguntza nahiz laguntza ekonomikoa lutzearren. Kooperatibek hasieran, bazkide guti dutelarik, behar haina kapital ez dutelako sortzen dira krisi hauk. SHFk, bere

kapital eta antolaketarako gaitasunaz, krisian dagoen kooperatibari, gehienez sortu berria den kooperatibari, bere laguntza eskaintzen dio, hau bere kontura ibiltzeko gai egiten den arte.

Erakunde honek garrantzi izugarria du. Horrelako baten falta nabari da Euskal Herriko kooperatiba mugimenduan.

Enpresen jabeak

Behar bada, Sueziako kooperatiba mugimenduaren handitasunak polarizatu egingo gaitu eta estrapolatzeko arriskuan jarri. Goraxeago idatzi dugu, Sueziako kooperatibismoak bere egitامua ez duela klase borroka bezala ikusten, produzio tresnen jabe egiteko eta sozialismoa ezartzeko asmoz.

Gaur egun, Suezian, produzio tresna gehienak jende pribatuaren eskutan daude. Eta uste dugu, hipotesi batetan, ezarritako era kapitalistak kooperatiben desarroiloa dela-ta bere burua arriskuan ikusiko balu, laster salatuko lituzkeela subersibu eta konstituzioaren aurkakotzat. Zalantzak uxatzeko, nahiko dugu ondorengo laukiari begirada bat ematea.

XIV Lk.—Zenbait sektore garrantzitsuren jabegoa (1968) %-tan.

	Aberastasun kopurua	Estadua renak %	Kooperatibena k %	Pribatua k %
—Mehatzak	14.000	53	0	47
—Metal-lanak	428.000	2	1	97
—Harri, buztin, bidrio	41.000	1	1	98
—Zura, pasta, papera, irarkola	180.000	2	1	97
—Janariak	73.000	4	8	88
—Oialgintza, jantzi, larru	84.000	0	1	99
—Kimia eta kautxoak .	60.000	3	2	95
—Industria guziaz	880.000	3	2	95
—Banketxe komertzialak	18.000	9	0	91

- Basoak*: Basoz estalitako lurretatik % 20 estaduarenak dira, % 5 udaletxeenak, eta % 75 jabego pribatuarenak. Nekazariak, basoen erdiak bereak dituzte.
- Argi indarra*: 1969an estaduak, Sueziako produzio guziaren % 43 administratu zuen, udaletxeen zentralak % 6 eta pribatuak % 53.
- Petrolioia eta gasa*: Sueziak petrolioia eta gas naturala urri du. Oraintsu Baltiko itxasoan aurkitu diren iazimenduen esplotazioarako, S.A. bat sortu da: estaduak eta munduko petrolio trust-ek erdi bana osatzen dute.
- Komunikabideak*: Trenbideetako % 95 estaduarenak dira (SJ). Hontaz gainera, autobus eta kamioi sare handiak esplotatzen ditu. Ibilkerari, zerbitzuen sarritasunari eta erosotasunari buruz akatsik bagea dela esan daiteke, eta Europako beste herrietakoak baino hobea, jendearen sakabanaketa gogoan izaten badugu.
AB Aerotransport (ABA)-ren akzioak erdiak estaduarenak dira, gainontzekoak kapital pribatuarenak. ABak gainera, SASen zazpitatik hiru bereak ditu.
- Bizilekua*: Arlo hontan dute hazkunde ikusgarria kooperatiba aktibidadeek, eraikitako % 20 bereak dituztelarik.
- Banketxe eta finantzak*: Jabetza pribatua da arau, azoka establezimentuentzat eta epe laburreko kredituentzat. *Sveriges Riksbank* (banketxe zentrala) aldentzen da arau hontatik. 1668az gero Sueziako Parlamenduaren kontrolpean aurkitzen da eta publikoari ematen dizkion kredituak oso guti dira kopuruarekin alderatuz gero. Lurgintzako kreditu kutxak (*Spar bankernas Bank*) dira arau honen beste salbuespen bat, aurrezki kutxen diruetxe zentralaren eginkizuna betetzen dute. *Svenyes kredit bank* eta *Svenyes Investerings bank*, 1967an hasi ziren funtzionatzen.
- Aseguruak*: Gehientsuenak elkartekoak eta kooperatibuak dira.

Datu hauk aztertzea aski dela uste dugu, Suezari eman ohi zaion "sozialista" tituluaren gehiegikeria salatzen.

Koperatibagintza eta desarroilo bidetan diren herrialdeak

Koperatibismoa mundan zabaltzarren ACIak bilego bat ireki du Indiako New Delhin, Asiako hego-sartaldeko koperatiba mugimenduaren zuzentzaileak hezituko. Nazioarteko Koperatiba Batzarrak zuzentzen du, baina finantziarioa Suezaren kontu doa, "mugarik ez" eska-jardunaldiari esker. Urteko 15 milioe peztak, koperatibisten artean osatzen dira gehienbat. Tanzanian ere honen antzeko beste bulego bat ireki dute. Maila konkretuago batetan, sueziar koperatibismoak bere laguntza eskaini du Grezia eta Portugalen koperatiba mugimendua sor dadin. Azken bi inizatiba hauek, esan nahi handikoak dira, baina ez gara horien analisisian sartuko.

* * *

Sartaldeko koperatiba mugimenduak barne gaitz bat du hasieran bertan, politika-erlijio neutralidadea onartzea. Horrela "stablishment" kapitalista onartzen da a priori, erreforma helburutara desbideratuz; esate baterako, batez ere erosleen eta familiaren interesak batez ere babestuz. Bide hau, garbi garbi, sozialdemokrata dugu.

Beste posibilitadea, egitan sozialista, hau izanen litzake: koperatiba bakoitza, ideologia eta praktika arloan, langile klasearen kontzientzia ernarazteko erabili; eta ekonomikoan, kapitalak sortzeko, azoka eta produzio bidez jabetzen joateko. Bestela, koperatibak, nahi-ta-ez, langileriaren alienazio muin bihurtzen dira.

Euskeratzaile: xanti iruretagoiena

LEKUKOAK

ESKUAL-DEKOA

Z E N T R A L A

1.322.600 f

338 lekuko kooperat

24 d

KFren administrazio kontseilua (30 lagun)

KFren Komite zuzendaria (7 lagun)

Lehendakaria	Idazkari nagusia		
Administrazio zentrala	Erakunde bulegoa	Finantza saila	Detalren aurre egizt
Sueziar kooperatiben			
<ul style="list-style-type: none"> . Pertsonalaren arazoak, hauen heziketa profesionala barne. . Barruko kontrola 	<ul style="list-style-type: none"> . Nazioarteko harremanak. . Informazio eta propaganda. . Prensa . Inbestigazioa . Hezibidea 	<ul style="list-style-type: none"> . Diru arazoak, Kontabilitadeara eta zergak. . Datuen norakoari dagokion informatika. . Ondasunen administrazioa 	<ul style="list-style-type: none"> . Kont . Sal . kaz . eta
Sub-departamentuak	Sub-departamentuak	Sub-departamentuak	Sub-d
Kooperatiba eskola		Aurrezki Banketxea	SHIF E tza

* Sukalde-pilotoetan aurrez egindako "menu"ak nahiz errezeta berri razionalak eraten dira.
 ** Hemen enpresako kontuen Zensore esaten dena,

DOMU tu

partaide

en batzar orokor

zar

Datzarraren batzorde eratzaila

Kongresu nazionala

(410 ordezkari; hauetatik 10
 FOLKSAM Aseguru Elkarteak

Kontrola-
 tzaileak
 (s)

**

ERAKUNDE DEMOKRATIKOA

ta- o,	A Komertzio saila	B Komertzio saila	I Komertzio saila
-----------	-------------------	-------------------	-------------------

handika-saletxea



ifi- ea	<ul style="list-style-type: none"> Janariaren produzio eta sal-erosketa 	<ul style="list-style-type: none"> Janari ez beste produktuaren produzio eta sal-erosketa Eskualdeetako banaketa eta produzioa. Zabalkundearen antolaketa (planifikazioa) 	<ul style="list-style-type: none"> Esportaziorako nahiz kooperatibetatik kanpoko erosleentzako produktuaren komertzio eta industria elkarteak (enpresak). Neurri batetan KF-renak diren enpresak.
ak	Laboratorio eta sukalde-pilotoa *	Oihalki-laboratoriak	Industriak


in-	Komertzio sub-departamenduak	Komertzio sub-departamenduak	
-----	------------------------------	------------------------------	--

ta- t		Eskualde depositoak	
		Ögitegi eta xerrikittegiak	

K O M E R Z I O E R A K U N D E A

VIII Laukia


 Sueziar familiak
 Koperatibetan partaide diren familiak




KOPERATIBALARIAK, GIZARTE TALDE TAN BANATUTA (1.963).


1.965 aren azken aldera, partaideen % 44 emakumeak ziren.

- ① Industria eta artesautza.
- ② Profesionalak eta erakundeak ogibide desberdinak (etxeakoandreak gehienbat).
- ③ Komerzio eta trasportea.
- ④ Lurgintza, baso, arrantza
- ⑤ *Funtzionarioak



KONSUMOKO KOPERATIBEN ETA KF-REN ERAKUNDE DEMOKRATIKO OROKORRA
1968 eta 1969 ko batzar nazionalera aurkezturiko proposizioaren arabera





Autojestio konzeptuaren goraldia

Bi eratarata antola daitezke lantegi, udal, estatu, giza-elkarte bat, politikoa, soziala nahiz ekonomikoa izan: erdirakoiki nahiz federalki.

Gizadiaren hasieratik, abere sailean ere, erdirakoi edo zentralista ideia izan da nagusi.

Leinu-buruek, etxeko jeunek, erregeek eta abarrek ukan dute beren eskutan giza-elkartearen nagusigoa. Giza-elkarteko bortitzena izan da *Bizitza eta ondasunen* jaun eta jabe.

Baina mendeen joanean nagusigo absolutuaren eta obeditze itsuaren konzeptuak aldaketa bat sofritzen joan dira, konzeptu horiek gobernu absolutista edo erdirakoi guzien oinarri izan badira ere; aldakuntza honek eman dio jaiotza egunotako erantzukizun konzeptuari.

Gaur egun, konzeptu haurk aldatzen dihardutelarik, menpeko elkartearen zerbitzutarako aginpidea eta obeditze ohartuna eta oldezkoa... aipatu ohi ditugu. Era berean, norbere bakoitzaren

erantzukizuna ezezik, kolektibitatearen aurrean ere erantzukizun hori berori ahalezko eta beharrezko dela onartzen ari da gizona.

Hain zuzen, gaur egun hasi gara somatzen konzeptu hauen aldaketarekin bat gizarte osoaren erakuntza berbera ere alda dai-tekeela.

Autojestio konzeptua aldaketa honen buruan sortzen zaigu; hau da, gizon guziok, funtsean, berdintsu garenaz ohartzen garenean, eta norik geure trebetasun eta hutsegiteak ditugunez gero, probetxugarriago, logikoago eta gizabidezkoago dugula sinesten dugu orok beharrezko ditugun giza-elkartek ororen artean sortzea eta ahalegintzea. Gizonak agintaritzaren eta obeditzearen konzeptu zaharrak galtzean, bere elkartearenganako erantzukizuna handitzen doakio eta, bide batez, elkartearen erabaki eta burubideetan *zuzenki eta libreki* partehartzeko grina sortzen, *gizakintza sail guzietan nabari da joera hau*.

Gizonaren aurrerapen ekonomikoa azter bageneza ere eboluzio berbera ikusiko dugu.

Hola, bizirik iraun behar-eta ehizean ziharduten gizon haiengandik, nekazari langintzetara, salerosketara, eta geroztik industriara iritsi gara.

Industriatzearen hasieran oraino, ekonomi-eraketak nagusi bat zeraman berez, ipinitako kapitalaren jabea, alegia; bere langileei lana eskaintzean, hauen jaun bihurtzen zen eta enpresaren jabe eta buruzagi bakar. Egun, ordea, produzitzen den guzia, edozein lantegitan ere, lagunarte batean produzitzen da; produktu horrek, bestalde, ez du sentidurik gizarte baten beharretarako ez bada; gizarte honek ematen dio, beraz, produktuari izateko arrazoin bakarra eta bere egiazko balioa.

Ekonomi-eboluzioaren gaurko maila honetan langintza baten jestioa langintza horretako lankideei dagokiela; langile eta herrikide guziei dagokiela pentsatzen dugu, eta zuzen pentsatu ere, beraik integratzen direneko elkartearen jestioa.

Proudhon hura bere ideiak zabaltzen hasi zenetik, elkarte bateko kideak autogoberna daitezkeeneko ideia bide berriak irekitzen joan da munduan zehar, eta hona gu gaur geroz eta gogorrago izanen den aurka-aurkatzeko baten aurrean: ideia erdirakoi edo zentralistak (betidanik eta nonahi onartu eta jarraituak) batetik, eta autojestio ideia (benetako federalismo bat dakarkeena) bestetik.

Autojestio ideia, poliki baina ari da aurrera. Lehenik, herrialde ainitzetan indibidualki zertutako ekin-saioak; azken urteotan, berriz, Estatu oso baten eraketa ekonomikoaren, eta baita sozial edo politikoaren, etab., oinarri bezala ezartzeko benetako saioak sortu dira.

Artikulu honetan Jugoslavia-ko autojestioaren eboluzioa eta eguneko egoera azaldu nahi nuke. Gogoan dut arazo hontan Arjelia edo Txekoslovakia-k ere egin dutela saio eta aurrerapenik, baina autojestio konzeptua serioski eta bere luzezabal guzian aplikatzen ari den nazioa Jugoslabiak dirudi, eta hortik artikulua ren gaia. Baina, gaiari heldu aurretik zera utzia nahi nuke argi eta garbi: autojestio ideia hau erabat berria dugula, munduan gizonaren agerpena gogoan harturik behinik behin. Ohar gaitezen gizona, milaka urtetan, erdirakoi edo zentralista modu baten arabera moldatua bizi izan dela: buruzagiaren nagusigo absolutua eta azpiko guzien obeditze itsua. Gizonok ezin dugu gure pentsakera urte guti batzutan arras aldatu, belaunaldi batzutan izanik ere; ezin harrituko gara, beraz, herrialde askori, Jugoslavia-ri baitipat, autojestiora doazen arren, bide horretan behaztopo eta okerrik aurkitzen badiegu. Beharrezkoena, hala ere, pentsaera bat osorik aldatzea da, eta arian-arian bide berriari jarraitzea, ekintza kolektibuen aurrean bakoitzaren erantzukizuna finkatzen duen bi-deari, nagusigoa elkarteari zerbitzu bezala eta obeditze erantzulea, erresponsaduna aitortzen duen bide berriari jarraitzea.

Jugoslabia-ko autojestioaren bilakaera

Jugoslabia sozialistaren kondairan bi haro berez genitzake, oso desberdinak: lehenbizikoa 1944tik 1950ra doana, edo 1953ra nahi bada. Bigarren aldia, esateko, 1953an hasten da, enpresetako langile jestioaren sortzearekin: honen ondoren bozketa sistimaren aldakuntza izan zen, 1953ko iztituzio legearen arabera.

Lehenbiziko haroan, arras zentralista zen lanketa antolamenduen eta, jeneralki, ekonomia guziaren jestiosistema; era berean, zentralista zen ekonomiaren administrakuntza politiko, sozial, eta barren jestio sistema ere. Plangintza zentralista zen nabarmenki; eta ezartzen zuten ekonomi-saileko xehetasun guziekin, eta haien jokabideak inposatuak ziren. Produkzioaren zenbat-nolakoak planean gaininposatuak zetozen. Hilabete eta urtebetekoak izan ohi ziren egitarauak, planak, eta derrigorrezkoa zuen enpresak haik betetzea.

Aurrez ezarritako egitaruari lotuak zeuden oso-osorik enpresa guziak, eta horrela, lehengaiak nahiz makinaria egitarauan seinaturiko enpresa edo bazkundeengandik erosi behar izaten zuten; areago, egindakoak saldu ere bai.

Lan-sariak, soldatak, ez zuen zerikusirik produkzioaren arrakasta edo hondamendiarekin, ezta enpresako produktuen salmentarekin ere, baizik eta lanean iragandako orduen eta langile bakoitzaren kalifikazioaren arabera ziren soilik. Salneurriak Estaduak inposatzen zituen; orobat, soldata ere berak banatzen zien herritar guziei.

Eraketa erdirakoi gisa honek lehendabiziko urteetan eman zuen bere fruitua, garai hartan Jugoslabia herri guziz subdesarroitatu bat bait zen: nazioko errenta guzia kasikan lehenen eta hirugarren sailetik zetorkion, eta bigarren sailetik, berriz, hots, industriatik, bere ondasunen % 11 soilik.

Erakunde zentralista honek, baita, bulegokraziaren eta Jugos-

labia-ko Komunista Batasunaren pizkortzea ekarri zuen, klase berri bat sorraraziaz, herriaren zerbitzari izatetik haren jabe izatera iritsi nahi zuen klasea.

Jugoslabiarrak egoera hontaz ohartu ziren orduko eginahal guziak egin zituzten klase berri honen jaiotza zapuzteko, zentralizatzeari eta bulegokratizatzeari borrokaka.

1950eko ekainaren 26an onartu izan zen Biltzarre Federalean enpresetako jestioarekiko oinarri-legea. Lege honen bidez jestioa "zuzeneko langileei" ematen zitzaien, sozialista printzipioari jarraiki: *Lantegiak langileentzat*.

Enpresen jestioa langile-elkarteek eramane zuten, Planak eta legeek ezarritako muga-barnean. Langileak "langilekontseiluak" hautatzen hasi ziren berehala, beren ordezkari eta bide batez "jestio-komiteen" hautatzaile liratekeenak (enpresaren zuzendari izatekoak hauk). Zuzendariak, jestio-komitekoetariko bat izanik, bere gain zuen produkzioaren zuzendaritza. Egitarauen eta balantzearen afrogantza, enpresaren araudi jenerala, ondasun banaketa, kapitala loditzeko diru-hoinbesteko seinatzea, soldatak, etab., langile kontseiluetan aztertu eta erabaki beharrekoak ziren orduz gero.

1950 urtean sortu ziren legezki lantegietan autojestio-gailuak: langile kontseilua eta jestio-komitea, alegia. Garai hontan, ordea, bere egitekoa produkzio arazoekiko jestioetara iristen zen soilik, eta Jugoslavia-ko sistema zentralak ezarritako egitarau ekonomikoak betetzera behartuak aurkitzen ziren. 1951ko urteaz gero, eta Estaduaren egitarau ekonomikoak enpresen benetako jestioa behaztopatzen zuelako, enpresa hauei bere urteroko egitarauak libreki egin zitzaizkien eskaini zitzaizkien.

Lehendabizikoz, fabriketan ezarri zen autojestioa, baina sistema hau lantegi gisa orotara hedatu da urratsez urrats: trenbidezko transporte, urrut-komunikabide, komertzio, ostalaritza, eta abarretaraino.

1953an elkualdeei ere autojestioa ezarri zien konstituzio legeak. Legearen arauak jarraiki, ordezkari gailuen (Nazio-Elkartea eta Komite herrikoiak) ahalmen-agintea sendotu egiten da, haiei erabaki politikorako ere boterea emanaz; lege-jokabide hauekin bat jarraituaz, produzitzailen kontseilu bat sortu zen, langileak zuzenki ordezkari zituzten. Gobernuari dagokionez, bere ekintza-egitekoa eta bere administrazio-egitekoa elkar-bereizituak izan ziren. Ekintza-gailuen erantzukizuna sendotu egin zen. Estaduko organuen esku-bideak murriztu egin ziren, antolamendu ekonomiko eta iztituzio autonomuen alde. Antolamendu ekonomikoaren eta Estatu-gailuen arteko harremanak, herri edo udalen eskumenpeko izanen ziren. Horrela hasi zen zabal-hedatzen eguneko udal-sistema aberatsa. Finantza mailan, udalek Estatuarengandik diru gutiago hartuko bide zuten, baina, ordainez, diru hori langileengandik eta lan-antolamenduengandik bil zezaketen zuzenki.

1954az gero, lan-antolamenduen kapitala ez zen Federazioaren jabegepeko, Kapital hau libre izanen zen, hots, Federazioari eskabide agirikorik egin gabe balia zitezkeen enpresak kapital hortaz. Halaz guziz ere, eduki badute obligantza kapitalaren balioa oso-oso gordetzeko eta haren nolabaiteko interes bat Jugoslaviar Komunitateari ondaintzeko. (Aintzinago aztertuko dut geldiro nola ulertzen duten jugoslaviarrek ondasunen jabege-eskubidea).

1954an, jugoslaviarrek inbertsio-fondo batzuk sortu zituzten (federalen, errepublikanoen eta udalekoenak). Sarrerak enpresek hornitzen zituzten eta enpresa hauk kredituren bat eskatu beharrik aurkitzen zirenean, organismo harengana jo ohi zuten, urteroko interesa ordaintzera eta prestamena behartuaz. Honela enpresak gero eta burujabetzenago zihoazen.

1958 eta 1961eko urteetan agerturiko legeen arabera, enpresa bateko irabazi edo sarrera guzien banaketa aintzinago, lan-antolamenduei buruzko kapituluan, adiaraziko dudana erara egin ohi zen. Enpresak, nahi zuten bezala bana zezakeen kapitulu hortan errenta

hutsa deituko dudana. Hau da, bakoitzaren kontsumorako kopuruaren eta kapitala pilatzeko kopuruaren (gizatearen erreserba-baltsaren) bien arteko erlazioa gorabeherakatzeari bere esku zegoen.

Alabaina, Federazioaren esku jarraitzen zuen oraino irabazi gehienen banaketak, zeren enpresak irabazietarik % 20ren norakoa erabaki bait zezakeen soilki eta Federazioak % 80rena, zerga eta petxen sistima zela medio. Funtsean, 1950etik 1960rako hamar urteotan eginiko aldaketa guztiak ez ziren aski izan langileriak produkzio harremanen gidaritza eskura zezan; gidaritza hori minoria baten eskuetan geratzen zen: minoria hau ez zen sartzen produkzio bidean eta, ondorioz, langileek gizagaindiko-edo botere heldu-ezin bat baillitz begira ohi zioten.

1958an aurrerakada berri bat ematen da autojestioan, urte honetan kultur-iztituzio guzien jestioa, zegokienei eskualdatu bait zitzaien (irakaskintza, ikuskizun, irrati-telebista, liburutegi, etab.).

Gizarte-segurantza ere autojestio moldean sartu zen eta bizitgietako maizterrak, berriz, beren etxeetako arazoan jabe izaten hasi.

1959ko abenduko legeak udaletako zerbitzu sozialen autojestioa ere zehazten du, udal horien erabateko askatasun ekonomikoa legebihurtuaz eta haien irabaz-bideak markatuaz. Lege honek beronek zehaztatzen du, orobat irakaskintza etxean, eta hezikuntza eta osasun etxean finantziaketa.

1963ko apirilaren 7an, Biltzarre Federalak Kostitutio berria herriratzen du (hirugarrena). Hara zer dioen:

Jugoslabiako Errepublika Sozialista federala, libreki elkaturiko eta eskubide berdindun herriek osatzen duten Estatu Federal bat da, eta jestioan eta herri langilearen indarrean finkaturiko elkarte sozialista demokratiko bat.

Horrela lehen atalaren lehenen tituluak hasieran. Eta 34 artikulua, berriz:

hiritar bakoitzak gizarte autojestionarako duen eskubidea ukiezina izanen da dio zehazkiago.

1964an inbertsio fondoak (1954an sortuak) desagitea erabaki zen, eta haien ondasunak banketxeetara aldatzea.

1965ean hogeitamar lege berri onartu ziren, eraberritze ekonomiko bati begira. Ekonomikoak, orduraino, desarroilo biziki dinamiko bat igaro zuenez gero, agian inflazionista samarra ere bai, lege berrion helburua ekonomia hau iraungarri egitea zen, eta bide batez, ekintza arrazoibidezkoago bat hedatzeko baldintza egokiak sortzea. Hontaz gainera, beste helburu bat ere bazuten: nazioko ekonomia nazio-arteko merkatuan txertatzea, alegia.

Gainera erreforma honek administrazioaren neurriak ahalik gehien moztu nahi zituen, hauek, salneurriei aplikatzean, desparekotasun nabarmen bat sortzen bait zuten lehengaien eta esku-landuriko produktuaren prezioen artean; bide batez, barruko salneurriak eta nazio-arteko kompetentziakoak elkarrengana hurbildu gogo zituen erreformak.

Azkenik, enpresak udalen zaingotik ateratzen saiatu zen, erreforma ekonomikoa lan-antolamenduei behar-beharreko autonomia bat emanaz, beste udal nahiz errepublika batetako enprekin nahasteko edo koperatzeko eskubidea ematen zien autonomia.

Erreforma honek ez ditu inbertsio berrietarako dirutzak gutitzen; bankuetan zeuden fondo hauk, ordea, enpresen menpegora iraganen dira.

Komunista Batasunaren bederatzigarren batzarrean honen eraketa eta antolaera arras aldatuko zuen zenbait arau berri onartu zen (1969-III-14). Komite zentrala desegin zen (154 kide ziren), haren tokian *presidium* delakoa (52 kide) eta bilera federala (280 kide) ipiniaz. Herriaren erantzukizun politikoa presidiumeko ekintza-komitearen eskutan geratzen zen; hamabost pertsonak osatua zegoen.

Arau hauek, izateko eta eztabaidatzeko eskubidea aitortzen zien minoriei, Komunista Batasunaren baitan. Hemendik aitzina, gehientasunak (maioriak) onarturiko jarraibidearekin bat ez lezozkeenak, beren aginte-egitekotik erretira daitezke, pertsona arrisurik gabe.

Hara batzarre honen lehen ondorena: 1969-IV-1ean errepublika federatuen eta udalen Biltzarretarako egindako bozketan, % 99 xifre betiko hura ez zen azaldu estidistiketan; xifre honek adiarazi ohi zuen, izan ere, eskuarki, edozein azterketaren parte hartzean hautagai bakarrak lortzen zituen bozetarik ehunekoa. Bozketa hauetan aurkeztu ziren, lehenengoz, aulki politiko bat bertarako kandidatu bat baino gehiago; areago gertatu zen, Komunista Batasunak izendatutako kandidatu ofizial zenbait nabarmenki menderatua izan bait zen.

1971ko maiatzaren 21era arte bi diru-iturri edo irabazbide zituen gobernu federalak: arrunta eta zergaberezikoa, biak antzekoak zenbatasunari dagokionean. Errepublikak eta eskualde autonomuek, hilabeteetan eztabaidatu ondoren, erabaki dute, azkenik, extraofizial deritzea presupostuaren banaketa, hots, enpresei soilik ezartzen zaizkien zergek eta petxek osatzen dutenarena. Presupostu hau azpiegituraren lanetarako (bideak, portuak...), ostatu eta turismo industriarako, itsas ontzien kanposalketarako, jugoslabiar enpresek atzerrian egindako lanak ordaintzeko (hirugarren munduari laguntzak) eta beste horrelakotarako erabili ohi zuen gobernu federalak.

Hemendik aitzina, ostera, errepublika bakoitzak finantziatu beharko ditu bere lur-mugetan egiteko lanak eta, era berean, presupostu extraofizial edo zergaberezi horretarik dagokion parte berak jasoko du zuzenki. Mazedonia, Montenegro eta Bosnia errepublika subdesarroituek, ordea, eta berdin Kosove eskualde autonomuak, Federazioaren laguntza dukete.

1969az gero, Jugoslabia-ko errepublika sozialista federalaren

elkarburuzagitza bat sortzekotan dabiltz. 1970eko abenduan, azkenik, proiektu bat aurkeztu zuen Tito mariskalak: 1971ko ekainaren 18an Nazionalitateen Ganbarak (Jugoslavia-ko parlamendu federalean ganbararik inportanteenak), onartu duena. Federazioaren buruzagitza 22 kidek osatua izanen da, honela: sei errepubliketariko bakoitzak 3 ordezkari, eta bi eskualde autonometariko bakoitzak 2 ordezkari. Tito izanen da Komite zuzendari berri honen buruzagitzat hautatua.

Autojestioaren gaurko egoera

Esan dugunez, 1950ean urratu zuten jugoslabiarrrek autojestiorako bidea. Ordurarte Jugoslavia guzia erdirakoki edo zentralistaki eratua zegoen. Autojestioa, benetako federalismoa, ulergaitza gertatzen zaio mentalitate zentralista bati. "Guzia gidatzen eta erabakitzen duen nagusigo sendo eta bakar bat falta dadin hartan, eta gizon guziak nagusigo guziahaltso horrenganako obeditze itsu batean heziak ez dauden hartan, ez dagoke gauza onik, izugarritzko nahaspila besterik", pentsatu ohi dugu arrunki. Horra zergatik ari diren marmarrean gehien gehienak Jugoslavia-ko autojestiozko gobernaera dela-ta. Gainera, arrazoizko denez, lehen ere esplikatu dudanez, Jugoslavia-k ez du autojestio osoa, gaur darabilkien bezala, bat-batean ezarri. Autojestio zabal-luzeago baten bidetik doaz, oraino gizadiak urratu gaberik duen federal bidean. Aplikatu bada ere, bere osotasun eta perfetasunetik urrun aplikatu da, hala Europa-ko zenbait naziotan, industrialgintza aurretiko gizarteetan.

Ez da posible artikuluko batean Jugoslavia-ko autojestioaren gaurko egoera bere osotasunean aditzera ematerik; hau dela-ta, funtsezkoenari, agian harrigarrienari, helduko natzaio. Lan-antolamenduei eta antolamendu sozio-politikoiei buruz hitzegingo dut, ekonomia taxuera arinki ukituaz.

Lan-antolamenduak

Jugoslabiarentzat *lan-antolamendua* terminu honek zera esan nahi du: autojestiozko oinarri batean finkaturik dagoen edozein enpresa ekonomiko, herri-zerbitzuko elkarte edo bestelako iztituzio (dela heziketa, dela kultura, segurantza sozial, osasun edo bestez arduratzen direnak).

Autojestiozko oinarri hau txit da eskuzabal enpresen eskubi-deak aitortzean (gero apur bat hitzegingo dut heziketa, kultura, gizarte, etabarren antolamenduei buruz), hots, egindako produktuen nolakotasun, zenbatasun, edo sal-neurriekiko dituzten eskubideak eta, jeneralki, eskuartean duten ondasun sozialaren administrazio eta jestioarekiko eskubideak aitortzean; eskuzabala teoriariaz bederen, nahiz eta gero, praktikan, hain zabala ez izan, lan-antolamendu horretako zuzendari aulkien eta autojestio gailuen bozketan gertatzen dena lekuko.

Honela dio Kostituzioaren VI artikulua, 1963ko apirilaren 7an onartuak:

Jugoslavia-ko antolamendu sozio-ekonomikoaren funtsa zera da: libreki elkarturik eta gizartearenak diren produkzio-bideekin egindako lana eta produktu soziala sortu eta banatzeko langileen autojestioa, antolamendua-ren eta giza-elkartearen barnean.

Kostituzio beraren IX artikulua, zehatzago:

Langileen autojestioa urra dezakeen egitada oro Kostituzioaren aurkakotzat hartuko da.

IX artikulua honek beronek dio *nahiz zuzenki, nahiz beraiek aukeraturiko jestio-gailuen bidez* eraman dezaketela langileek lan-antolamenduaren jestioa. Jestio-gailu edo enpresaren ordezkariak hauk dira: langile kontseilua, jestio-komitea eta zuzendaria.

Jugoslavia-ko lan-antolamendu kideen jokabidea aktibua izan ohi da, dagokien ondasun sozialaren jestioaz ardura dutela; hau

dela-ta, legeak eskaintzen dien egokiera arruntez baliatu ohi dira (jestio-gailuen bozketan partehartzea dela, langile kontseiluaren batzarretara joatea dela nahiz beren idarokizunak adiaraztea dela); baina badute beste lege-egokierarik ere: biltzarreak eta *referendum*-a alegia (azkenengoa bi enpresa edo gehiago bateratzerakoan aplikatu daiteke).

Biltzarre hauk eta enpresa kapitalistetako akziodunen biltzarre nagusiak elkar-pareko dira. Langile kontseiluak nahiz sindikatuak bileratara ditzake; bertan langileei enpresaren martxa ezagutarazten zaie (langile elkarteak berak gertatutako txostena izan ohi da, eta sarritan biltzarkide guziei banatzen zaien txosten idatzi bat), puntako arazo eta premiazkoenez galdetu, etab. 1953az geroztik, langile-talde guziaren aburua eskatzen da *referendum* bidez.

Langile kontseilua

Enpresa tipia denean, 30 langiletatik beherakoa, langileek oro osatzen dute langile kontseilua.

Gainerantzeko enpresatan, 15etik 120ra bitartekoa izan ohi da kontseilukideen numeroa. Hauk hautatzerakoan, zuzeneko produzitaileen (langileak eta teknikoak) eta produziotegietatik landako langileen artean dagoen proportzio bera gordetzen da, ahal delarik.

Enpresako langile guziak hautatzaile eta hautagarri dira (zuzendaria eta zuzendaritzako beste zenbait ezik). Hautagaien zerrendak sindikatuak edo langileek berek prestatzen dituzte. Gehienetan, hala ere, sindikatuak, Komunista Batasun Ligaren (Jugoslavia-ko P.K.-ren) kontrolpean daudenak.

Langile kontseilua da zuzendaritza gailurik nagusiena. Berak agintzen du ekintza ekonomikoaren arazorik garrantzitsuenetan, hala nola enpresaren bere baitako antolakuntza eta barne-harremanak; berak zuzentzen ditu langileen ametitze-egozteak eta lan

harreman guziak. Gainera jestioko komiteek enpresaren egoerari buruz egindako txostenak (hilabeteroko edo hiru hilabeterokoak) aztertzen ditu eta urtebeterako egitaraua, lan-sariketak, irabazien banaketa, etab., eztabaidatu eta onartzen.

Langile elkarteak hautatzen ditu jestio-komiteko kideak, eta baita eratsi ere, beharrezkoa baleritzaio.

Enpresako langile guziek dute langile kontseiluaren bilera-tara joateko eskubidea; zuzendariak eta jestio-komiteko kide guziak, berriz, joatera behartuak daude.

Langile kontseiluaren bilerak hilerokoak izan ohi dira, eta egun bat baino gehiago ere luzatzen dira bilera batzuk (adibidez, irabazien banaketa aztertzen direnekoak).

Jestioko komitea

Bost kide ditu gutienik, eta gehienik 15. Bilerak ugari ditu: hilean 4tik 6ra. Bere eginkizuna gizarte kapitalista batean administrazio kontseilu batek duenaren pareko xamar da, haren egin-beharrak franko zabalagoak badira ere.

Zuzendaria, berez, komite hontakoa da. Komite hontako hiru laurdenek, berriz, zuzeneko produzitzaile behar dute izan nahitaez.

Jestioko komitea langile kontseiluak hautatzen du, eta jeneralki, langile kontseilukideen artetik. Urtebetekoa izan ohi da honen agintea, eta ezin daiteke inor hiru bider hautatua izan.

Komite honetako kideek ez dute bere jestioagatik inolako ordainik edo abantailarik, baizik eta lehengo lan-tokian bertan jarraitzen dute, bozketa aurretik bezala.

Dusan Bilandzic-ek dioenez ("Gizarte jestioa" liburuan, 1965ean Belgrado-n argitaratua), hiru sailetan bana daitezke jestioko komitearen betekizunak:

- 1) Langile kontseiluari dagozkion eta erabaki behar dituen arazoez proposamenduak egin.

- 2) Delako kontseiluaren erabakiak zertu, aplikarazi; adibidez, enpresaren produkzio, komertzio, diruketa, teknika, eta abarren arazoen araudia, zuzendaritzari dagokiona ez den bitartean, jakina.
- 3) Enpresaren lege edo araudiak berari leporatu dizkion ekonomi arazoak eta beste libreki erabaki.

Komite honek, gainera, zuzendariaren eta bere lagunen jorkabidea kontrolatzen du; haren oporretarako bitarteko bat izendatzea ere berari dagokio.

Zuzendaria

Hasiera batean (oraindik gaur ere Rusian eta komunista deritzaiegun beste naziotan gertatzen denez), zuzendaria enpresaren gaintik zegoen talde ekonomiko gorenago batek edo honen ministroak izentatzen zuen, enpresa ez bait zen haren parte bat baizik. Garai hontan, zuzendariaren nagusigoa absolutua zen enpresan. Autojestioa sortu zenetik, ordea, bere eginbeharrak eta berdin bere hautaera eten gabe aldatzen joan dira; eta ez da erraza, beraz, gaur eguneko araudi zehatza ematen.

1952an eskualde edo distrituko herri-komiteek hautatzen zuten zuzendaria; 1953aren azkenaz gero, ordea, udaleko herri-komiteek hautatzen dute. 1963ko Kostitutuzioak norgehiagoka baten bidez hauta daitezela agintzen du eta: *norgehiagokarako batzordea lan-antolamenduko eta udaleko ordezkari edo beste elkarte sozio-politiko edozeinetako ordezkari oso bedi.*

Egun zuzendaria ez da zuzendari tekniko bat besterik eta legez ez du zenbait eskubide osagarri baino, esaterako: dirutza bat edukitzea. Baina bestaldetik langileen hierarki buru bezala begiratzen da.

Zuzendaria enpresaren enplegatu bat da, eta enpresaren araudia da, kasu bakoitzean, honen egitekoa erabakitzen duena. Halaz

guztiz ere, bere eginbeharrik funtsezkoenak jestioko komitearen eta langile elkartearen erabakiak betearaztea da.

Enpresako autojestio konzeptua

Zabal konzebitzen dute jugoslabiarrak lan-antolamendu baitako autojestioa: ez dago 1963-IV-7ko Kostituzioaren IX artikulua irakurri besterik:

Lan-antolamenduaren baitako autojestioak eskubide eta beharkizun hauk daramazki, bereziki, langileentzat:

1. Lan-antolamendua administratu, dela zuzenki, dela berak aukeraturiko gailuen bidez.
2. Produktzioa nahiz beste edozein ekintza antolatu: lan-antolamenduaren aurrerapenaz arduratu, lan eta aurrerapen-egitarauak prestatuz.
3. Produktu eta zerbitzuen trukaketaz eta lan-antolamendu baten bizitza-desarrolloekin zerikusiko arazoek erabaki.
4. Gizarteko ondasunen baliakeraz erabaki; horietaz arrazionalki eta ekonomikoki baliatuz, lan-antolamenduari eta gizarteari ahal den arrakastarik jasoen seguratzeko.
5. Enpresaren irabaziak banatu eta lanaren oinarri materialaz begiratu; orobat, lan-elkartearen gizartearenganako beharkizunak bete.
6. Langileen enpresan ametitzeaz, lanetik gelditzeaz, eta lanezko elkar harremanez erabaki; lanaren iraupena seinalatu, honen baldintzen arabera; eta guzientzat jakingarri diratekeen arazoak erregelatu; lanaren barne-kontrola eta zabalkundea zaindu.
7. Lanaren baldintzak erregelatu eta hobetu; babes teknikoa eta oporrak antolatu; bere formaziorako, bere eta gizartearen standard-aren aurrerapenerako beharrezko baldintzak sortu.
8. Lan-antolamenduaren alderdiren batek, bere enpresatik at, beste enpresa bat sortu nahi duenerako

Garbi dagoke. Lan-antolamendu baten zeregina Estadu kapitalista batetako enpresa batena da, guti gora behera (gero, plangintzaz hitzegiterakoan, aipatuko ditudan mugak salbu).

Jugoslavia-n, enpresak berak erabakitzen du bere produzio-egitaraua, bere eginkizun berezia, produzio-motak eta tamainua, produktuen koalitateak eta salneurriak, beharrezko duen lehengai guzia eskuratzea, beste enpresa batekin elkartzea, lanari uztea, etab., etab.

Enpresa batek, gizarteak bere eskuetan ipini duen kapitala, behar bezala administra behar du. Hontara dator jugoslabiarrak asma duten honako hau, hots, enpresa bakoitzak gizarteari interes jakineko bat ordaindu beharra (interes hau, logikoki, erabiltzen dituzten produzio-bideekiko edo behar duten kapitalarekiko porzizioan ordaintzen da).

Ohi ez bezalako premia bat sorturik, banketxeari prestamen bat eskatzen dionean ere, dagokion interesa ordaindu behar dio, gizartearen ondasunez baliatzen denez gero.

Jugoslabiarr enpresari buruz ideia garbiago bat ematearren, ondasun-banaketaren azterketari helduko gataizkio orain.

Enpresa baten irabazi guzietarik kendu behar direnak:

1. Lehengaien gastuak eta gastu arruntak.
2. Amortizatze-gastuak.
3. Kapital sozialaren interesa (% 2tik % 6ra bitartekoa izan ohi da, zein enpresa gisa edo zein garai den).
4. Banketxeek aurreraturiko diruaren interesa, jeneralki *rotazio-balfsetarako* erabiltzen dena (% 2,50etik % 5,50-erakoa).
5. Enpresa dagoen lurrari dagozkion zergak.
6. Ganbarei eta ekonomi-elkarteei diru-laguntzak.
7. Fakturaketarekiko zergak; hauk dira prezio-politikaren neurbiderik funtsezkoena. Zergarik handiena ere bada: % 15 jeneralki.

8. Errentarekiko zergak. Errenta hutsa deritzaiona: langileen esku gelditzen da eta jarraitzen duen eran banatu ohi da:

- 1) Erreserba-kopurua. Hauk, aldiz, honela banatzen dira:
 - a) Etor daitezkeen galerak osatzeko kopurua.
 - b) Oinarriko produzio-bideen kopurua.
 - d) Rotazio-kopurua.
 - e) Kontsumo arruntaren kopurua: langileen erosotasun eta heziketa profesionalaren hobetzeaz arduratzen dena.
- 2) Lan-sariak.

Jugoslabiarrak lan-sariaz ulertzen dutenak badu beregan kapitalista gizarte batentzat prestamen sozial den zenbait elementu ere.

Honela, jugoslabiarren lan-sarian elementu hauk sartzen dira baitipat:

- a) Segurantzaren sozialetarako zergak.
- b) Lan-saria, bere sentidurik egokienean.
- d) Enpresan lan egiten dutenentzat etxegintzarako kopurua. Lan-saria (bere esanahi egokian) edo langileen norbere errenta deritzaiona hiru gauza hauei lotua dagokie:
 - a) Enpresaren atarramenduari.
 - b) Lana egiten dueneko elkarte ekonomikoaren atarramenduari.
 - d) Langile bakoitzaren lanari eta emankortasunari.

Gaurko jugoslabiarrak sistiman inork ez dezaioke elkarteari soldata-zerrendarik edo araudirik inposa. Alokairuaren zenbata-suna erabakitzea lan-antolamenduari dagokio soilik, eta ondorioz, langileari.

Beste hitzetan esateko, soldata guziena gora-beherakoa —langile soilarenetik buruzagiareneraino— lan-elkarteari erabaki bat da, ez besterenik.

Bestalde, langile kontseiluek geroz eta diru-kopuru ekono-

miko handiagoak kontrolatzen dituzte, soldata-kopuruak ezezik, egun, 1965az gero, gisa orotako *inbertsio-kopuru*en enplegua ere kontrolatzen bait dute.

Kopuru hauk, urritzen gabe, jugoslabiaren errentaren gero eta parte handiago batez jabetzen ari dira. Honela, 1953an enpresek zerabilzkiten kopuruak nazioko errentarik % 27'7koak ziren, eta 1954an, aldiz, % 30'7koak; 1957an % 33koak; 1959an % 40'5ekoak; 1960an % 42'3koak; 1964ean % 51koak. Gaur egun, azkenik, nazioko errentarik bi heren baino gehiagokoa da.

Autojestioa beste zenbait sailetan

Lehen esana dudanez, autojestioa Estaduko ekintza-sail orotara zabaltzen joan da Jugoslavian. Guziei buruz ez hitzegitearren, irakaskintza arazoan geratuko natzaizue apur batean.

1954ean unibertsitatei buruz eta 1955ean ikastolei buruz emandako legeak irakaskintzako autojestio printzipioari buruz ari dira; hau 1958an eskola-errejimenari buruz emandako lege nagusian onartua izan zen, egun dadukagun eran.

Egun ikastetxeak autonomuak dira eta irakasleriak eta hortarako hautatuak izan diren hirigizonek gobernatzen dituzte zuzenki; hiritar hauk organismo sozialen nahiz federazioaren legezko organismoetan izendatzen dira. Ikasleriak, baita bigarren mailako irakaskintzan (Jugoslavian 15 urteez gero hasten da) diharduen ikasleak ere, berak hautatzen ditu autojestio gailu horietarako ordezkariak.

Erreforma ekonomikoaz lehendik, irakastetxeak udalen, errepublikaren eta federazioaren eskuko ziren, baina halako dependentsia ekonomiko hura nabarmenki oztopo zitzaion autojestioari; izan ere, ezin izan autojestiorik organismo sozio-politiko batzuekiko erabateko menpetasuna dagoen haretan. Hau galeraztearren, heziketa batzorde federalak lege bat prestatu zuen 1966an

praktikara eraman zena. Orduz gero, irakaskintzako diru-iturri-rik nagusiena langile bakoitzagandik zuzenean biltzen den zerga berezi bat izanen da, direla langile hauk nekazari, artesau, bes-telako langile, etab.

Kopuru hauk dirua eman dutenen (hiritarren) artean osaturiko batzordeek eta ikastetxeen ordezkariak administratzen dituzte.

Kultur iztituzgoak oro autonomu direnez gero, halatsu jo- katzen dute antzoki, zinematografi-enpresa, telebista-irratien emi- sora, artxibu, museu, liburutegi, etabarrek ere.

Jabego eskubidea

Jugoslavia-ko 1963ko Kostitutuzioan ondo berezten dira nor- bere bakoitzaren jabegoa eta egintza-bideen jabegoa.

23-gn. artikulok argiro zehazten du: "Garantiaturik gera- tzen da norbere bakoitzaren kontsumorako edo erabalarako nahiz norbere kultur beharkizunak asetzeko edo beste norbere beharrak betetzeko diren objetuen jabegoa".

"Hiritarrek beren bizitegiekiko jabego eskubidea dukete, nor- bere eta familiaren beharkizunetarako edo norbere eginbeharretan jardun ahal izateko beharrezko direnez".

Lurrak (nahiz eta hau egintza-bideei buruz dioenaren kon- traesaneko izan, Rusia, Polonia, Rumania, etab., hots, komunista Estadu ororen kontraesana berau) bakoitzaren jabegokoak izan daitezke, 21 artikulua dioenaren arabera:

Nekazariak beren soroen gain duketen jabegoa ba- bestuko da, haien zabalgoa gehienik 10 hektareakoa izan dadinean.

Baina lur-sail handiagoak, basoak, fabrikak, etab., egintza- bide guziak, jugoslabiak Komunitatearenak dira, hots, ez dute jabe bakar edo zehatzik. Hontara mintzo da jugoslabiak Kostitu- zioa, bere hirugarren printzipioan:

Egintza-bideak, gizarte lan ororen oinarri besteratu-ezina, langile bakoitzaren eta guzien behar eta interesen onerakoa eta giza elkartearen oinarri materialaren eta harreman sozialisten aurrerapiderako tresna izaki, gizartearenak dira. Gizarteari dagozkio, bada, egintza-bideak eta administratu ere langileek administratzen dituzte, beren buruaren eta komunidadearen onerako erabiliaz, bata bestearen aurrean eta guziok komunidadearen aurrean erantzule.

Eta aitzinago, hirugarren printzipioan bertan, argiroago:

Egintza-bide sozialen jabego eskubiderik inork eduki ez dezakeena ezarria dagoenez gero, ez du inork, ez elkargo sozio-politikoak, ez lan-antolamenduak, ez langileak (indibidualki harturik), legearen izeneko jabego baten bertutez, gizarte lanaren produktuaz jabetzerik ahal izango, ez dute gizarte lana eta egintza-bide sozialak administratzerik, edo haietaz disposatzerik, edo haien banaketarako baldintzak nahi bezala ezartzerik ahal izango.

Dakusagunez, egintza-bideekiko jabego eskubideak ez du Jugoslavian Erroman eduki zuenaren zentzu berdina; hura Mendebaleko Zibilizazioko Estadu guziek hartu zuten eta hauek, berriz, beste zibilizaziodun Herriengana zabaldu dute; hargatik gure kulturak haienaren gain duen eragin handia. Egintza-bideak Estadu kapitalistetako akziodunenak izan ohi dira, eta egintza-bide batzu bakarrik Estaduarenak; herrialde komunistetan, kontrara, Estaduarenak dira egintza-bideak oro: Rusian, Polonian, Txekoslovakian, etab.

Jabegoaren kontzeptu hau herri batzuetako legetan kausi daiteke soilki (euskal herrietako Foruetan, esaterako), gaurko industrialgintzaz lehendik.

Hau honela, faltsu litzake Jugoslavian jabego soziala estadu-jabegoarekin kidekotzea, baina ez du esan nahi elkargo edo multzo, etab. baten jabegoa denik ere. *Jabego soziala* kontzeptuak esanahi

negatibu bat daduka, *Jabegoaren ukazioa* adiarazten duena, hain zuzen.

Ez Federazioak, ez Estaduak, ez enpresak, ez langile multzoak, ez langile bakarrak, inork ez daduka egintza-bideen edo lan-produtuaren jabego eskubiderik. Jabegoaren sozial jitea da, zinez, lanaren produktuaren banaketan eta egintza-harremanetan daitekeen sozializazio mailarik gorengoena.

Elkargo sozio-politikoak

Elkargo sozio-politikoen barnean, luzeenik udalei buruz hitzgingo dut; izan ere, egunotako Estatu guziek lehen udalei, eskualdeei, edo probintzietan zegozkien ahalmen guziak hurrupa gogoz dabiltz. Jugoslabiarrak, aitzitik, udalei ahalik pizkortasun handiena eta hortarako ahalmen ahalik zabalena ematen lehiatu dira.

Udala, jugoslabiarrak gizartearen barnean, ez da osotasun bati menperatua datzekon zati bat, baizik eta, alderdi anitzetan, autonomu eta kreatzaile dena. Udalez gorendiko gailuek (Errepublika eta Federazioa) ez dute udal-ekintzen gain lege-kontrol huts bat besterik betetzen, inolako menpetasun edo jesticio-ideiarik ez duen kontrola beti ere.

Honela, Milanko Rasusinovic-ek, *La commune dans le système social et économique yougoslave* (Jugoslavian argitaratua) bere liburuaren 7. orrialdean, xuxen dio:

Udalaren mesedetan egin den herri-arazoaren deserdiratze hau gogoan hartuz gero, orobat, Errepublika sozialistek eta Federazioak ez dutela berenez udal mailan bete ezin daitekeen funtziorik, udala orduan Jugoslabiarrak gizarteko zelularik funtsezkoena bilakatzen zaigu, zelula autoadministratua.

Jugoslabiarrak udalak, munduko beste edozein herrialdeetako udalek daduzkaten baino ahalmen ugari-zabalagoak ditu; orobat, bera da bere finantziaketaren nagusi, hau da, berak biltzen du

zuzenki zenbait petxa, eta baditu bere diru-sarrera bereziak ere, beste botere sozio-ekonomikoekiko askatasun bat ematen diotenak, bere erizpide eta ekintzarako.

1955eko Irailaren hasieran indartu zen udal-sistimari buruzko lege berria. Berak honela definitzen du udala:

Langileen autojestioa oinarri duen eskualde antolamendu politikoa, eta biztanleen beren lurrekiko autojestioa oinarri duen komunitate sozio-politiko.

1963ko Kostitutuzioak udal guzientzat araudi bakar bat ezarri zuen, ordurartean bitan bananduak bait zeuden: hiri-udal eta baserri-udal. Kostitutuzio honek, 73. artikuluan honela dio:

Hiritarren udal baitako autojestioa da sistima sozio-politiko bakarraren zutabe politikoa.

Udal baten eginkizunak hauk dira nagusienik:

a) **Irakaskintza alorrean:** (Hau 1965 arte, lehen esplikatu dugun bezala)

Udalak eraikitzen ditu ikastola-aurreko edo ama-etxeak, lehen mailako ikastolak, ikastola profesionalak, goi mailako ikastolak (hauk sortzeko, Errepublikak gastuen % 50 pagatuz partehartzen du. Beste % 50 ikastola eraikitzen deneko udalak eta honen ingurukoek ordaintzen dute) eta adinekoen heziketarako etxeak. Hala-ber, berari dagokio ikastetxe hauen mantenu eta probetxua zaintzea eta begiratzea.

b) **Etxegintza alorrean**

Eskualde plana eta hirigintza dira etxe multzoen banaketaz, planifikatzeaz eta eraikitzeaz eta beharreko hirigintzaz arduratzen direnak. Eskualde plana Udal Batzarrean onartzen da, udal guzirikako balio duelarik. Hiri plan bat ere onartzen da, hiri barnean aplikagarri dena.

Gogoan hartzekoa da Jugoslabiarr Udalek etxegintzan duten garrantzi handia.

Badute udalek, urte oro, mila biztanleko zazpi bat bizitza eraiki beharra (esate batez, Euskal Herriko Udalek 14.000 etxe, edo gaurko Frantzia Estaduko Udalek 350.000, edo Espainia-koek 220.000 eraiki beharko lituzkete, modu haretan).

d) **Sozio-ekonomikoaren alorrean**

Bere luraldeetako ekintza ekonomikoak hobetu eta aurrera-mugitu; langileen eta hauen familien harat-honat mugimendu kontraemankor eta gogorra sahestearren, eta tokiko beharkizunen arabera, lantegi berriak sortu, daudenak atondu eta planifikatu, beraik udal-bankaren kopuruz baliaturik hazi eta garatu daitezen lagundu; ikertze-lan eta industria aurrerapenerako dirua eta gizonak ipini; laguntza tekniko egoki bat segurtatu; ongarrien, makinariaren, eta abarren erosketa eta laborantza produktuen salmenta atondu; hona udalaren ardurapekoak, sail honen barnean.

e) **Azpiestruturaren alorrean**

Kaminu eta kaleen egintza eta berritzea, etxe-multzoen elektrifikatzea, posta eta urrutizkin zerbitzuen hobetzea, herritar karruak antolatzea, (herrizerbitzuen prezioak ezarriaz), etab.

f) **Beste sailetan**

Beharrean dagoen orori laguntza eta babesa. Mediki-babesa eta osasun zerbitzuak, ur-partitzeak, bonbero zerbitzuak, estadio eta kirol-toki, antzoki, zine eta solas-tokien eraikuntza eta mantenua antolatzen ditu. Halaber, Bake Epailen eta Herri Hauzitegiaren gastuak berak ordaintzen ditu.

Dagokiona hobeki bete ahal dezan, Udalek badituzte beren diru-kopuru batzu, hiritarrendandik, lan-antolamenduengandik, etab. zuzenki biltzen dituztenak. Gainera, eta osagarri gisa, Udal batek industrialgintza eskasa edo beste zioak direla kausa bere eginbehar sozialak ezin dituenean bete, Errepublikak eta Federazioak laguntzen diote, zenbait kreditu eta eskaintzaren bidez.

Udalen zuzeneko diru-sarrerak hiru suma hauez osatzen dira, baitipat:

1) Arau federalek zehazki ezarritako edo seinalatutako dirutzak:

Diru-suma hauk, parte, Federazioari dihoazkio (guziaren % 18tik 20ra); parte, Errepublikari (% 30etik 40ra) eta bestea Udalari (% 40 eta 50ren artekoa). Bakoitzaren irabaziekiko eta nekazaritzarekiko zergek osatzen dute.

Langileen bakoitzaren irabaziekiko zerga lan-antolamenduek ordaintzen dute.

Diru-suma hauk Udal, Errepublika, eta Federazioaren artean banatzen dira, zeren eta merkantzien kosto osoari begiratuz gero, bere balioak jugoslaviar hiritar guziekin bait du zerikusirik, kontsumitzaile diren aldetik.

2) Udaleko biztanletzaren gain eragin berezia duten eta berak ezartzen dituen petxak.

Maila honetan sartzen dira:

a) Profesio liberalengatik, artesautza zerbitzuengatik eta autore eskubideengatik ordaintzen diren petxak.

b) Produktuen eta zerbitzuen fakturaketarekiko petxak, merkantzien gutikazko trafikorekiko (janari-gaiak salbu) petxak, janarierekiko petxak, etab.

d) Petxa, multa, etabarrek osatzen duten dirutza.

e) Beste organismoen parte hartzea. Esate batez, goi mailako ikastetxeak eta neurri handi batean ikastola profesionalak ere Udala baino komunitade zabalago baten beharrak asetzera irixten

direla gogoan harturik, Errepublikak eta hauzoko Udalek lagundu egiten diote formazio-toki horiek eraiki eta mantentzen.

Bigarren parte honetan ikusi ditugun petxa guzi hauk, 1965az gero, Udalak biltzen eta erabiltzen ditu osoro, lehenago Errepublikari eta Federazioari zihoakien zatia ere bai.

3) Udalen dirutza bereziak

Diru-kopuru hau inbertsioetarako, dela ekintza emankorretan, dela emankor ez direnetan, edo gizarte bizitzaren egoera hobetzeko daitezke eta behar dira erabili.

a) Bizitzaren dirutza herrikoia, bizitzaren arazoa erabakitzearen sortu zena. Kopuru hau Udaleko hiritar bakoitzak norbere irabazien heinean ordaintzen duen kontribuzioz osatzen da.

b) Udalaren dirutza. Gehienbatean, kopuru honetarako diru-sarrerak herriko lurrak erabiltzeagatik biltzen diren sariz osatzen dira. Sari hau etxe partikularretako maizterrek (hauk pagatzen duten kopurua oso tipia izan ohi da, alokatu duten etxearen balioa-rekiko), eta herrigelak alokatzen dituzten antolamendu ekonomikoek ordaintzen dituzte.

d) Banketxe herrikoia-aren kreditutza.

Udal bakoitzaren baitako autojestioa lan-antolamendu bate-naren antzekoa da funtsean.

Udal bakoitzetako biztanleak oro, hiritarrak oro daude egiazki interesatuak beren udala ongi eramaten eta ahalik egokien administrazioen.

Udal honen dirutzak, gehienbatean, langileengandik eta bere barnean dituen enpresengandik datoz, eta bestalde, udal honek egin ahal ditzan ekintza sozial, heziketazko, ekonomiko, etab. oro herri horretako langile guzietan, areago hiritar guzietan, axola zaie. Hau honela, jestioan, oinarrizko antolamendu sozio-politiko honen administrazioan, hiritar guzi horiek beharko dute partehartu.

Udaleko autojestioaren gailu nagusia Herri Biltzarrea da, bide batez ordezkargailu eta agintegailu delarik. Batzorde hau kontseilu biren, herri kontseilu eta langile kontseiluaren, konpromezu bat da. Lehenengoa udalean bizi diren hiritar guzietan, adinekoek noski, hautatzen dute. Bigarrena, aldiz, lau adarretariko (industria, heziketa, gizarte eta osasun zerbitzuak, zerbitzu publikoak) langile

delegatuek osatzen dute. Kontseilu hau, errealtatean, ez da langile kontseiluen eta jestioko komiteen jarraipen bat besterik.

Udalak Errepublikako Biltzarrerera eta Biltzarre Federalera bidaltzen ditu bere ordezkariak.

Bi urtez behin Biltzarre guzietako (udaleko, errerepublikako eta federalaren) kideetarik erdiak hautatuak ohi dira. Rotazio sistema honen helburua zera da: edonolako burokratitzea ahalik gehien murriztea eta beren herriko arazoen administrazioan ahalik pertsona gehienek partehartzea.

1963ko Jugoslavia-ko Kostitutuzioak honela zehazten du, 78. artikuluan, Biltzarreen (udaleko, errerepublikako eta federalaren) boterea:

Biltzarrea da, elkarte sozio-politikoaren eskubide-obligazioen alorrean, agintearen eta autojestio sozialaren gailurik ahaltsuena.

Biltzarreak erabaki eta erregelatzen ditu bizitza politiko, ekonomiko eta sozialari dagozkion gizarte arazoak, eta orobat, desarroilo sozialarekikoak; biltzarreak onartzen ditu araudiak, egitarau sozialak, presupostuak, eta lege-sistimaren ekintzetarik gehientsuenak; berak darama presupostuaren kontrola, politika eta ekintza-gailuen eta administrazio-gailuen kontrola, eta, finean, gizarte-kontrola.

79. artikulua diosku:

Biltzarrearen esku dago politika ekintza-gailuen hautatze-erasteak.

80. artikulua, berriz:

Kostitutuzioak, legeek eta arauak emandako ahalmenaren bertutez, Elkargo sozio-politikoaren Biltzarreak administrazio-gailuak sor ditzake.

1963ko Kostitutuzioarekin ados, Jugoslavia sei Errepublika sozialistek osatua dago: Bosnia-Herzegobina, Kroazia, Eslovenia, Mazedonia, Montenegro eta Serbia. Azkenengo Errepublika honek, berriz, bi eskualde autonomu ditu: Boibodina eta Kasobo, 1970az gero halaxe deituak.

Jugoslabiaren planifikazioa

Denboraren joanarekin, gizarteak ere nahastenagotzen doaz; orduan inoiz baino beharrezkoago, inoiz baino nahi eta nahiezkoago gertatzen da, eta gertatuko ere, egin beharrekoa egitea; inoiz baino beharrezkoago giza-ekintza eta posibletasun guziak bate-ratzea eta jomuga ugariago ezartzea, hurbil zein urrun, elkargoe-tariko bakoitzak ahalik gehien errespeta behar dituenak, giza-bi-zitzaren maila guziak aurrerabide egoki batean bultzatuak izan daitezten.

Giza-ekintzaren artean, jendearen arreta eta interesa gehienik bereganatzen dituen ekintza ekonomikoa da eta, honen barnean, zeresanik gehien sortzen duena, aldiz, nekazaritzarekiko eta indus-triarekiko planifikazioa. Honegatik eta Jugoslavia-ko indus-tri-planifikazio osoaz hitzegiteko lekuri ez dagoelako, puntu labur batzuk emango dira.

Jugoslavia-ko plangintzak bi garai igaro ditu, arras desber-dinak. Sozialista iraultzaren garaipen ondorengo memento haretan, herriaren ekonomi desarroiloak zuen egoera zela kausa, baina bai-tipat une haretan Rusiarekiko zuen menpetasun absolutua, erdirakoi antolaera aplikatu zen, hots, egun beste herrialde komunista orotan aplikatzen den antolaeraren antzekoa.

Stone Koveic-ek, *L'Autogestion en Yougoslavie* (1961ean Ju-goslavian argitaratua) bere liburuaren 26. orrialdean, honela kri-tikatzen du jugoslabiaren bizitzaren lehen aldi hau.

Gerla ondoko haretan sistema hau (sistema aginta-rista, alegia) soluziorik onena, soluzio bakarra bezala agertzen zen. Geroago, akats anitz ikusi zitzaion. Zera-rekin ohartu ginen lehenik, alegia, lanaren eta ondasun banaketaren kriterioak eta beraz alokairuen gora behe-rakoak, produzioaren prozesutik at zeuden batzuek eraba-kiak zirela. Eta langileak, orduan, faktore inportant eta langile beraren domeinuz haruzko potentzia bat bezala

begiratzten hasi ziren kriterio horiek erabakitzen zituzten Estadugailuak.

Halaber Dusan Bilondzic-ek, *La gestion sociale* (Jugoslabiari: 1965ean argitaratua) bere liburuaren 21. orrialdean, garai horretan burokraziak zeraman honako joera hau esplikatzen digu: alegia, gizartearen zerbitzari teoriko izatetik gizarte horren egiazko nagusi izatera iragateko joera, honela proletargoaren lekuan altxatuz eta hari bere benetako ahalmen guziak kenduz; honekin, berriro, kati-gutasuna eta menpegoa erakarriaz.

Aisa uler daiteke, beraz, jendeak produktu sozialaz (lanaz edo irabaziaz) jabetzeko duen joera, hortarako gizartean duten egoitzaz probetxatuz; burokrazian kausi daiteke berriro joera hau.

Garai honetan Jugoslabiak osotasun baten antzera jokatu zuen: ahalegin guzien probetxuak Estaduko diru-kutxetara zihoa-zen eta orobat galera guziak ere. Estaduak seinalatzen zituen produktuen prezio, kalitate, tamainia, etab. Produktu guzien banaketa zehatz-mehatz seinalatua zetorren. Langileek, hartara, ezin ezagutu zezaketen beren lanaren ondoren, eta gainera, beren lan-saria beti berdina zenez eta enpresaren atarramenduarekin zerikusirik ez zuenez gero, haien lanerako gogoia hutsa zen, zinez.

Jugoslabiarrak, orduan, esperientziak erakutsita, hontaz ohartu ziren: behin industria eta ekonomia desarroiloaren maila bate-tara ailegatuz gero, plangintza erdirakoiaren sistema hau arras erabiliezina zela, zeren eta proletargoaren eta herriaren interesekin eta, beraz, oren probetxuarekin erabateko kontraesanean bait zegoen.

1950az gero, lehen esan denez, autojestioa aplikatu gogoz hasi ziren eta bai berehala ikusi ere, bide horretan jarraitzeko, beren plangintzarekiko kontzeptuak zeharo aldatu beharrekoak zirela. Eta, arian-arian, haren jitea aldatzen joan ziren, gaurko plangintza

orientatzaile hontara iristeraino, beren autojestioan finkatutako gizartearekin hainbatez adosago den hontaraino.

Egun, aldiz, lanaren erizpideak, produktuen tamainia-koalitateak, soldatak, etab. erabakitzen dituztenak produzio-zikloaren barruan daude, langileak berak direnez gero.

Lehen ikusi dugu, baita, udaletan eta lan-antolamenduetan langileak berak direla produzio-egitaraua eta orobat elkargoaren ondasun material erabilgarrien banaketa erabakitzen dutenak.

Bereekiko, udalak, Errepublikak eta baitipat Federazioak egitarau banako guzien kordinatze bat egiten du, bide batez haiek elkargo sozio-politikoaren behar eta komenentzien arabera zuzenduaz. Organismo hauek, hortarako, beharrezko zaien giroan, borxada ekonomiko batzuk ere erabiltzen dituzte, esaterako: lehen-gaien eta beste oinarriko produktuen prezio-politika, kanpo merkatalgoaren gain eragitea (inportazio batzuei laguntza emanaz, edo ukatuz, zenbait inportazio petxaz zamatzuz), interes motak aldatzea, etab. etab.

Neurri guzi hauek garrantzizko eragina dute Estaduko bizitza ekonomikoaren gain, anitzek besterik uste badu ere, alegia, neurri hauk ez direla zurigarri batzu baino eta benetako plangintza eta egiazko nagusigo botxatzaile bat falta dela.

Jugoslabiarrak pentsatzen dutena, ordea, zera da: hiritarrek giza-ekintzaren sail orotako jestio eta erabakietan ahalik zuzenen eta ahalik librekien parte hartzea eskatzen duela sozialismoak.

Argi dago, hala ere, oraino bide luzea geratzen zaiela jomuga horretaraino iristeko, bozketa sistiman eta komunista ligaren eginkizunean baitipat. Baina egia da, baita, benetako autojestiorako bidea, egiazko federalismorako bidea, franko luzea dela.

Euskeratzaile: joxe arregi

ISRAELGO ELKARTEAK

beñat laxague

Israelgo nekazaritzak balio du hain segur ezagutua izan dadin, zeren irakaspen onak hartu bait daitezke gure lan eta bizi molde-
rentzat. Aurkitzen dira molde batzu:

—Hemen gaindi bezalakoak, familia batek etxalde bat ibiltzen, berak erositik eta salduz merkatuetan: 220.000 jende bizi dira gisa hortan.

—Kibutzak: Orain 230 bat badira, 60-2.000 jendekin ba-
koitza. Denetarat 84.000 jende. Populuaren % 5. Israelgo neka-
zaritzaren emaitzen % 28 kibutzetarik heldu da. Zenbait kibutzek
badu bestalde industria (Israelgo industriaren % 6), hotel eta
esku lan ttipi.

—Moshav-ak. Badira 346 moshav, 100-1.000 jendekin. Orai
122.000 jende daramate bizi hori.

—Moshav shitufi: 21 bat, 60-300 jendekin. Orotarat 5.000
jende.

I. KIBUTZAK

Kibutzan, haberim, kibutzkideak elkartasunean lanean ari dira eta hein bat elkartasunean bizi.

Kibutza herri bat da, laborantzako lurrez inguratua, 150-3.000 ektara, errendan hartuak 49 urterentzat. Emazte eta gizonek lan egiten dute, egunean 7-9 bat oren, buruzagiak manatu lekuan, hala nola pentzetan, sagardietan, behi eta oilategietan, kozinan, lisan ,haur zaingoan...

Elkarteak edo kibutzak ematen du lana eta tresna eta ere bizitegia, jana, bestimenta eta ahusagailuak. Denak dirurik gabe. Erran honek argitaratzen du, han sentitzen den izpiritua: "bakoi-tzak bere ahalein arabera, eta beharren arabera bakoitzari". Urtearen buruan, kibutzak ematen die menbroei diru puska bat (batean segurik 80 dolar), sakelako sos gisa, bakoitzaren nahi berezientzat.

Nola hartzen dira erabakiak? Aste guziz bada bilkura nagusi bat, menbro guzietan. Kibutzaleek hautatzen dute, urteoro, bozez, multzo bat bilkura nagusiak hartu deliberoen obretan emateko, hauek dira: idazkaria, moltseroa, nekazaritzaren buruzagia, lan partikatzailea, lan sozialen buruzagia. Badira bestalde komisione batzuek hautatuak arta hartzeko nekazaritzako problemez, haurren altxatzeaz, ahusagailuez, politikaz eta bertze.

Ikus dezagun zer bizi daramaten familiek. Menbroek, denek, herriaren erdian den jan tokian hartzen dituzte beren otordu guziak: goizetakoa, askaltze, bazkaltze... Zerbitzariak eta baxera ikuz-taleak ardura kanbiarazten ditu lanaren partikatzaileak, eta berdin izan daiteke idazkaria eta beste, nor nahiren aldi, has ahalgerik gabe.

Arropak xurituak eta josiak dira kibutzan.

Haurrak bizi dira haur etxe batzuetan andanañoka, adina arau, gauaz eta egunaz arratsaldeko 3rak arteino. Tenore hortan, gurasoak heldu zaizkie bila zenbait oren goxoren pasatzeko

elkarrekin. Emazte batzuek beren lana dute haurrez arta hartzea eta hortarako eginak dituzte egon aldi zenbait kibutzetako zentro berezi batzuetan. Bizimolde horrek irauten du mende erdi bat hontan eta erran behar da haurrek gurasoei dadukaten atxikimendu eta amodioa ez dela beste haurrena baino ttipiagoa. Halere pondu hau biziki minberaia atzematen du asko jendek.

Kibutzetako menbroak bizi dira etxe ttipi edo apartamendu batzuetan. Badute hor ganbara eta ahusa sala bat, bekan gehiago. Denbora franko badute lanetik landa, jateko eta xuriketak ez egi-terik, haurrak ere bestalde anitz artatiak, beraz engai daitezke deplauki kultura, politika eta kibutzetako biltzarretan.

Kibutza, elkarte sozialista bat bezala ageri zaigu. Bizi da bere lanetik, laguntzarik gabe. Saltzen du Israelgo merkatuetan edo atzerrian, kibutzen artean apailatu kooperatiben bitartez. Beraz, barnean sozialista da, bainan kanpoari buruz, kapitalista, bere harremanetan.

URSSeko kolkotzetan ez da aurkitzen izpiritu bera. Han lan gehiago eta alokairua handiago unkitzen da, eta bestalde, menbroek badute lur poxi bat beren nahi berezien arabera lantzeko.

II. MOSHAV-AK

Hauk beste elkarte mota batzu dira, Israelen sortu eta azkartu direnak. Herri hautan aurki daitezke 120-150 familia.

Moshavak arrendatzen du lurra gobernuari, gero honek berriz arrendatzen moshaveko familiei. Zatikatzen du familia ongi bizitzeko gisan, familia gotorrari gehiago eskainiz. Bakoitzak erabil ditzake bere lurra librokori berak nahi duen bezala, nahiz planifikazione zerbait baden. Ontsalaz mutilik gabe landu behar ditu bere eremu guziak.

Gero, haatik, sal-erosketak, tresna, ureztatze, sos mailegatze,

eskola eta ahusa lekuak moshavaren kontu dira, kooperatiba baten bidez. Herri hortan badira, beraz, laborariak eta kooperatibako langileak, 6-8 aste guziz elkarretaratzen dira, denen problemen ikertzeko.

III. MOSHAV XITUFI

Hau eman daiteke kibutz eta moshavaren arteko. Hemen, kibutzean bezala, menbroak elkarrekin ari dira lanean, erabakiak elkarrekin hartuz. Tresnak, kabalak, etxeak denenak dira.

Molde hontan, haatik, menbroak beren familietarat biltzen dira jateko, etzateko, beren haurrekin. Gizonak ari dira lanean 8-10 oren egunean; emazteak, denbora erdi bakarrik. Familia bakoitzak unkitzen du elkartearen ganik hilabete guziz diruketa bat, familiaren gotortasuna arau.

Herrian berean bada sal toki bat familiek behar dituztenekin.

Hemen ez dut xehetasun anitzik ematen ahal, zeren bizi molde bakoitzak merezi bait luke errotik ikastea. Badakigu teoria guzieren artean, zein baliosa litzakeen zehetasun oro.

HERRIKO BATASUNA

Orai duela bi urte agertarazi nuen liburuño hori, Herriko Batasunaren izenean. Nahi nuen kibutzetako izpiritua ezagutarazi Euskal Herrian, zerbait sort dadin han edo hemen. Zenbait irakurlek hitz bat igorri zidan bere iritzian jakinarazteko. Euskalduna berekoa dela zioten batzuek, bestek holako batasun zerbait behar genukeela egin euskal ekonomia eta kulturaren begiratzeko.

Gure inguruan bada jadanik elkartasun mota anitz. Lehen elkarteak, komentuak, serora eta fraileekin; haatik hauk ez dira

familientzat. Munduan gaindik bada elkarte asko, historiak erakusten duen bezala (eta oraingo hippysmoa bera ez ote elkarrekin bizi berezi bat?). Fraitzian konta daitezke 30 bat elkarte. *Communauté de l'Arche* delakoak 100 membro baditu. Elektrikarik ez eta janarian haragirik gabe, daramate beren bizia, urrats guziak baxean aintzinetik emanik. Bada beste multzo ttipi bat, 8 membro, nekazaritzatik bizi dena, mendian leku has batean. Zenbait elkarte ba omen da elkarrekin drogatzeke, *yoga* egiteko edo artistiko bizi baten iragaiteko asmatua. Bakoitzak bere iritzia baditu bakarrik edo elkartasunean, eta bistan da zenbait elkarte bitxia agertzen zaigula.

Kibutzetako bizimoldea ikertzean, hona larri-larri nola iduritzen zaigun:

- familien elkarte bat;
- multzo demokratikoa; multzoak hautatzen ditu bere aintzindariak eta gero kontrolatzen;
- sozialismo bat biziki aintzinatua;
- kultura azkarra, irakiten ari;
- etsai eta nekezia guziei kontra ihardokitzeko elkar-tesun bat.

Sentimendu horiek zenbateraino sentitzen ote ditugu gure baitan?

Betidanik egin da lan anitz Euskal Herrian elkartasunean: mahats haitzurtze eta biltze, behi eta ardi zaintze portuetan; tresna asko bada elkarrekin erosirik ogi jortzeko, ongari botatzeko... Ipar aldean, GAEC deitu elkarteak sortzen dira han hemenka, halere guti zaizkigu Nafarroako elkarteen aldean. Nola ez aipa Zuberu gaineko jokabidea, tokiko sosarekin, tokian lantegi baten

xutik ematea; zorigaitzez hori lehen entsegua da gure alderdian eta agian bere helburuak joko ditu.

Euskaldunak elkarrekin kantuz elizan eta ostatuan, besta eta ferietan parte hartzen dutelarik, zertarako eta nork sartarazi digu gure buruan, gu euskaldunok bakoitza gerekorra garela? Hori gure kultura kolpatua izan delako marka eta alienazionea barna sartua gu baitan.

Euskaldun populua, menderen mendetan, populu demokratiko bat izan da. Etxeko jaunak edo etxeko andreak elkarretaritzen ziren kartielen, kapitalean. Hontan hautatzen zuten membro bat, abadea, biltzarretarat joateko. Aurkitzen ziren biltzarreak hala nola Maulen, Irisarrin, Ronkal, Ustaritzen... Biltzarre hortako nagusia, zainkia, bazihoan Iruinerat erregeren bozkatzerat, zeren hemen erregeak ere bozkatuak bait ziren. Beste lekuetan, aberatsek apezpikuekin zuten gobernatzen, populua azpiko atxikiz.

Orai oraino badira Euskal Herrian lur komunak eta baleakoak, hauk elkartearnak dira. Hobeki baliatuak ote dira? Ez beti zorixarrez.

Gure nortasuna, kultura eta (ipar aldean) ekonomiaren begiratzeko, badugu nekezia franço. Elkartasunean, multzokako bizi-tasuna baliatuz dugu ihardukiko. Kibutzako bizia behar litzake Israelen den bezala hartu, hori nork berak juja dezake bere gogoaren arabera. Bainan izan dadin ezagutua eta asmaketen iturri, honela ditugu guretzat atzemanen behar ditugun elkartasun moldeak.

QUEBEC-EKO KOPERATIBAK

c. harlouchet

Ez gara, inolaz, Ameriketan —kapitalismoaren jauretxe de-
nean— koperatiba mugimendu bortitz bat kausi gogo. Prejuzgo
hau, zinez, desegina dateke, zeren eta Quebec-en inguruetan ez
bait da koperatiba mugimendu handirik.

Bi arrazoin dira, baitipat, Quebec-eko mugimendu hau es-
plikatzeko dutenak. Canada berriki arte ingelesez maizterlurra
izanik, beronen eragina sofritu du, ideien alorrean bereziki; eta
Inglaterrak sortutako koperatiba mugimenduak, nahi eta nahi ez,
bere oihartzuna ukanen zuen Canadian. Baina gizon bat izan zen
baitipat mugimendu honen sortarazle, eta horra zergatik mug-
imendu hau Quebec-en beste edonon baino gehiago desarroilatu
den; gizon hau *Alphonse Desjardins* dugu. Bera izan zen 1900az
gero Quebec-eko koperatiba-ekintzen teorigile eta eragile, batera.

Quebec-eko koperatiba mugimendua berezia da, ikuspegi
hainitzetatik. Leheniko koperatibak aurrezki eta kreditu koperati-
bak izan ziren. Eta oraindik duela guti antolatu dira produkzio-
koperatiba bezala, baserritargoan baitipat, eta kontsumo-kope-
ratiba bezala. Aurrezki eta kreditu koperatibak, halaber, bizitza-
segurantzazko eta istripu-segurantzazko gizarte batzu sortarazi

ditu. Eta oraindik orain, berriz, inbersiorako elkarte bat. Quebec-tar kooperatiba mugimenduak formaziozko kemen egoera ezin hobea ezarri du herrialde guzian, elkargorik aldenduenetan baita.

Hasiera hasieratik dizdiratu zuen mugimenduak Ipar Amerika guzian, Estatu Batuetako Lehendakariaren eskariaz, Alphonse Desjardins deitu zuten bere mugimendua Estatu Batuetako nekazarigoetan funda zezan. Alphonse Desjardins-ek sorturiko iz-tituzioei KUTXA HERRIKOIAK deritzaie Quebec-en, eta KRE-DITU BATUA, aldiz, ingeles Canadian eta Estatu Batuetan.

Artikulu hontan datorkeenak hiru parte ditu, elkarrekiko de-pendentziarik guti dutenak:

- 1) Quebec-eko kooperatiba mugimenduaren kondaira.
- 2) Quebec-eko kooperatiba sailaren deskribamena.
- 3) Kideek nola dakusaten beren idazkiak zehar mu-gimenduaren egoera eta etorkizuna.

1. QUEBEC-EKO KOPERATIBA MUGIMENDUAREN KONDAIRA

Elkarkidegoan edo mutualidadean hasi zen kooperatiba mugimendua 1850 eta 1900 bitartean. Tarte hontan elkarkidego eia gizarte batu hainitz sortu zuen ekonomikoki ergel zen zenbait taldek, erreketak edo hondamendiaren arriskuetatik defendatzea helburu zuela.

Azken gizaldi-burua aldakuntza aldi bat izan zen Quebec-en: antzina famili-ekonomi bat eta finantza beharkizunik gabea izan zena, arian-arian industriaren eta merkatalgoaren ekonomia bilakatzen joan zen, bere diru-beharkizunez berezten zena. Banku-sistemak gordetzen zuen, bai, aurrezki handia, eta behar zituzten prestamenak egiten zizkien handizkiei, baina guti edo batez arduratzen zen aurrezki tipiaz, gutiegi kezkatzen langile klasearen kre-

ditu-beharkizunez. Alphonse Desjardins-ek (1854-1920) idazkitxo bat egin zuen 1912an Herri-Kutxei buruz; hor adiarazten digu bera Kutxa Herrikoia sortzera bultzaratu duen zioa:

Orain arte langileek ez dute ukan, beren kreditu-beharra bete ahal zezaten, asteoroko interesdun prestamena beste jokabiderik, ezkutuko lukurreruarena, menpean jartzen zaion gizagaixoari bere zatia harrapatu gabe inoiz geldituko ez denaren prestamena beste biderik. Bada hor arras uxatu beharreko gaitz sozial eta ekonomikorik; eta zuzengailu bakarra, bide egoki bakarra, hau litzake: organismo sendo eta zalu baten bidez, **herriaren aurrekia herriaren zerbitzuan** ipintzea.

Idea hau orduko europear kreditu-sistemak aztertuz sortu zitzaion, baina haren asmakizuna sistema haiek ipar-ameriketar beharren arabera egokitzean datza.

1900ean Lévis-en, Quebec-en hauzoan, antolatu zuen Alphonse Desjardins-ek bere lehenengo aurrezki eta kreditu kooperatiba. Kutxa Herrikoia deitu zuen, eta egun Ipar Amerika guzian zabaldu den mugimenduaren iturri izan zen. 1920ra arte Quebec-eko parrokiez baliatu zen bere sistema ugaltzeko eta bere kide guziena kooperatiba-printzipioez eta, jakina, erresponsapen-printzipioez hezitzeko. Parroki Kutxa hauk, naturalki, Eskualde Elkargotan birrelkartu ziren; hauek eliz-barruti guzia hartzen zuten, eta heziera eta finantza egitekoa zen berena. 1929ko krisi ekonomikoak Elkargo hauk desegitera eta Quebec-eko Kutxa Herrikoien Federazioa sortzera behartu zituen. Bere heriotza aurretik (1920) Alphonse Desjardins-ek prestatua zedukan eta bozkarazia kooperatiba erakunde zuzendatzerako lehen legea.

40 urteak oparotasun ekonomiko handikoak izan ziren Ameriketan; urte horietan Kutxa Herrikoiek desarroilo handia ukan bait zuten, eta antzina prestamen pretsonalezko ziren zerbitzuetatik prestamen baiturazko edo hipotekarioetara (bizitegi presta-

menetara bereziki) iragan bait ziren. Urte horietan sortu ziren, orobat, Kutxa Herrikoien babeseko seguru-elkarte batzu.

1900eko urteotan osatu ziren, era berean, nekazari kooperatibat; nekazariak konturatzen bait ziren, gero eta gehiago, antolabide horrek beren egintzaren eta salmentaren baldintzak hobegotzeko zukeen garrantziaz.

Oso beranduago agertu ziren kooperatibak arrantzaren, kontsumoaren, bizitegiaren eta beste zerbitzu batzuen sailetan. Artikulu honen bigarren partean ikus daiteke iztituzio guzcion zehaztapen zabal samar bat. Artikuluaren hirugarren partean, aldiz, Quebec-eko kooperatiba mugimenduaren egungo arazoak eta jarraibideak aztertuko ditugu. Hargatik, aipa dezagun hemen kooperatzaileetariko zuhurrenak 40ko urtez gero oharturik zeudela zerearekin: alegia, bi oztopo nagusi dituela oinarri sendo eta efikaz batetan funtsaturiko kooperagintzaren desarroiloak: kooperatiba dotrinaren batasun eta zehaztasun gabezia eta ekintza mailan bateratze egokirik eza. Arazo hauei soluzioa aurkitu nahiez sortu zen, hain zuzen, eta Laval Unibertsidadeko zientzia sozialen fakultadearen gidaripean, Quebec-eko Kooperagintza Kontseilua. Kontseilu hau kooperatiben eta berauek Boterearen aurrerako zuten harreman-talde baten arteko elkarrizketa-leku zuten.

2. QUEBEC-EKO KOPERATIBA SAILAREN DESKRIBAMENA

Eman dezaiegun begirada bat, nahiz eta arina, Quebec-eko kooperatibei. Lana errazteko, hiru taldetan banatuko ditugu: A) Finantza iztituzioen saila, B) Produkzio saila, C) Kontsumo saila.

Kooperatiba batzu ezin sar daitezke banaketa hontan; hauk dira:

—Bizitegi-kooperatibak: azken 25 urteotan 9.500 etxe

eraiki dituzte, Gobernuak bizitegi sozialaren finantzamendua bere kontu hartu aurretik.

—Ikasle-koperatibak: hauk aurrezki-kutxakoak edota eskolagaien erosketa koperatibakoak izan ohi dira.

—Desjardins Koperatiba Erakundea: heziera helburu duen elkarte koperatibu bat da, helburu bezala Quebec-eko koperatibetako lankideen heziketa koperatibazko eta tekniko eta, eskuarki, adinekoen heziketa hartu du.

A) **Finantza erakundeen saila**

1) *Aurrezki eta kreditu kutxak*

Quebec-eko koperatiba mugimenduaren egikunderik harrigarrienak bide dira, jarraiko zifrek erakutsiko digutenez:

—1.732 kutxa eskualde federakuntza ugari osatuz elkarturik daude, eta hauen zerbitzuak 2.600.000 laguni, jendetzaren % 45i, iristen zaizkio.

—Kutxa hauen diru-suma 2.200.000.000 dolarretara iristen zen kasik 1969-9-30ean.

2) *Seguruko koperatiba-elkarteak*

Gizarte hau motabanatzea zilegi egiten duen irizpide nagusia zera da: kontrol demokratikoa. Kontrol hau segurukideek edo beren ordezkariak egiten bait dute, eta koperatiba mugimenduaren ordezkariak, elkargoa mugimendu horren luzamen bat delarik. Honela, 5 bizitza-seguruko elkargo daude, 240 miloe dolarreko diru-suma batez 5 mila miloe dolarrez goiko seguru bat sostengatzen dutenak; 2 seguru jeneraleko elkargo (erreketak, ebasketak,

etab.), urteko hazibide txit interesgarria dutenak; 223 erreketak mutualidade, hauetarik 157 federakuntza batean bilduak daude eta helburu nagusia beren babeseko mutualidadeak birseguratzea da; federazioan dirauten seguruen diru-suma osoa 600 miloe dolarrez gaindikoa da.

3) *Fidantza-elkartek*

Gutikazko merkatalgo tradizionalen supermekatua den hori bera da fidantza-elkartea beste finantza erakundeetan: han aurki daitezke hainitz zerbitzu bai finantzazko bai fidantzazko (hots, konfidantzan oinarritutako), ondare araudi, bahitura prestamen, balio erabilkortegi, epezkako bahitegi, balio erabilkorrekiko inbertsio, saleroste eta jabego-aldaketa, etab. Quebec-eko fidantza-elkartek 215 miloe dolar baino gehiago administratu ditu 1969an ondasun eta balioetan.

Deskribamen honek adiarazten digu antolatu diren kooperatiben ugaritasun ezberdina, baina ez digu mugimendu horren indarra argiro adiarazten. Kutxa Herrikoiek biltzen dute aurrezki personalaren % 25, Quebec-eko finantza-erakundeetan gordetzen dena: honek bi mila miloe dolar baino gehiagoko kapital multzoa osatzen du.

Kapital hauk ez dira produzikaitz gelditzen. Diru-sumaren % 60 kideei ematen zaie prestamenez; prestamen hauk kontsumoko kreditura zuzendu ohi dira batez ere (pontu hontara itzuliko gara berriro), baina baita bahitura-prestamentara ere —horrela finantziatzen da Quebec-eko hamar bizitegi berritarik bat—. Gainera Kutxek suma inportanteak aurreratzen dizkiete herri-organismo edo kooperatiba batzuei; udalen obligantzetarik % 36, ikastolabatzordeen obligantzetarik % 50, elektrizidade naziotartua elkar-tearen eta Gobernuaren obligantzetatik parte handi bat Kutxek suskribatu dituzte 1967an.

B) Produkzio saila

1) Nekazari-koperatibak

Quebec-eko nekazari-koperatiben egitekoa lankideen produktak komerziagarri egitea da, haiek premiazko tresna profesional oroz hornituz. Herrialdeko 45.000 langile 300 koperatiben baitan daude, eta 300 horietatik 200 Koperatiba Federatuari atxikiak. Nekazari-produktuetatik % 50 baino gehiago koperatibek komertzial egiten dute, eta orobat produkzioan behar diren tresna eta zerbitzuetatik % 33 baino gehiago eskuratzen. Aipa ditzagun: *Granby-ko Nekazari-Koperatiba (Coopérative Agricole de Granby)*, 8.000 lankide dituena eta Canada guziko esne-elaboragintzaren enpresarik handiena nabariki, eta *Quebec-eko Astigar-Azukreakrean Egileak (Les Producteurs de Sucre d'Erables du Quebec)*. 5.000 langile hartzen ditu, hau da, guzietatik % 40, eta guziaren % 55 produzitzen du. Etsenplu bi hauk aski dirateke nekazari-koperatibek duten joera adiarazteko: gero eta bortitzagoak daitezten, egintza-elkargoak osatzekoa alegia; hau lehendik dauden koperatiben federagintzaz lortzen da.

2) Arrantzale-koperatibak

Quebec-eko itxasertzaldeak arraitan naroak dira; hauetan zehar ibili ziren euskaldunak antzina, 16. eta 17. mendeetan. Arrantza garrantzi handiko ekintza ekonomikoa da eta Quebec-ek bere produkzioaren parte handi bat kanpora saltzen du. *Quebec-eko Arrantzale Batuak (Pêcheurs unis du Quebec)* federazioaren eta honen babeseko koperatiben produkzioa guziaren % 60koa da guti gora-behera. Hala ere, bada sail hontan egitura eta tresnagoaren modernigintzari buruz problemarik eta azken urteotan kapitalista

moldeko gizarte batzuek, fabrika-itsasontzi handiz hornituak, kooperatibei kompetentzia handia egiten diote.

3) *Basa-kooperatibak*

Nahiz eta basoa Quebec-eko aberastasun neurri gabe bat izan, basa-kooperatibek, ehunkada batzuek, ez dute ateratzen aberastasun honetatik apur bat baino. Gehienek, baso-botatzen eta karriatzen, paper- nahiz mueble-lantegi handientzat dihardute.

D) *Kontsumo scila*

Oinarrian salmenta xehezko 206 kooperatiba, CO-OP almazen eta beste aurkitzen dira. CO-OP almazen-federakuntza baten zeregina bere kideen erosketa-leku nagusia izatea da, haiei laguntza tekniko eta erresponsaduna eskainiaz, eta orain gainera federakuntza hau supermerkatuak eraiki gogoz dabil, hiri handietan beste supermerkatuen kompetentzia gairi dezaketenak. Birreratze hau, *Inbersioko Elkargo Kooperatiba-ri (Association Coopérative d'Investissement)* esker izan da, honek hornitzen bait ditu bere kideak eraikuntza berrietarako nahiz lanabesak zaharberritzeko behar dituzten kapitalez, eta orobat saltoki kooperatiben sare bat sortu nahi luke.

Quebec-eko Emakume Elkargo Kooperatibua (*Assotiation Coopérative Féminine*) eta Kontsumitzailearen Informazio eta Babesgoaren Erakundea (*Institut de Protection et d'Information du Consommateur*) mugimendu kooperatibutik sortu direlarik, kontsumitzailearen heziketaz eta babesgoaz arduratzen diren bi antolamendu ditugu.

Bizitza ekonomikoaren alderdi garrantzitsu hau, berriki lortu dituen ondorio onak arren, kanadar, ingelestar edo amerikar ko-

merziatzaileek eta kapitalek nabariki domeinatua izan dute. Hala, arazo guzien % 5 darama soilik koperatibak, eta tradiziozko komertzio gutikazko edo xeheak, aldiz, % 55, % 40 supermerkatu-kate elkarteak.

3. QUEBEC-EKO KOPERATIBA MUGIMENDUAREN GAURKO ARAZOAK ETA ETORKIZUNA

Labur dezagun Quebec-eko koperatiba mugimenduaren egoera: produkzio sailean kasik ez dago egon ere (nekazari koperatibak eta arrantza koperatibak salbu), eta kontsumo sailean oso guti desarroilatu delarik, pizkortasun bestelakoa daduka, ordea, mugimendu horrek finantza-zerbitzu sailean.

Nola esplikatzen digute egoera hau lankideek eta obserbatzaileek? Lehen esplikapen bat naturalki datorkiguna da: koperatibak sortu direneko giroa azaltzen digute. Giro hau kanadar-frantses katoliko giroa da eta bereztasun hauk ditu: lur laborantzan eta arrantzan finkatutako ekonomia, ekintza gisa honi aurrea emango dion pentsamoldea, edota ekinbide "nobleak" (teologia, midizina, deretxoa) maiteago dituen ideologia. Ondoan, kanadar-ingeles giroa aurkitzen da, gehienbatean komertziora eta gero industria handi modernura jo duena; giro honek menperatu du politikoki eta baitipat ekonomikoki kanadar-frantses giroa. Lehen aldi batetan, beraz, koperatiba mugimenduaren eginkizuna lehendik zegoena eta psikologikoki bere baitan zedukana garatzea, desarroilatzea, izan da.

Ikuspegi hontatik, Kutxa Herrikoiak idorokizun txit handi bat izan dira. Ez dute soilki herrialde guziko banketxe gordairuen % 25 biltzea lortu, baizik eta areago denpora luze batean interes neurri jautsi batez eta beti ere diru-sumarekiko proportziozko in-

teres batez prestamen pertsonalak egin dituzten banku bakarrak izan dira haiek. Hau bere jestio erari zor dio (administratzaile guziak gizabide oneko direnez gero) eta banketxe klasikoei diru gutidun bezerogoa axola ez zitzaieneko gertakariari. Gaur, ordea, dena aldatu da: banketxeak datozkien zerbitzuan jarri dira, hontan Kutxa Herrikoiak aurrelari izan direlarik, eta inflazio-bolara gero eta zabalagoak interes neurrien gerla bat dakar, hontan koperatibak bortizki konpetituak direlarik. Halaber, gaur erreditutasunean, jakintsuen azterpenetan eta marketing-ean funtsatutako garai batean bizi gara; garai hontan, azkenik, beharrezko izanen da ordenatzaileez baliatzea eta beroiek domeinatzea. Atzo koperatiben indarra ziren erakunde demokratikoak, haien autonomia, astunegiak dirudite gaur, aldaketa biziko garai hontan.

Ezin baieztatu dezakegu, beraz, gaurko arrakastak problemarik gabeko etorkizun bat garantiatzen duenik, baina badute Kutxek posibletasunik hainitz eta azter ditzagun orain:

- 1) Banketxeak, aurrerantzean, gero eta zerbitzu gehiago egitera deituak daude klienteei; eta hauk, trukez, haiengan konfidantza handia ipintzera behartuak; guzien partehartze koperatibua da, hemen, Kutxa Herrikoien abagunerik onena.
- 2) Informaketa, bilketa eta datuen erabilera elektronikoa, Kutxak erabiltzen hasi diren teknikak, horra Kutxei beren kideen beharrei are lasterrago erantzuten lagun dezaieketenak.
- 3) Kutxak Quebec-eko inbertitzaile inportanteenetakoak dira jadanik, gero eta areago bere zorte ekonomiko eta politikoa bere esku hartu nahi duen gizarte batetan; eta behin partehartze industrial eta komertzialak lortuez gero (eta aurki lortu ahal ukanen dituzte), beren utilidadea herriarena izanen

da, nolabait esateko, eta herri-botereen laguntza ukanen dute.

Kutxei dagokienez, interesa ongi ulertzea aski dute beren desarrolloa segurtatzeko, baina beste alorretan ez da ikusten, ideologi-eragin batez eta batasunera hotsegite batez ezik, nola irits daitezkeen koperatibak premiazko zeregin bat edukitzera; horra kontsumo sailean aztertuko duguna.

Gaurko hiru koperatiba gisa dago Quebec-eko kontsumatzaileen zerbitzuan:

- 1) Koperatiba klasiko gisakoak, populu guzian saldu baina irabaziak beren kideen artean soilik banatzen dituztenak.
- 2) Ordinketa zuzeneko saltokiak: beren kideei soilik saltzen dizkiete merkantziak handizkako prezioan, salketaren gastuak aste oroko kuota jaso samar batez betetzen direlarik.
- 3) Hedadura handiko saltokiak: kideei saltzen diete soilik eta beren salmenta gastuak eta inbersioak ordaintzeko salmentari kenduriko huskeria batez baliatzen dira eta ez dute inolako irabazirik banatzen.

Lehenengo koperatiba erak, gutikazko komertzio klasikoak berdin, ezin dezaioke euts supermerkatuen indar komertzialari; honek erosleei prezio hobeak eskaini ahal dizkie eta irabazi handiak lortu bide batez. Bigarrenengo era aski trabatsua da baina ondorio onak eman ditzake elkargo tipietan. Hirugarrenengoak dirudi, zinez, koperatiba mugimenduaren egiazko bidea. Lehenengo supermerkatu koperatibua Montreal-en irekia izan da 1969an, bigarrenengo 1972an irekia izanen da, eta herrialdea zehar proiektatuak daude beste batzu.

Azter ditzagun supermerkatu koperatibu hauen bereztasunak:

ezin daitezke hara koperatibakideak besterik ailega, baina aisia da guziz kide egiteko behar den baldintza soziala eta hortarako egiten den diru-ipinketak ez du koperatibako kapitalaren parte tipi bat baino osatzen. Supermerkatu hauk ezin daitezke eraiki beste erakunde koperatibuek hasierako diru-ipinketa bat egin ezean, eta hauk autofinantza daitezkeenean ezik. Oraingoan, neurri tipi batetan, supermerkatu kapitalistei konpetentzia serio bat egitera iritsi dira, baina beren garrantzia hazten diharduela gate handiak mehatxatzeraino iritsiko balira, hauk ez lirake menperatzen utziko kontra gogorra egin gabe. Honela sortuko bide litzakeen borroka beren etsaiarengan gaitzesten dituen bideak erabiltzera bultza litzake koperatibak: publizidade gehiegia, prezio txit jausiak eroslea bereganatzeko den zenbait gairen gain, eta hor galtzen dena jasotzearen beste zenbait gaiekiko irabazi lodiak, etab. Arrisku hau uxatzeko, beharrezko izanen zaie koperatibei, erosleria bereganatzeko, gateek ezartzen dieten esplotazio kapitalista ezagutaraztea. Koperatibek ez dezakete, beraz, ideologia ahantz.

Herstusun larria sail honena, zeinek eramanen du Quebec-en kontsumitzen diren produktu guzien alorra? Herriak berak bere koperatibak direla bide ala kapitalistek —gehienbat arrotzak—, Quebec-eko aurrerakuntzaz deus edo oso guti arduratzen direnak? Koperatiba mugimendua aurrera doa astiroki, oraino ozta-ozta iratzarri ere egin da elkarrarteko egitarauetara, baina gizon ospedun franko badu bere baitan.

Quebec-eko koperatiba mugimendua seriooki eta gertutik zaindu beharrean aurkitzen da kontsumo saila, bere etorkizunari dagokionez; finantza sailean, aldiz, eredu bat da, beste inon kasik berdindua izan ez den eredu. Aitzitik, ez du oraino bere desarroiloa sumatu industriazko produkzioaren sailean, eta hemen bai esan daitekeela Quebec-eko giroa azaltzen duela zintzoki.

koperatiba
euskal herrian

KOPERATIBAK ETA NAFARROAKO NEKAZALGOA

ibarrekoa

Nafarroako UTEKO (*Unión Territorial de Cooperativas del Campo*) erakundearen azken biltzar orokorrean, UTECOren Jefe edo Presidenta (gaurko belarrietan leunago jotzen duena) den Uranga jaunak datozen hitzak erran zituen (erdaraz naski):

Biltzarkide jaunak: Bi hitz Kardinal jaunaren ezin etorria adiarazteko, Madrilera, Apezpikuen Batzordearen biltzar batera joan behar zuela esan bait zigun. Halaber, Gobernadore jaunaren ez etortzea zuriztatzeke, Madrilen operatu dute eta horregatik ezin heldu izan da biltzar hontara.

Behar beharrezko oharpen hauek egin eta gero, goazen *Unión Territorial*-aren eserzizioa aztertzer, *Unión Territorial*-aren beraren egintzez hitz egitera. Egintza hauek egiazki onuragarriak, onak izan dira ihaz. Era hontan pozez beterik gaude, arras pozik. Egia erraiteko, ezbehar batzu ere ukan ditugu, kezka sakon eta sarkorra gure baitan sortu digutenak. Bozkarioz bete gaituzte kooperatiba batzuek, *Copeleche*-k batez ere,

hazkuntza bizkorra izan bait dute. *Copeleche*-k, beste esnategi batekin batera, Gasteizko esnategi industria erosi du; honekin probintzitik at ere zabaltzen zaigu *Copeleche*, bere lan azkartasunez eraginda.

Bainan bai, joan den urtean ardura sakon sakonek hartu gaituzte, beste kooperatiba batzuek iragaiten duten larrialdiagatik, batez ere *Conserna*-k. *Conserna* (*Conservera Navarra*) barazkiak industriatzeko Espainiako kooperatiba handiena da (Ribera delakoaren 3.000 familia daude sartuta hor). Afera handia bezala eraiki zen *Conserna*, bainan bitarteko ekonomikorik gabe, eta beharbada *Conserna*-ren erakundea ez zen ongi antolatu. Dena dela, gure ardura iraunkorra izan zaigu *Conserna* aurten. Beharrezko finanziaioea lortzeko era guzietako ahaleginak egin dira eta fabrika berriro hasten da lan egiten. Gure helburua *Conserna*-ren bazkideak salbatzea da, Kooperatiba iraun eraziaz.

Beste kooperatiba batek ere kezkatu gaitu eta kooperatiba hori *Covina* da. *Covina* (*Cooperativa Vinicola Navarra*) aitzina ateratzeko badaduzkagu bitartekoak eta *Covina*-rekin akort jarri da UTECO, mahats, arno eta arnakiak komerziatzeko zerbitzu bat antolatuaz. Honela, *Covina*-ko instalazioak nafar arnotegi guzientzako zerbitzuan erabiliko lirake.

Hauek dira gai nabarmenenak, ihazko eserzioaren arduna nagusia.

Uranga jaunaren hitzaldi hontan Nafarroako nekazalgoaren egoera ikus dezakegu. Nekazantzan ari direnen artean, dinamikoak kooperatibetan sartuta egoten dira gehienetan, lurrez oso aberatsak ez badira behintzat. Kooperatibetan sartutako nekazari hauek dinamikoak baldin badira, nola izanen dira estatikoak, esan

lezake batek baino gehiagok. Bai, aldakuntza urratsez urrats gertatzen da eta Nafarroan ere bai.

Euskal erresuma zaharraren etekinek osatzen dute egungo Nafarroa. Alde guzietatik autsiki zioten alboko erresumek eta hondakinekin geratu zen Nafarroa. Hondakin hoiek egiten dute gaurko Nafarroa. Ekologiaz diferent diren nafar eskualdeek nekazalgotz mota diferentak aurkitzen dituzte. Eskuarki hitz eginez, Iparraldean esna-behi eta kabalen hazkuntza egiten da, Erdialdean zereale eta arnoa eta Hegoaldean arto, leguminosa eta barazkiak, landareei ur botatzeko posibletasun dagoen tokietan, hau da, Ebro, Odron, Ega, Arga, Zidakos, Aragon, Alhama eta Keiles ibaien ibarretan alegia, eta zereale eta arnoa besteetan. Zerritegi eta oilategiak hor-hemenka, edonon agertzen dira eta artaldeak ere bai, hauen beherantza nabarmen izan arren.

Baso eta oihanak ez daude ongi zainduta, basoak erabilteko legeak zaharregiak geratu direlako eta jabegoa berdin, egungo egurren eskaerari basoak egokitzeko.

Oihanak kenduta, lurren jabegoa gehienetan minifundoz agertzen da. Hegoaldean bakarrik badaude jabe aberatsagoak, nafar nekazal jauntxogoa osatzen dutenak, baina hauen latifundoak Euskal Herriaren neurri apalez neur daitezke. Hala ta ere, honekin batera, hiri pobreenak Hegoan daude. Jauntxogo honen eraginaz eta deseuskalduntzearen ondorioaz, desnafartuaz joan dira urtez urte hiri hauek eta orain arte guti begiratu diote Iruineri. Horra hor lekuko, Madrilera bizitzera joan den nafarren numero izugarria; nafar hauen sorterria Nafarroaren Hegoaldea izaten da gehienetan. Berdin gertatu da Zaragozarekin eta hiri hontaz ohar ttipi bat. Zaragoza, hiri eta giro bezala, Iruine eta Goiko Nafarroako jendeak ez du atsegin, behekoek berriz bai, hiri arlote eta zaratatsua delako probableki, beren hiri koskorak bezalaxe. Beste ohar xehe bat. Orain denbora guti, Hegoaldeko nafar batekin mintzatuaz, honek ea Salou bere hiritik Donostia baino hurbilago zegoen

galdetu zidan, bere hiriko jende aunitz Kataluniako hondar hortara udal oporraldia iragaiteko joaten delakoz.

Hegoaldeko hiriak despopulatuaz dihoaz, Tafalla eta Muskaria kenduz gero. Azken urteotan sortiritik emigratzen den jende gehiena Nafarroako beste hiri handiagotara joaten da lan bila, lehengo atzerriratze harek gelditu dela bait dirudi; gaur gaurkoz, jakina. European sartzen ez bagara, arras koloniatuta izanen gara hemendik laisterrera. Galde ezaiezue, bestela, orain karreraren bat amaitzen dutenei; ea non aurkituko duten lana, Madrilen, Parisen edo han nonbait izan ezik.

Orokortasun hontan koperatiben mugimendua ere sartzen da. Orokortasun honen matazaren hari bat da. Oraindaino Nafarroan bare bare zeuden nekazal koperatibak, inora mugitzeke. Egun berriz, pot batzu direla-ta, ekonomikoki behinepehin, suspertzen hasi dira nekazarien buruak. Orain arteko baretasuna ez da naski berriro dastatuko, jaun agurgarri batzuen pena tristearekin.

Uranga jaunak, bere mintzaldian, *Copeleche* esnategi industria koperatiba goraiatzan du. *Copeleche* hau, bere erdarazko izenak azaltzen digunez, esnetara jotzen duten nekazaleek osatzen dute. Koperatibistak, edo egokiago dena koperatiban sartuta daudenak, Iparraldeko haranetakoak dira gehienetan. Burunda, Sakana, Arakil, Larraun, Araitz, Basaburua, Imotz, Atez, Anue, Ultzama eta Baztan aldekoak batez ere. Badago *Colepeche*-n Gipuzkoako baserritar mordo bat ere, orain urte batzu esnea lortzearren esnategien borroka izan zenenetik. Era berean, Gipuzkoako *Gurelesa* esnategiak baditu nafarrak bere koperatiban, bereziki Ultzama eta Bost Hirietakoak.

Horren ongi ote dihoa *Copeleche*? *Gurelesa*-n, zalantzarik gabe, Euskal Herriko baserritar euskaldunenak daude, herri konzientzia itzarriena dutenak. Hau, beharbada, ez da merezimendu bat izanen, geografiaren laguntzaz den gauza bat baizik; bainan dena da. Errealidadea. Honegatik, aspalditik zebilen arduratsu

Gurelesa-ko zenbait gizon, Euskal Herriko esne industriren batasuna egiteko. Urrutira begiratzen zuten gizon horiek. Gaurkoz, industria mota hontako euskal soziedadeen artean errentableena *Gurelesa* da. *Gurelesa*-ko gizonak eraginda, *Copeleche* eta *Gurelesa*-ren "Junta Rectora" k biltzen hasi ziren, lehenbiziko urrats bezala, bi soziedade hauen batasuna egiteko, gero besteekin errazago lortzeko. Bitartean, Gasteizko zentralea salgai jarri zen eta *Gurelesa*-ren inizatibari esker, *Copeleche* eta *Gurelesa* harremanetan hazi ziren Gasteizko Kutxa Munizipalarekin, Gasteizko zentralea lortu zuten arte. Gero, Gasteizko esnategi soziedade berrian, *Copeleche* eta *Gurelesa*-ren artean akzionarioak erdibanatu ziren, Gasteizko Kutxa akzionarioen % 10ekin geratuaz. Eta hemen hasten da borroka. Erdi banakuntza hau lortu eta gero, *Copeleche* gidatzen dutenak beren buruen jelskor agertzen dira, batasun bidean oztopoak jarriaz. Kontura gaitezen *Gurelesa Copeleche* baino soziedade dinamikoagoa dela eta ikusiko dugu zer irabazten duten oztopo hauekin nafar baserritarrek. Ez bakarrik ekonomia aldetik, bai eta euskaldungoaren aldetik ere. Gainerat, *Gurelesa*-ren asmoz, arabar baserritarrak ere batu behar ziren *Copeleche* eta *Gurelesa*-ren kooperatibetan (% 50ekin soziedade bakoitzean), gero, batasuna egiterakoan, arabar baserritar horiek zubi bat izan litezke, soziedade berria eraikitzean.

Badaude Nafarroan produzioko kooperatibak ere, Euskal Herrian zehar dauden bezala. Hurbil edo urrutitik denok ezagutzen dugu kooperatiba hauen bizitza, beren abantaila eta desabantailekin. Aunitzetan, kooperatiba hauek anarkiaren oroitzapena dakarkigute burura. Lur tipi eta lan tresnen batze teknikoak zalantza gabeko abantailak ekartzen ditu, baina teknikak ez du gauza handirik egiten erakunde egokirik gabe. Muturrekoekin ikasten da, baina, neurri batez muturreko bide hau beharrezkoa izanik, ez da ikasbide bakarra.

Conserva eta *Covina Copeleche* baino gaizkiago ibili badira,

aferen naturagatik izan da funtsean, konkurrentzia gehiago zegoen arlo hauetan eta afera zailagoa zen.

Diru Kutxak eta Nekazalgora. Bankuak zenbatu gabe, lau Kutxa daude Nafarroan. Iruinekoa, Nafarroakoa, Laborala eta Rurala. Lehenengo biak nekazantzan erabilteko dirutza handia dadukate, baina nekazale guti ausartzén da diru hori kredito bezala hartzen, Kutxek, Banku guziek bezalaxe, garrantia gogorrek eskatzen dituztelako eta nekazalgoaren afera ez da Bankuena bezain segur. Kutxa Laborala sartzen hasi da Nafarroan, bulegoak irekiaz, baina orain arte Iruine, Altsasu eta Lizarrako bulegoak besterik ez du. Lehen *Caja Central Cooperativa de Ahorros y Préstamos de Navarra* zena *Caja Rural de Navarra* bilakatu da, Espainiako Ministerio de Hacienda delakoaren aginduz. Espainiako erakunde, Kutxa Rurala UTECOrekin batera ari da lan egiten; hogeiren bat bulego ditu Nafarroan, batez ere Ribera aldean, baina ez du indar gehiegirik gaur.

Nafarroaren nekazal kooperatibak nafarron bizitzaren zati xume bat dira egun.

EIBARKO "MAQUINAS DE COSER ALFA, S.A."

imanol laspiur

Sarrera

Gaur egun josteko makinagintzan ezagutzen dugun "ALFA" lantetxea 1920an sortu zelarik, berrogei eta hamabi urte daramatzi bere ibileran.

Ordutik honera berebiziko gora-beherak ukan ditu, eta bere gaurkotasuna ulertu ahal izateko, sorkunetik orain arteko ibil-bide horren zenbait pondu aztertu beharrean izango gara: garai haretan Eibar zer eta nolakoa zen; orduko ALFAren sortzaileak zer izpirituk bultzarazi zituen; zein zen haien nahimena, jomuga, aurren urteetako nekeak ezagutu, 1936ko gudatea, gudu ondorena... eta gaurra.

Izan ere, gaurko ALFA, Eibarren den lantegirik handiena den arren eta familia gehien mantentzen duelarik ere, ez du eibartar askok, ezta ere bertako zenbait langilek, are guttiago kanpokoek ezagutzen ez bere historia, ezta ere bere barrenean gordetzen duen jakingarri dateken hamaika argibide eta xehetasun. Batzuentzat kooperatiba imitagarria izan omen da ALFA; beste batzuentzat ez da inoiz ere "kooperatiba" izan, "asociativa" hutsean bihurtu

den elkarte bat baizik. Askok, ordea, ez daki, jakin ere, nahiz eta koperatiba batetan lan egin, zer moldez eta oinarriz eta helburuz egina izan daitekeen lankide-baltzu bat.

Jakingarria da benetan ALFA sortu zuten garaiko Eibar zer giro politiko eta sozialek inguratzen zuen, baina batez ere ALFA sor-arazi zuena bederen.

Dena dela, handik eta hemendik jaso ditudan argibidez aha-legindu naiz lan hau ahal denik eta egiaztien biribiltzen, zenbait pondu alderantzi eman ere eman bait didate. Zerak jaso ditut: ALFAk azken urte hauetan argitaratuak dituen berri estadistikoak; bertako zenbait langile ordezgarrigandik harturiko oharra; gaur egun jubilatutako diren orduko ALFAren sortzaile izan zirenengandiko azalpenak; Toribio Echevarriak ALFAri buruz idatziak eman dizkigun gauza jakingarriak; ALFA sor-arazi zuen sozialismo-giro haretan bizi izan ziren sozialista batzuen esanak; Toribio Echevarriaren adiskide min izandako zenbaiten xehetasun interesgarriak... hitz batetan, jasogarri iruditu zaidan zenbait iturritako ura hartu, garbitu eta ontzi batetan batu dut.

Besterik gabe, garai haretako Eibarren oinak eta begiak jarriaz has nadin.

Eibar langilea, Eibar jolasgilea, umoretsua, osoki euskalduna, ideietan irekia eta zabala, liberal izpirituz politiko eta sozial dotrina berriak arakatzen eta, behar bazen, onartzen zekiena; Gernikako Arbola gogotsu kantatzen zuen arren ere, Cuba-ko ez dakit zein haizek eraginiko kutsuz dotore eta maliziaz hango habanerak kantatzen zekien Eibar hura.

Garai haretako eibartarrek —Toribio Echevarriak berak esaten digunez—, beren oroipenen barrenean ezagutu zituzten, Eibarren, laboratorio batetako esperientzia batetan bezala mugaturik lantegien handitze hiru mailak: lanbide edo ofizioak, manufaturak eta fabrika.

Eibar beti izan baldin bada ere gizarte pentsakera berriei bide

emateko, baita ere, izan ohi da, lan eta sozial bizitza aldetik pentsakera berri horiek praktikan jartzeko gertu.

Baina klase borroka, sozial gertakizun eran —“Salon Teatroya”—an igarotzeko ziren mitinlariek oraindik iragarri ez bazuten ere—, aurreragotik zetorren, artesanitzaren puskaketa bera baino ere lehenagotik.

Sozialismoak (esaten digu T. Echevarriak *Viaje por el país de los recuerdos* bere liburuan) Eibarren horren egoki ordeztuak zeduzkan birtuteen artean, jarraipen izpiritua omen zen printzipalena, hau da, eten gabeko ahaleginean ekitea. Alderantziz, bestelako erradikalismo batzuk langileriaren larregitasun batetan ari izaten omen ziren, politiko giroek nola bultzarazten zuten ukanik, beren ibilera gehiegi handituaz batzuetan edo ta bertan behera utziaz.

Aipatu dugun jarraipenezko izpiritu eta eraikite egarri horretaz jabetu zelarik Eibarko sozialismoa, laburki bizi izan zen eibartar *Gremio Armero*-aren lehen denbora haiez geroztik alegia, izkiluak egiteko ola baltzu bat eratu zuen eta baita ere ALFA “koperatiba”, lan honi dagokion atalean geroxeago ikusiko dugunez.

Urte haietako Eibarrek ondo ezagutu zituen sozialismoak zekartzien haize berriak. Sozialismo horren mezuak langileriarentzako berri on eta itxaropena zekarren. Behingoz, Marxen dotri-nak langilea askatuko bide zuen eta kapitalismoaren hatzaparrak moztuko. Sozialismoa modan zegoen Eibarren garai haretan.

Eibarko sozialismoaz horrenbeste ari banaiz, ALFAren sor-keru uler dezagun nahi ta nahiezko delako, eibartar sozialistek asmatu, eratu eta sortu bait zuten hain zuzen ALFA lankide-baltzua.

Bazen Eibarren, Bidebarrieta kalean, geroago Untzaga plaza 1916ko Urriaren 29an irekia, *Casa del Pueblo* edo *Centro Obrero* izendun langile elkarte, eta hauze zen Eibarko sozialistek

zuten biltokia. 1919 horretan, etxe berri horren aldatze-irekiketa zela-ta, Leon Jouhaux, Indalecio Prietok eta Aquilino Amuategi eibartarrak hitz egin zuten, frantsesez, gaztelanieraz eta Eibarko euskera gogorrean, bakoitzari zegokion mintzairaz alegia. Hor bertan izan ohi zen eguneroko bilgune, azterketa, mintzaketa, batzar eta langilearen eta sozialismoaren alde izan zitekeen zenbait gora-behera.

Aurretik zetorren harmagile gremioa, geroago ofizioetako *Federación de Sociedades* Bidebarrieta kaleko *Centro Obrero* zaharrean zena, eta azkenik burdina langintza guziak, bildu eta elkartu zituen *Sindicato Metalúrgico*-ak *Casa del Pueblo* batz-etxe horretan alegia. Lehenbiziko biak herrikoiak ziren, eta azkena *Sindicato Metalúrgico* nazionalari lotua. *Unión General de Trabajadores* (U.G.T.) erakundean bazkideak zeuden burdina-lan gremioak; honela ziren *Sociedad de Pistoleros* (harma motzetan lan zegieña), *Sociedad de Escopeteros*, *Sociedad de Pulidores* eta abar. Gremio horiek U.G.T.an elkartuak bihurtu zirenez, Amsterdam-go CIO SL (Confédération Internationale des Organisations Syndicales Libres)-ekin batean zihoazten. Esan beharrik ez dago, *Centro Obrero*-ko bazkide izateko derrioz UGTan alderdikidetu behar zela.

Aipagarriak dira garai haretan kalez-kale Eibarren izan ohi ziren "manifestazioak", eta benetan kurioxa zen honelako pankarta ere ikustea: *Sociedad de Pistoleros Eibarreses*. Hortik dator kio nonbait eibartarrari hainbat aldiz kanpotarrek erantsi dioten "pistolero" gaitzizena.

Eibar politizatua zegoen garai haretan. Orduko eibartarrak bazuen bere politiko iritzi zehatza eta, aurrerakoi izan nahian, bere ustez egokien zerizkion erakundeari lotua zen. Langile arazoetan, *Federación Local de Sindicatos Católicos* eta 1918an sortutako Eusko Langile Alkartasuna baldin baziren ere, zalantzarik ez da *Unión General de Trabajadores*-ko metalurji-sindikatoan el-

kartuak zeuden eibartarrak zirena gehien eta indartsuenak. Hauek izango dira geroago ALFA lantegia sorraraziko duten sozialistak. Baina esan beharra dago ere, Marxen dotrina modan bazegoen ere Eibarren, sozialistak zirela nagusi eta komunismoak ez zuela indarririk, bakan bat edo beste baizik ez zuen-eta jarraitzailerik.

Hitzaldi eta mitinetan famatua izan da Eibar. Aspaldi bate-tako Pablo Iglesias buruzagia eta *La lucha de clases* izendun aldiz-kari sozialistaren buru zen Valentin Hernandez-ek (kanpotik bait zetozen) jarraitzale bikainak ukan zituzten eibartarren, batez ere Aquilino Amuategi sozialista hizlari bikaina. Horien eskolak jarraitzale asko utzi zuen Eibarren: Toribio Echevarría, Marcelino Bascaran, Tomas Meabe, Madinabeitia sendagilea eta beste asko, baina azken denboretan Bizkaia aldetik Eibarrera bizi izaten etorriak ziren Juan de los Toyos eta Valentin Vallejo ukan zituz-ten orduko eibartar sozialistek gidari eta hizlari bikain. Bi hauek, Salon Teatro aretoan eta Casa del Pueblo-an ukan ohi zituzten hitzaldi eta mitinak, baina Indalecio Prieto edo Miguel de Una-muno bera hitzegitera zekartzitenean, orduan 'Astelena' pelota frontoian izan ohi ziren mintza-aldiok, izan ere, horien aipamena handiagoa zelarik, kanpoko herrietatik jendea etortzen bait zen.

Geroago asko aipatu beharra izango dugun Toribio Echeva-rria Eibarko sozialisten eredu bihurtuko zenarren, ez omen zen, ordea, hizlari trakets eta motela baizik. Horregatik Centro Obre-ro-ko batzarretan-eta soilki mintzatzen omen zen; inoiz ez zuen jendetza aurrean mitin eta horrelakorik ematen. Halaz ere ideia argi eta jakinduriz betea zetorrenez Toribio gaztea —eta idazle trebe eta dotorea noski—, bere leku gorena egin zuen Eibarko sozialista elkartean.

Prieto Eibarrera etortzen zen horietan Amuategirekin hitzas-pertu luzeak egiten omen zituen. Hitzaspertu horietan Urkusu-ko iturrirainoko ibilaldiak egin ohi zituzten eta, garai haretan hor bukatzen zenez Eibarko etxetza, berriz goruntz jotzen zuten biek.

Behin batean, 1917an guti gora-behera, honela galde egin omen zion Prietok Amuategiri Toribio Echevarriaz arduraturik: *¿Quién es ése que tan mal habla y que sin embargo dice cosas tan interesantes?* Horra hor Toribioren irudia; hitz horiek agertzen digute zerbait bere izate berezia.

Ikusi dugunez, Casa del Pueblo-ko giroa sozialista zen; Marx-en irakaspenak maite zituen, langileriaren liberatzea klase-borroka bidez eragin nahi zuena, nahiz eta horretarako komunista izan ez, noski. Herri Etxe horretan batzarrean biltzen ziren "intelektualei" *Senaua* (Senadua) deitzen omen zien jendeak. Ateotza ere nabari zen hauen artean, baina zentzu zabalekoa oraindik (geroago mindu bait zen). Halaz ere katoliko zirenak baziren bazkune horretan. Bertako bazkide zen baserriko seme katoliko bat goizero mezetara joaten omen zen eta honela galde egin omen zion behin "ateo" horietako adiskide batek: *Zela leikek, baiña, Centro Obrero-ko sozialista bat goixero mezetara juatia eta gero hona etorri? Hone-latsu erantzun omen zion besteak: Goixian animia salbatzera juaten nok mezetara, eta arratsaldian gorputza salbatzeko hona etortzen nok.* Horrela izaten bide zen haien filosofia.

Ba omen genuen ere Centro Obrero horretan eskupetari elkar-tearen lehendakari zen "Asta" izenordezko bizkaitar bat. Behin batean, batzarra zutenez, neurri bat erabaki behar eta Asta horrek bere agerketa egin ondoren honela galdetu omen zuen bizkaiko bere euskal ikutu bereziaz: *Aprobetan da ala ez? Baaii!!!* izan omen zen erantzun ozenki eta bateratua. Orduan Astak, horrez gain, esan omen zuen: *Ointxe bixerra moztuko deutsegu zikuan patroneri.* Honek erakusten digu kapitalismoaren aurka zuten grina eta indarra, nahiz eta, geroxeago, ugazaba horiekin kalean lasaiki "txikiteoan" ardo beltz pixka bat elkarrekin edaten ibili.

Orduko Eibar liberal samarra zela agertu dut eta, izan ere, horrela zen. Oporketak egiteko kontzientzia eta kemena ere izaten zuen langileak. Lana franko zegoenean, beste zenbait tokitan

baino gehiago irabazten zuen eibartarrak. Baina 1919an zortzi orduko egun-lana legez eskuratu zuten, eta hortik gora lan egiten zuenari harrika ere egin omen zitzaion, orduko sozialista kontzientziatuengan ez bait zen nonbait onartzen gizonaren lan-neurria zortzi ordutatik gora izan zitekeenik eta, noski, langilearen eskubideen artean zortzi ordu bururen lan-aldiari zegokion alokairu justua eskatzen zuten. Desekilibrio bat sortzen zenean, Sindikatoen bultzadaz ez zen ugazaben injustizia bat onartzen eta, behar baldin bazen, oporketan jartzen zen langileria.

Sozialista hauen mugimendua, Eibarren bederen, euskalduna zen osoki. Baserriko seme asko eta asko ere bazen tartean eta erdaldun bakanen bat edo beste kendurik, denak kaleko euskaldun eta baserritik jaitzitakoek osatzen zuten *Centro Obrero* bitartez U.G.T.ko elkartasuna. Jakina, zenbaitek ez zekien tutik ere erderaz. Luis Madinabeitia sendagilea eta Santi Meabe (Tomasen anaia) P.N.V.tik sozialismo elkartera etorriak edo aldatuak genituen eta horren arrazoia erraza bide zen, zera, PNVk ez zuela sozialismoak zedukan bezala langileriaren alderako sozial egitarau sakonik.

Elkarte honen euskalduntasunaren berri Toribiok eman digu bere azken urteetan Eibarko euskararen inguru egin dituen azterketa eta lan sakonak bide direla. Baina baita ere edesten digu, Madinabeitia sendagileak esaten omen zuela Gernikako Arbola zortzikoa euskaldun sozialisten *kanta internazionale* izan behar zukeela, horren eder, esankor eta maitagarri bait zitzaien guziei.

Berezko haien euskalduntasunak ez zuen, halare, euskal zaletasunik lantzen, euskaldunak izanik hain zuzen, horixe ziren-eta izatez, euskaldun hutsak, besterik gabe. Euskal abertzaletasunak aitzitik zekarren euskararenganako eta euskal herri baloreen alderako ekintza nahirik ez zen internacional zeritzaten sozialista horien artean, bat edo beste kenduez gero. Euskaltzalerik, Toribio bera zen, bere azken urteetan batez ere.

Hara baina, euskaldun jator hutsak ziren, Eibarren bertan esan ohi den eran *euskaldun peto petoak*. Gernikako Arbola abestia modan zegoen *Casa del Pueblo*-an. Aipagarria da nola behin batean Indalecio Prietok Eibarko Untzaga enparantzan bere hitzaldia bukatuaz batera musikako bandaren zuzendariari Gernikako Arbola jotzeko agindu zion, eta esan eta egin: Gernikako Arbola jo zen; eta herriak abestu egin zuen.

1920 garren urte aurretik ez zuen Eibarko sozialismoak euskal abertzale mugimendurik haintzakotzat ere hartu. Izan ere ez bait zedukan oraindik abertzaletasun horrek geroztik goraka etorri zitzaion indarririk. Horregatik, ez genezake pentsa politiko borrokarik zitekeenik. Politiko borroka ez-ezik, erlijioarekikorik bai zen ordea. Honetan zetzan, dirudienez, nolabaiteko borroka.

Beraz, badirudi, 1925etik 1930era bitartean, eta areago hortik 36rako aldian garraztu zen politiko borrokarik ez zela ezagutu 1920 aurretik. Azken aldi haretan indartu ziren norbaitzuen alde-tiko besteak errespetatuz eta tolerantzia ezaren berri ondotxo dakigu. Gorrotoak itsuturik, liberal izate eta pentsakera zabaltasun hura murrizturik gelditu zen. Hara baina, berriz ere, hogeigarren urte haien aurretik ez bide zen horrelakorik, geroago garraztu eta mingoztu zen gorrotorik alegia.

Bada, halare, halako gertakizun xipi bat. Aipatua dugun Madinabeitia jauna PNVtik sozialismo elkarte alorrera aldatu zelarik ere, ba omen zuen bere kolko barrenean kili-kili egiten bide zion euskal abertzaletasuna. Sozialismoari halako euskal abertzaletasun giro bat eman nahi izaten zionez, hitzaldi batetan, entzule izanik, hitza hartu eta sozialismoa abertzaletu gurarik-edo agertu eta mintzatu zen nonbait; sazialista entzuleek, noski, "jan" egin omen zuten berehala.

Eibartar sozialistak baziren, bai, gizonaren eta herriaren askatasun eta eskubidetasun zale. Horregatik Euskal Herriko lege zahar eta foruen alde ere baziren. Baina denaren aurrean internazional

sozialistatza jartzen zuten, eta ez zuten onartzen askatasun osoz bere buruaren jabe izan zitekeen Euskal Herririk, Espainiagandik aparte alegia. Ez zuten onartzen ere karlismorik; ezta ere komunismorik. Errepublika zaharreko jarraitzaileak zituzten, besterik bazateken ere, beren etsairik gogorrenak, hobeki esanda elkarren etsai. Sozialistak Eibarren sortu baino gizaldi bat lehenago ba-genituen errepublikanoak. Sozialismoa indartzean, batzuek sozialismora aldatu ziren, baina lehenean iraun zuten zaharrak izan zituzten sozialistaok etsairik egoskorrenak. Denbora aurrera joanik, gero-ta hurbilago jarriaz elkarrengandik, 1930. urtean bat egin zuten. Baina 1920. urte inguruetan horrela genituen Eibarko gauzok.

Badadukagu 1918. urteko gertaera hau: Marotok eta Esparterok 1839an Bergaran ukan zuten "besarkada" aipatu haretatik zetorkigun euskal foru eta askatasun *gordetze eta errespetatze* hari loturiko lege hura, hau da, 1839. urte bereko Urriaren 25eko legea. Abertzaleengandik at, zerbait liberal eta aurrerakoi zen eibartarrak ez zuen onartzen lege hori. "Unibertsal" izpirituz izan arren, edo-ta horrela zelako, lege hori nardagarritzat eduki zuen eta bere aurka bide zen. Horregatik ez zen, nolabait bederen, oso begiko orduko eibartar sozialisten gogoetan. 1918. urteko Udaletza osatzen zuten gizonen artean ez zen abertzale bat ere, hots: euskal abertzalerik. Gehienak sozialistak ziren, errepublikanoak ere bai eta bi bat konserbadore. Hala ere hiru udalbatzarretan jaso zituzten agiritan garbi ikusten da haien nahia: udal-gizonek aho eta asmo bateratu batez onartu zuten, 1839ko lege hori desegina izan zedin erregua egiten diote Gipuzkoako Diputazioari, honek Madrileko Gobernuari bere aldetik horrela eska zezaion eta lehengo euskal lege zaharrak berriz Euskal Herriren jabetasunpean ukan zituzten.

Sozialistak gehien eta indartsuen ziren Eibarren. Komunistek ez zuten jarraitzaile guti baizik. Ez zen nor-nahirentzat erraz ko-

munismoaren eta *histori-dialektikaren* muina ezagutzea. Oraindik hurbil zegoen 1917ko boltxebitarren iraultza, eta Eibarrera heltzen hasiak ziren gertakari haren kutsu eta ondorioak.

Egun batez, eibartar komunista zintzo bat beti komunismoaren alde hizketan ari izaten zenez, bere adiarazpenak ematen ari omen zen ohi zuen eran. Entzuleen artean "Perrin" ezizenez eza-guna zen (Pedro Echeberria) eibartarra tartean bide zen eta honela galde egin omen zion komunismo zale hari: *Zer dok ba Komunismua? Ifinik ejenplo bat*. Eta bestearen erantzuna: —*Ba, komunismua hauxe dok: esate baterako, Eibarko diru danak Untzagako plazan batu eta danen artian bardin partidu*. Eta Perrin-ek berriz: *Baiña, hori zenbat bidar, baten?* Eta erantzuna: *Bai ba, baten bakarrik*. Orduan Perrinek erantzunaz bukatzen dio: *Ez ez, horrek etxok balio; izatekotan be astero astero errepartidu biajok, bestela diru danak Arikixa-n eskuetara joango ditzuk-eta berialaxe*. ("Arikitxa" hau UNCETA deritzan almatzen-jabe indartsua dugu).

Hauxe da, guti-gora-behera, orduko Eibar sozialistak zedukan giro eta ekintza. Baina argitu beharra dago sozialismo horren alderdia ez zela horretan gelditzen, Toribio Echevarriak *La experiencia socialista en España vista desde mi pueblo* (1) bere liburuan zehatz esaten digunez: *Partidu bat ez da helburu, tresna baizik*. Herriaren alde, gizonaren alde, langilearen alderako tresna baizik, noski.

(1) Editorial "Pablo Iglesias", López, 60 MEXICO, 1.D.F.1966.

Oporketak

1920an oporketak nagusitu ziren Eibarren.

Aldi haretan Alfonso XIII zuen Espaniak errege, hain zuzen, honen erregetzaren azken urteetan.

Toribio Echevarriak berak edesten digunez, bizi moduaren ekilibrio-eza espekulatzailen erruz handituaz zihoan. Gobernu monarkikoek ez omen zuten espekulatzaille hauekin sartu nahi edo ez bide ziren ausartzen, eta langileriaren eskariak indartuz etorri ziren. Alokairu eta irabaz-sariak jaso arren, gero erosneurriek goraka egiten zutelarik (gaur-egun bezalatsu, dirudienez), ez zen erremediorik aurkitzen.

Burdina laneko elkarteak sindikato batetan bildurik ziren aspaldi, metalurji sindikatoan alegia, ikusi dugunez. Langile hauen aurrean ugazabek ere *Confederación Nacional*-aren itzalpean beren sindikatoa hautatu zuten. Honela, langileek erabil zezaketen bide eta sistima bera erabil ahal izango zuketean, bakoitzak bere interesak bereziki defendituz.

Aurrez aurre, sindikato biek borrokan egin zuten. Langileek lan ugari eta salketa oparotsuak ikusten omen zituzten, eta utzi nahi ez. Orduan berehalaxe jabetzen omen zen langilea ugazabak izaten zituen *pedidu* handi eta ugalsuez. Baina ugazabek aurreko guduaz aprobetxatuta eskari sendo eta irabazpen naroak izanik, indartsu aurkitzen ziren beren sindikatoan, eta elkarrizketa eta eztabaidetan sartu gabe langilearen indarra neurtzeko gertu izan ziren. Honela ohituak, ugazabek ez zuten beren aldetik, ez horixe, utzi nahi eta, horra hor, bien arteko nor-gehiagoka kaltegarria.

1914ko huelga ikaragarri haretan bezala, 1920.ko udan Eibar erdia oporketan jarririk gelditu egin zen eta ez zuen diru irabazterik ukan.

Oporqueta hura *patronoek* sor-arazi edo probokatu omen zuten. Alokairu edo lan-sari jasotze eskaria omen zen zioa. Eskupetariak konpontzea lortu zuten, ez ordea izkilu motzetakoek.

Uda igaro zen, udazkena heldu eta Eibar erdi lanik gabe, geldi. Eguberriak gainean eta alderdi bien joerak berdin zirauten. Ikaragarria benetan lau hilabete luzetan herri erdi lanik gabe irautea.

Historia honetan geldi une bat eginaz eta atzera zerbait begiratuaz ikus genezake ere oporketak ez direla gauza berriak Eibarren. Aspaldi haretako 1897. urteko Abuztuan "Quintana Hermanos" lantegiko langileek, dakigunez, lehenbiziko oporketa egin zuten. Harrez gero hainbat huelga izan da Eibarren.

Baina berriz itzul gaitezen 1920ko oporketa jarraitzera. Eibar erdi, lanik eta irabazpiderik gabe baldin bazen ere, beste herri erdia hari laguntzeko gertu zen Eibarrek beti ukan duen anaitasun eta elkartasuna frogantza bide batetan jarririk. Izan ere, oporketan zegoen erdiak beste erdi horren ere interesak nolabait defenditzen bait zituen bere gelditze latz harekin.

Udaletxeak, borroka haretan zer ikusirik ez zuela esanaz, gelditu guzi haietzako janaria eratu zuen eta, horrela, egunero egunero beren "arrantxo" izan zuten lanik gabe hain luze iraun zuten haiek. Arrantxo hau Udaletxepean bertan eman ohi zen. Harma luzeetako langileek, eskupetariak alegia, bakoitzak lau hoguerleko ematen zituen Casa del Pueblo-ko erakundera geldituen alde.

Oporqueta horien aurka zirenek makina bat kritika zakar, denuntzia eta protesta egin omen zuten probintziako egunkarietan, Eibarko zinegotziek alderdi bakarraren alde jotzen zutelata alderdikeriatan zebiltzala agertu nahiean, baina udalgizonek gose zen herri bati jana eman nahi ziotela, ez besterik, erantzun zuten. Begiraleak ere izan ziren Eibarren, baina herri langilearen elkar-

tasuna eta elkarrenganako laguntza ikusirik, nahas samarrik ezin ukan omen zuten ezer aurkitu Udalaren aurka.

Udaletxeak 1916. urtean erabili zituen tresnak eta sukaldea berriz lanean jarririk, eguneroko janaria antolatu zuen oporketan ziren langileek zer-jan ukan zezaten. Janari talde bata kostu prezioan eman zen, eta dohakoa langile sindikatoek ordaindu zuten. Lanean ari zenak, irabazpidea bait zuen, zerbait diruz lagundu zuen arrantxo haren gastoa. Beraz, garbi ikus dezakegu orduko eibartar langileen elkartasunak eraginiko laguntza, baina ez aste bakar batean, lau hilabete luzetan baizik.

Horren luze zihoalarik oporketa aldia, langileen artean asmo berri bat sortu zen, laster egia bihurtuko zen asmo berria: Borroka-zio zen produkto beraren inguru eratuzko manufatura lantegia, kapitalismoaren eta ugazaben indarpetik at izango zuten lantegia. Hortik sortua izango genuen ALFA koperatiba eraikitzeke asmo sendoa.

Oporketak Gabonetan bukatu ziren. Eguberrietako etxe-giro epelaren itzalez eta apainketa baten bidez, langileei lan-sari ordainketaren zerbait aurreratze eginaz kito egin zuten oporketek.

Oporketak ahitu ziren, baina ez ordea oporketa aldi luze horretan eibartar langile haiek beren buru eta gogoetan sor-arazi eta biztu zuten ametsa, hau da, egintza edo produzioko lankidebaltzua izateko asmo eta erabaki indartsua. Hitz batean, produzioko koperatiba bat.

Hona bada hemen, noiz, nola eta zergatik ukan zuten eibartar haiek ALFA koperatiba sortzeko nahia. Oporketa batek eragina, baina sozialismo ideal eta langileriaren liberatze egarri batek bultzatua.

"ALFA, S.A. COOPERATIVA"

Ekintza haren eragile, hau da, ALFA koperatiba sortzeko igigile izan zirenen artean Toribio Echevarria, Marcelino Bascaran, Joakin Telleria, Telesforo Ocamica... , Galarraga, Erquiaga, Gorrochategui ta beste anitz izan ziren, baina zalantzarik ez da, guzi horien benetako buru, argi eta motor Toribio izan genuela.

Horra baina gure lankide-baltzua, 1920. Urriaren 28an Alejandro Astaburuaga notarioaren bidez jasotako agiriak dioenez, *ALFA, S.A. Cooperativa Mercantil y de Producción de Armas de Fuego* izenarekin eratua.

Lehenbiziko Administrazio-Kontseilua hauek osatu zuten, lehenengo akzio-agiriak garbiki agertzen digutenez: Marcelino Bascaran lehendakari, Toribio Echevarria "kontadore" eta Telesforo Ocamica idazkari. Halare, beste alde batetik isituki esan zait, gaur egungo zuzendaritzan alegia, administrabide batzorde haren lehen presidentia Joakin Telleria zela, baina honek Baionara joan beharra ukan zuenez eta luze samarrerako gainera, Marcelino Bascaran jarri zutela haren orde. Bascaran horren semeak —gaur egun bizi bait da— esan didanez ordea, Toribio Echevarria gudu ondoren Ingalaterran bizi zela bertara idatzi omen ziola hauzi hau erabaki zezaion, eta honek baietz erantzun omen zion, Marcelino bere aita zela hain zuzen ALFAk ukan zuen lehenbiziko lehendakaria. Geroxeago honela dugu batzorde horren arduratza osatua: lehendakari Joakin Telleria, idazkari Alustiza, diru-zain Barrios eta kontseilariak Barrutia, Ocamica, Osa eta Florentino Alonso.

Ikusi dugunez, ALFAk legez hartu zuen izena ALFA, S.A. COOPERATIVA MERCANTIL Y DE PRODUCCION DE ARMAS DE FUEGO izan zen. Baina harrigarri baderitzat ere, gaur egun jubilatua diren fundatzaile haietariko batzuek honako hau

esana didate, alegia, kooperatiba horren izen zaharra *Obreros Especialistas Reunidos* zela eta ez beste. Hau garbitu nahirik beste berri honek erantsi dit bide ezberdin batetatik nolabaiteko osaketa: Torbio Echevarriaren ohituraz, egia omen da, *Alfa Especialistas Reunidos* menbretez erabili ohi zuela saleroste paper zenbait.

Zer dela-ta asmatu zuten "ALFA" izena? Esan beharra dut ALFA ez dela Eibarren lehenengo aldiz sorturiko kooperatiba izan. Baziren aintzinatik, dakikegunez 1891az geroztik bai gutienez, hazkurri-baltzu edo konsumo-kooperatibak. Baita ere produzio-koak: 1892an *La Eibarresa* izenez, 146 lagundun lankide baltzua eskupeta kainoiak egiteko sortua bait genuen.

Jakingarri da, 1914ko Gudu Nagusiak lantegiei eragin zien kenka larri aldi haretan, kooperatibek kreditu bidez laguntza eman zietela lantegi kapitalista pribatuei.

Harrez gero hainbat eta hainbat ukan dugu lankide-baltzurik Eibarren. Ez, agian, gaurko gure sozial zentzu hestuz kooperatiba mugatzen dugun taxuz eratua. Baina bai denak lankidetzaz edo kooperazio osoan moldatu nahiriko elkargoak izanik, lanaren etekin eta onura osoa giza-baloreei justiziaz orobatsu dagokienez, ezein uztiaketa gabe bakoitzaren trebetasun arabera guziengana berdinki iritxi-araziaz. Funtsean, gaur egungo kooperatiba aurreratuenak duken helburu eta gogoa. Begira: 1915ean bazituen Eibarrek zazpi hazkurri-baltzu. Bazituen ere, 1920an bederen, oso ezagunak izan diren produzio-lantegi baltzu bi; bata *Omega-Taller Colectivo* zeritzana, eta bestea *Danok-Bat* elhize eskupeta-gintzarako 1919an sortua. Biok beha jo zuten denbora asko baino lehen, baina Danok-Batek gehiago iraun zuenez, San Andres kalean bertan ALFAren aldamentxoan bizi izan zen bere azken urteetan.

Baina, berriz ere, zergatik jarri zitzaion arakutzen ari garen lankidebaltzu honi "ALFA" izena? Dударik ez dago, jakina bait da, aurretik "OMEGA" bat bazelako eta hau aintzin grezitarren alfa-

betu zaharraren azken letra izanik, Toribiok eta bere jarraitzaileek alfabeto horren aurreko hizkia jartzea erabaki zutelako, hau da, "alfa".

ALFA, S.A. gauregun josteko makinagintzagatik gehien bat ere ezaguna baldin bada, ez zen, hala ere, hortik eta horretarako sortua izan. Izkiluak egiten hasi zen ALFA eta ez josteko makinak. Hain zuzen, pistola errebolbera izan zen Alfaren lehen ekoizpen edo produktoa.

Zergatik hasi ote zen errebolber pistola egiten? Zio nagusi bi ikus genitzake: Bata, ALFA lantegia eratzeko nonbaitetik hasi beharra zuten gizon haiek, eta Vista Alegre kalean zetzan *Echeverria Hermanos* ("Kirikixuanekua") lantegia oso osorik erosi zuten. "Kirikixua" horrek nahikoa diru eginaren gainez zenbait buruhauste kendu nahi zuelarik bere pistolagintzan, saltzea erabaki zuen. Horrela bada, gizonen aldatzea besterik ez zuen ukan lantegi horrek, bere artikulu eta bere makinariak baliatuz; gizon berriez osatu, gidatzaile berriak jarri, ALFA izena hartu, lan-elkartego nahimen sendo bat iratxeki eta gaur arteko ibil-bide horri hasiera eman. Bestalde, harmagintzan oso espezializatua genuen Eibarko langilea, eta ekintza horretan benetan trebea zenez, neke askorik gabe egin zezakeen errebolber pistola, azturaz bera zen-eta.

Izkilu zuriak XIV mendeaz gero egiten dira Eibarren. Su-izkiluak berriz, dakigunez, 1488az geroztik bai.

1839an sei tirodun lehenbiziko errebolbera egiten hasi zen Eibarko herria, eta pistoidun eskupeta. Beraz, aztura hau bide izaki, bazedukan 1920ko eibartarrak aintzinatik jatorriz zetorkion ondo ikasitako berezgoa.

ALFA egiten hasi zen errebolbera Smith Wesson markarena zen, eta bi neurritakoa: bata 32ko kaizu edo kalibrekoa ta bestea 38koa; biak *lehen mailakoak*, alegia, mundu osoko salerostegietan.

Horra ba hor, ALFA lantegia bere ibil-bidean hasia. Legez

eratua izan ondoren, bost egun barru, hau da, 1920. Azaroaren 2an lanean lehen urratsa emana.

ALFA koperatiba hau Eibarko sozialistek sorrarazi zuten, *Casa del Pueblo*-ko diru-akzioak, 25 hoguerleko izenezkoak alegia, ALFAren ekintza mardultzera aldatu ziren oso-osorik. Garbi daku-sagunez, Herri Etxe horretako langile sindikato eta ekonomia osoak ALFArenarekin bat egin zuen.

Alfaren diru larritasun garai xar batetan xanpon eta eros-xartel berezi bat ere atera zuten, *Casa del Pueblo* horren ekonomato guzietan ere balia zitzaaten. Horrela sendotu zuten beren arteko diru harreman osoa.

Ataltxo hau bukatu baino lehen, hona hemen, aipagarria denez, gertakizun xipi hau: Garai haretako eibartar patronoek "Kirikixua"ri (hau ere lantegi kapitalista buru bait zen) bere lantegia sozialistei saldu zielako aurpegira bota omen zioten: *Bapo mutil, hik egin dok ona hik; sozialisteri salduko detzek ba taillarra?...*

Berrogeitamar bat lagunekin eman zion ALFAk hasiera, eta sei bat hilabetetara ganoraz eta prestutasunez lanean ari zen, egunean 65 pistola errebolber *oscilante* haietako eginaz. Geroago, ibiliaren ibilian fabrika handi eta modernu egingo zen lantegi xipia jaio da.

Ikusi dugunez, ALFA elkargoa eta *Casa del Pueblo*-a elkarri hestu-hestu eginak sozial ekintza batu batean ukan genituen. *Herri Etxe* honetako bazkide denek sozial helburu berdín bat zuten ez eta ALFAren benetan laguntzeko gogoia, nahiz eta batzuk ALFA-lantegiko langile ez izan, ALFAko baltzukide bihurtu ziren. Areago: harrigarri badirudi ere, bazen *Casa del Pueblo*-ko bazkideen artean zenbait lantegi-ugazaba, baina, hori bai, sozialista sutsu eta sozialismoa garaile izan nahiaren borroka sendoa lan zegiena. Beraz, elkargo bi hauek koperatiba ekintza bakar bat osatu zuten.

Toribio Echevarria

Bada Toribioz zer esan onik. ALFAren eragile-buru eta bihotz izatetik at bazuen giza-dohai anitz.

Gizon hau karrera ikasketarik egin gabea izanarren, bere bizitza osoa irakurten eta ikasten egin zuen. Eibarko liburutegiek bezero ona zuten honengan. Horregatik oso ikasia eta buruz jantzia bilakatu zen Toribio Eibarko sozialismoaren aurrean, baita ere ALFAren gidaritzan.

Ezagutu zutenengandik iritzi berdinak jaso ditut eta, zer esanik ez, sozialismo jarraitzaileengandik eta gaur jubilatua diren ALFAren fundatzaileek gauza ber-bera esan didate:

Ha zan gizona, ha; haxe zan gizon zuzena, argixa ta bihargin aspergabia; harexek eukan dana. Harekin noranahi joan zeikian; gaur ez dago halako gizonik.

Autodidakta hutsa, Udaletxeko idazkari izan zen eta lan horrekin batean ALFAren "kontadoretza" lehenik eta geroago bertako "gerentzia" zeraman. Geroxeago, Errepublika garaian ordea, Madrileko Gobernuaren ordezkari bezala CAMPSAko zuzendari jarria izan zen, baina ALFArekingo ardurak bazterrera utzi gabe.

1936ko gudaldian atzerrirat joan beharra ukan zuen eta han bertan hil zen 1968an, Caracasen alegia, baina bere zenbait idazlan eta gutunek erakusten digunez arima osoa Eibarren zuela, herriminak irentsia.

Toribio Echevarriak ALFAn zedukan errespeto eta itzala benetan handia zen. Toribiok Eibarko Udaletxean enplegatu bezala lan egiten zuen, baina egunean bizpahiru aldiz ALFAra joateko astia hartzen zekien. Bere osterora horietako batetan tailarrean sartu omen zen eta hiru langile mahai gainean eserita harrapatu zituen. Hiru gizonok bat-batean jeitsi eta zutik jarri omen ziren. Orduan Toribiok honela galdetu omen zien: *Zer, gizonak, zer*

pasatzen dok hor mahai gaiñian jarritxa egoteko? Hiru gizonen erantzuna: —Tareia amaitxu dogu ta horregaitxik gagoz geldi. Eta Toribiok azkenez: —Biharreko (laneko) orduak amaitxu artian ez dok hemen farearik amaitzen.

Toribioren lanerako ahalmena ikaragarria bide zen. Dakusagunez, Udaletxeko idazkari zen eta ALFAren zuzendari, baina etxeko ekonomia sendoago zezan beste lantegitto batetan frantses korrespondentzia zeraman, *Viaje por el país de los recuerdos* bere liburuan berak agertzen digunez. Ikus dezakegunez, orduan ere bazen “plurienplegua”.

Berak esaten digu: *Ayuntamentuko irapazpen makalari lantzeko zerbait gehiago egin behar.* ALFArekingo zuzendari lanak orde, hileroko hamar hogerleko eskutarazten zizkion hasieratik. Hamabost urtez gero hilean berrehun pezta jasotzen zituen zuzendari-alokairu sariz.

Bere gizontasuna zenbait gertakizunetan ikus genezake: Behin batetan Ardura-Batzarrak Toribioren ekintza emankor eta paregabea ikusirik, honen alokairua kolpean hileroko 200 peztaraino jasotzea erabaki zuen. Baina Toribiok ez zuen, inondik ere, onartu, ALFA ez zegoela horrelakorik egiteko zorian esanaz, lantegia diru larri aldian zela eta berak adiaraziko zuela noiz halakorik egin zezaketen.

ALFAk, pasa ere, gorriak pasa zituen bere ibil bideko garai batzuetan eta betiko diru problema latza gainean ezagutu zuen sarri eta sarri. Hamar duroko akzioak % 10eko korritua ematen zuen, baina beti lantegiaren premietan bihurtua izan zen. Horrela, une larriak ezagutu zituzten bertako langileek. Zenbait langileren onerako izan zedin, une larri horietan, bere hilerokoa jaso gabe utzi ohi zuen Toribiok, bera baino gaizkiago norbaitzuk bazirela esanaz. Berriz ere ikus dezakegu Toribioren gizontasun eta bihozberatasuna.

Toribio eibartar euskaldun “peto-petoa” genuen. Euskalduna

eta euskaltzalea gainera, eta bere ekintza, praktikotasun aldetik jotzen zuen beti. Behin, ALFAko batzar batetan hizketan ari zelarik, batzarkide batek, —ez dakigu zergatik, ia denak euskaldunak bait ziren eta asko eta asko erderaz tutik ez zekiena—, zera galde egin omen zion, ia ez ote zitekeen hobe erderaz mintzatzea. Orduan honela erantzun zuen Toribiok: *Hau euskeraz aitzen ez dabenak gitxiago aitxuko dau erderaz.* Toribiori ez zetorkion ongi arrazoi gabeko esanik; Toribio praktiko hutsa eta errealista zen.

Bere azken urteetan hamaika euskal lan idatzia utzi digu, Eibarko euskarari eta aditz-jokoari buruz alegia.

Alfa-Toribio, Toribio-Alfa bikote hau horren bat eginiko irudi gertatu zen, ez genezake uler Toribio gabe Alfa sortu eta aurrera abia zitekeenik.

ALFA sortzearen nekeak

ALFA sortu nahiko asmoa gauza bat zen, baina hori martxan jarri ahal izanaren diru-premia ikaragarria beste gauza latz bat. Nola eta nondik eskura zuten horretarako behar izan zuten diru guzia?

Bai langileen artetik aterata, bai hain zoritsu zebilen Bizkaiko Metalurji Sindikatoaren aldetik ukan zuten laguntasunez, hasiera emateko behar zuten 300.000 pezetako kapitala bildu ahal ukan zuten. Ordurako, garai haietarako kapital mardula zen benetan; ederra. Aipatua dugunez bere lantegia salgai jarririk erretiratu nahi izan zuen “Kirikixua” horri bere tailerra erosirik, martxan jarri ahal ukan zuten amets zena egia-izate bihurturik: ALFA, S.A. lankide baltzua.

Langileek beren dirua jarri zuten, baina diru premia hura

hain hestua zenez (ez dezagun ahaz oporketa luzealdi batetik aterata berria zela Eibar) ALFAren lanik egin ez zuen zenbait baltzuketan horren dirua ere iratxeki zitzaion ekintza berean. Horrela, lehenago ikusi dugunez, lantegi xipien jabe zen sozialista gisako edo benetako sozialista bat edo beste ALFAko baltzuketan bihurtua genuen bere diru-akzioak bertan jartzearen bidez. Beraz, bertako langile, nahiz langile ez zen zenbait ALFAko akzio-jabe genuen.

Hirurehun mila (300.000) pezetako kapital hau 50 pezetako 6.000 (sei mila) akzio izenezkoetan zatitua izan zen. Baina lehen *eskari* edo "emisio" honetatik 2.000 izan ziren *hitzartu* edo "suskribituak" eta haren % 75 *ekarriak* edo "desenbolsatuak". Beraz, ALFA lanean hasi zenean, 75.000 pezetako jabeekideen kapitalez baliatu zen.

Traba eta problema ugari ukan zuen ALFAren ekintzak: Ugazaba kapitalistek kontseilu beldurgarriak eman zizkieten: inoiz patrono izan gabeko arazoetan sartzen zirela, esperientziarik ez zutelako beha joko zutela, bezeroak lortzeko aurkituko zituzten akatsak zirela, eskari falta, kredito eskasia, merkatu urrutiak, beste hainbeste oker... hitz batean porrot egingo zutela.

Lagun onak ere ukan zituzten kooperatibagile trebe hauek, eta ez naiteke aurrera joan gizon handi bi hauek aipatu gabe: Eibarren *Banco de San Sebastián*-eko zuzendari zen Blas Echevarria jauna bata, hamaika lantegiri lagundua, hainbat larritasunetatik aterataz, eta bestea *Escuela de Armería*-ko zuzendari bikain bikain genuen Julian Echeverria. Batak diru aldetiko laguntasunez eta besteak gizontasun eta teknika aldetiko aholku onez, ALFAko gizon horien bultzagarri bihurtu zirenik ezin uka. Toribio Echevarriaren makina bat eskari larriri erantzun egokia emanaz lagundu omen zion Blasek, eta zenbat hitz-aspertu luze egin ohi zuen Toribiok Julianekin. Blas, Toribioren lehengusua genuen.

Problemari franko ukan zutenarren, teknika aldetik ez zuten beldurrik, Eibarren ziren espezialista aurreratuenak eskuratzen

saiatu bait ziren. Pistola errebolberrik hoberena egiteko zorian aurkitu ziren horrela; pistola patronalek zuten prezioa baino hobeagoa egiteko ere gauza ziren. Horretarako, langile trebetuen ekitekoa behar bezala antolatua eta mailatua zedukaten, lantresnak ere nahi hainakoak ziren beren esku eta administrazio arazoan ez zuten ezeren beldurrik. Baina kezka gogorra honetan zetzan: Egin behar zuten gai edo ekoizpena merkatu urrutietarakoa zen eta, gainera, 1914ko gudu ikaragarri haren ondoren etorri zen garai hauskor eta galgarria ez zen nor-nahi poztekoa. Ameriketako Estatu Batuen aduanetako neurri administratibu batek eragina zela, edo erdi-amerikako iraultza xipi bat aski izanik, edo Brasileko kiebra baten itzalak eragina, edo Argentinako uzta xar batek egin zezakeen kalteak lurtean zehar bota zezakeen haien ibilera osoa, eta guzi hau Toribiok berak edestu ahal ukan digu bere liburuaren bidez. Letra bihurketa, banketxetako laguntza mozketak, produzio gutiketa, salneurrien aldaketak, stoka, lan-sari eta alokairuekiko erantzun ezina. . . Hitz batean bazuen ekintza horrek beha joteko arrisku zorrotza sendo.

Baina esan eta egin: ALFAk Eibarren egiten zen errebolberrik hoberena egin ahal ukan zuen, eta salneurrietan ere nahi bezala borroka zezakeen edonor. Ameriketako fabrikanteei borroka gogorra egin zien, eta hauek neurri zorrotzak jarri arazten saiatu ziren arren, nahiz eta ALFAk behin eta berriz prezioak jaso beharra ukan, ez zuen inoiz ez kalidade aldetik ezta ere salneurriarekin aurrera jo ezinik ezagutu.

Aipaturiko eragozpen horiek gainditzeko erosle idartu baten finantziaketaren premian pentsatu zuten eta, horrela, Metalurji Sindikatoaren lehendakari zen Vallejo jaunaren hitza eskura zuten. Ba omen zuen honek, halako erosle on eta indartsua, eta ALFAren egintza edo produzio osoa erosiko zuen promesapean aurrera jo zuen kooperatibak.

ALFAren helburua —Toribioren esatez— hauxe omen zen:

lantegi pribatuek zegitena baino pistola hobe eta prezio egokia-goetan egin, baina batez ere lan-kondizio hobeagoetan, lantegi pribatuetan izan zitezkeen baino langiletza-kondizio erosoagoak edukiaz eta, nola ez, haiek baino irabazpen zuzenago eta merezigarriagoak ukanaz. Hori omen zen funtsean, sozialista bezala, kooperatibagile bezala eta sindikato-langile bezala nahi zutena. Hori omen zen eguneroko borroka: industria kapitalistetan ez zegoen sozial zentzuzko lanbide eta erak lortzea; lehenago esan dudanez, ahal zenik eta justizia gehienez jantzia, baina batez ere kapitala gizonaren morroi bihurturik, ez bestalde.

ALFA aurrera zihoan, baina Toribio gero-ta kezkatuago zetorkigun egiten ari ziren artikuluaz eta, batez ere, merkatu haietan sartzeko behar izaten zen azpijanaren kaxkarkeria ikusirik. Arras minduta, honela mintzatzen zaigu:

Komertzioaren nahaskeria, eta batez ere izkilu komertzioarena; merkatu urruti haietan erabili behar ohi zen ijitokeria, bera konpontzeko sarritan behar izaten zen inmoraltasuna ez zitzaigun interesgarri, ez zitzaigun ere komeni beraz ezer jakiterik. Hori ez zen kooperatibagintza, eta gure bete-beharretatik kanpora zetorkigun.

Ameriketako jendearen salerosgintzak Toribiori irakatsi zionez, honela edesten digute honekin batean ALFAren sortzaile eta langile trebe izanak diren jubilatu batzuek, zera, honela mintzatu ohi zela Toribio: *Etxuatz ikusi amerikana baino naziño korronpiduagorik*. Esan beharra dugu Hego-Amerikaz ari zela batik bat.

Nola nahi dela ere, garbi ikusten da Toribio ez zela guziz pozik, gutiagorik ere, eskutartean zerabiltzen lanarekin.

Baina ez zen horretan gelditzen alfatarren zori-xarra. Vallejo jaunak ziria sartu zien itxura zenez, edo-ta horrek omen zedukan erosle hark atzera jo zuela-ta, pistolagintza serietan antolatua izan ondoren, hilabete guttitan porrot egin-zorian abandonaturik gelditu ziren errebolber gordailu mardula bete beterik zutela.

Vallejo jauna ALFAren *gerente* zelarik, Ameriketako omen zen salerosle-ardura arazotan, eta gaur egun oraindik garbi azaldu nahi ez den zerbait sakon gertatu zelarik, ALFAren haxe erabaki zuen batzarrak: Vallejo jauna kendu eta Toribio jarri *director gerente*. Erabaki eta egin. Toribiok berehalakoan Amerikaruntz atera beharra ukan zuen eta han bertan erabakiaren agiriak Vallejori azalduaz egin omen zuten delako aldaketa.

Horra baina hor, ALFA, jaio berririk eta problemaz josita bere ibil bidean aurrera. Trabak eta eragozpenak ugari, ugazaba kapitalista egoskorrak aurka, baina halare konpetentziaren aurrean pistola errebolberrik hoberena zegiten, bertako langileak Eibarren zen kondiziorik onenetan ziharduten eta gehien irabazten, nahiz eta sarritan sakrifizio handiak egin behar lan-ordu askotan. Orduko langile zaharrek esan didatenez, makina bat aldiz igandean isil-isilik eta izpiritu zabalez lanean ari izan behar ukan zuten...! Ba omen ziren goiz-iztantzeko hirurak arte dirurik kobratu gabe lan egindakoak ere hasierako bide latz haretan. Baina haien ideala eta aurrera jo-nahia handia zen.

Zailtasun eta nekeak anitz izan arren ere, irabazpenak ukan zituen lantegiak, eta, hori bide zela, lantegi-barru eraberritze eta hobetze bat ere, eta kapital erabilkera handiago baten jabetza lortu zen.

Josteko makina

Lehenago ikusi dugu: Toribio Echevarria ez zen pistolagintzaz oso alai. Alde batetik, pistola ez zelako gizonaren sozial bizitzan gai egoki eta dina, eta bestaldetik, pistolagintzari zegokion merkatu urrutia usteldua eta benetan akatsez betea zelako.

Hori zela-ta, beste artikulu hobeago baten bila hasi zen. Bilatu eta aurkitu: *josteko makina*.

Lehendabizi idaz-makinaz eta jostekoaz pentsatu omen zuen.

Baina josteko makinaren etorkizuna garbi samarrago iruditu zitzaien, idazgailua aldamenara utzirik, jostekoari heldu zion. Horretarako, Espainian josteko makinak zer merkatu zuen ere arakatu zuen bederen. SINGER marka zen gailen: urtean 60 mila Singer makina saltzen omen zen Espainian bakarrik, eta zenbatza edo estadistika horrez jabetu bait zen, ez zuen gehiago dudarik jarri eta, besterik gabe, horretan ekin zion.

Alfa-lankide baltzuarentzako aldaketa garrantzitsuena benetan bere ekintza bidean: josteko makina. Izkilugintza, aztura baldin bazen Eibarren —eibartarren esperientzia eta berezgoa horretan bait zetzan—, koperatiba baten saio-aldian ez bide zen, halere, ekoizpen egokiegia, esan dugunez. Toribiori jarraituki, josteko makinagintzaren irudiak gehiago bete zituzten sozial-elkargintza zale haien gogoak. Izan ere, etxekoandrentzako betegarri zitekeen josteko makina egitea, benetan sozial lana zen.

Dударик ez dago Eibarko beste lantegientzat berritasun edo nobedade handia zela hau. Josteko makinaren bidez ALFAk egintzaren ate edo lehia berri bat iriki zuen beste lantegi eta tailerren aurrean. Beraz, ohiturazko izkilugintzatik at zer-nahi egin zezakeela eibartar langileak erakutsi zuen.

Guttienez 1488garren urtetik honuntz eibartarrek harmagintzan ukan zuten aparteko aztura eta trebetasuna, bat-batean horren etxekoi izango zen josteko makina egiten hasiaz, nolana hiko aurrerabide zabala erakutsi zion ALFAk beste zenbait lantegiri. Hau da, *beste zerbait diferente egin dezakegu* esanaz, eibartarra bide berriak urratzen etorri da ordutik gaurdainoko egintzan. Honela dira bizikletak, motozikletak, zenbait tresna ezberdin eta ugari, idaz-makinak, torlojuak, auto-amortiguadorak...

Bai, horrelaxe, G.A.C. (Gárate Anitua y Cía.) lantegia 1925ean harmagintza utzi eta bizikletak egiten hasi zitzaigun. ORBEak berdina egin zuen 1929garrenean.

Dena dela, ez zuen ALFAk bertan behera utzi pistolagintza. Ez,

aitzitik, pistolak egiteari utzi gabe, gero-ta josteko makina gehiago eginaz aurrera jo zuen.

1925eko Otsailaren 4an erabaki zuen ALFAren zuzendaritzak josteko makina egitea. Horrela, 1929. Apirilaren 17an notario-agiri bidez legetzen da makinagintzarako aldaketa.

Hara baina, bien bitartean jo ta ke ziharduten josteko makinak egiten. Nolabait hasi behar eta, inportazioko makina bat eskuratu, guziz askatu eta barruak kanpoan jarriaz, piezarik pieza aztertu eta ikasi zuten josteko tresna horren egitura osoa zer eta zelakoa zen. Horretan ari izan zen langilerik trebeenetakoa Julio Baroja omen genuen; benetan azkarra. Benito Galarraga ordea —Julian Echeverriaren (Eskola Armeriako Zuzendari jauna) ikasle aurreratua— isilean ari izan omen zen planagintzan.

Hasieran, alde batetara bakarrik josten zuen makina egin zuten, eta geroago, denbora aurrera joanaz, alde bitara josten zuena atera ziguten.

Ekintza berri honi esker, gero-ta indartsuago bihurtzen joan zen ALFA. Horrela, 1934an pistola egiteari zeharo utzi zion eta josteko makinari hertsiki heldurik aurrera abiatuaz gaur arte heldu zaigu.

Galdera bat sortzen zaigu: Asko sufritu ahal zuen ALFAk aldaketa ikaragarri horretan?

Jasotako datoek esaten digutenez, ez zen ALFAko langileria-
ren aldetik sufritze handirik izan. Alde batetik trebetasun aparteko langileak genituen, eta zer-nahitan ari izateko esku eta asmamen onekoak zirena garbi ikusi zen. Bestaldetik ez omen zuen, hasieran behintzat, tresna eta makina aldaketa handiegirik egin beharrik ukan, eta, azkenez, ikusi dugu, 1925ean hasi eta batez ere 1927tik 1934 arteko tarte horretan piskanaka piskanaka ohituaz joateko beta eta zoria ukan zuen pistola eta josteko makina elkarrekin batera eginaz.

Zorionean ekin zion ALFAk josteko makinagintzari. 1920

eta 1930 bitartean gorriak ikusi zituen Eibarko harmagintzak. *Sociedad de Naciones Unidas* delako horrek jarririko internazionalmiaketa neurrien gainez, izkilu salketa librea debekatu zen Primo de Rivera-ren garaian. Merkatu urrutiak gelditu zitzaizkion, baina, hauek aduanetako eragozpen ugariz murriztuak.

1932garren Ekainaren 13an izena aldatu zitzaion ALFA, S.A. COOPERATIVA MERCANTIL Y DE PRODUCCION DE ARMAS DE FUEGO lantetxeari, eta SOCIEDAD ANONIMA COOPERATIVA ALFA izango zen aurrerakoan, beste hori arras atzeratua gelditu bait zen.

Diru aldetiko problema benetan garrantza zelarik, 1930. Apirilaren 16an Banco de San Sebastián banketxearekin, eta Adolfo Saenz Alonso jaun legegizona bitarte zela, baitura tratu bat egin behar ukan zuen ALFA lantetxeak.

Halaber, kapitala handitu beharrarekin aurkitu ziren alfatarrak eta, horrela, 1.000.000 (miloe) bat pezeta arte osatu zen, berrogeitamar pezetako 20.000 akziotan banatua alegia. Halere, 1936a heldu zenean, akzio hauen % 65a bakarrik zegoen hitzartua edo suskribitua.

Hemen bai, ALFAren bizi-maila bakoitzean gogoratu beharra dugula Blas Echevarria jauna, Banco de San Sebastián-en Eibarko ordezkari buru. Hamaika isilpeko laguntasun eman zion Toribiori! Blas bera ere aski hestu izango genuen. Alde batetik Banketxe-buru zen, baina bestetik ALFAko Ardura-Batzaren Lehen-dakari-ordeko. Bai bataren eta bai bestearen arteko gora-beherak zuzen samar jakin beharra ukan zuenak agertu didanez, ez omen daki inork nolako barne-egoste jasan zuten gizon bi horiek eta elkarren arteko zenbat isil trakamila konpondu zuten.

1927an hasi eta 1.750 makina egin zituen ALFAk. 1928an 2.465era igo zuen bere egintza, eta 1935ean 12.000 egitera heldua zen.

ALFA zaharra Vista Alegre kalean zegoela agertua dut, baina

josteko makina egin beharra ukan zuenean, gaur egun oraindik dadukagun San Andres kalera aldatu zen. Ordutik honera ALFAk ukan duen handitzeak eta indartzeak ez du, 1936ko gudu garaiazen gelditueneak eraginiko etenak ez-ezik, goraka luze bat baizik ezagutu.

Une horretatik 1936a arte, Toribiok berak esaten digu, bost-sei miloeko kapitalaren erabilkera zerabilen ALFAk, eta langile, saltzaile eta banatzaile artean mila familia baino gehiegoren ekonomia-erantzun zateken.

ALFAren zuzendaritzatik hasi eta azken langilerainoko emana benetan zoragarria omen zen. Esana dugu ere zelako lan-ordu ugariak egin behar ukan zituzten orduko langileek diru guti baino ez irabazteko, hain ondo ez zihoazten aldietan.

Baina josteko makinagintzak, hasieratik bederen, merkatua alda arazi zuenez, amerikarrez zerbaitek ahazturik, Espainia barruan sendo saltzen hasi zen Alfa. Josteko makina salketak ez zedukan Amerikako pistolarekikoak ukan ohi zuen gora-behera bihurrik eta, beraz, askozaz ere trinkoagoa zen artikulu berri honi zegokion salerosketa.

Josteko makinagintza honek lege aldetiko salbuespen abantail berezi bat ere ukan zuen, hau da, bost urte barruan, bere epe-muga edo bentsimenduaren aurretik konpetentzia maltzurrendik salbo izatea. Kontu izan dezagun orduko saltzaile gailen kanpotiko Singer zela ALFA bere aurrean jarri aurretik. Beraz, SINGER eta besteren batek osoki hartua zedukan merkatua zulatu behar zuen ALFAk, bai kalidade aldetik, bai salneurri aldetik, baita zerbitzu on baten bidez.

Hara baina, problema gabedun salerosterik ez omen dagoe-larik, josteko makina salketak ordainketa epe luzeak omen zekarz-kien ondoren, zera, "plazoka" esan ohi dugun salketa era, eta horretarako diru erabiltze handiaren beharrean aurkitu zen ALFA. Baina Eibarko Banco de San Sebastián sukursalaren buru zen

Blas Echevarriari esker, Toribio beti berari "hatzaparka" ibiliaz zerbait arindu ahal ukaiten zuen bere diru zama.

Primo de Rivera diktadura garaian dugu ALFA. Aurrera doa. Primo de Riverak 300 josteko makina eskatu dizkio eskoletarako. Pruduzio gehitzeak diru gehitzea eskatzen du, baina zatikako edo epekako ordainbide luzeak benetan kezkatzen duelarik Toribio, honela esaten du behin: *Horrenbeste diru bihar nebala jakin izan banajuan, hasi be ez nintzuan egingo.*

Primo de Rivera aipatu dugunez gero, honen garaiko gertakizun bat ere ager dezagun: Behin batean, honen "Ministro de Instrucción Pública" zen Juan de Valdance jauna ALFA ikustera etorri zen Eibarrera. Langile batzuk beren sozialismo eta demokrazia izpirituari erantzunaz kalera irten ziren, diktadore baten ministro bat ez zutela onartzen agertuaz. Ez bide zitzaion Toribiori ondo iruditu jokabide hori, eta honela akar egin omen zien kaleratu zirenei: *Bakotzak nahi daben moduan pentsau leikek, baiña taillarraren inferesak ez ditxuk politikan sartzen.*

Eta Errepublika heldu zen, eta Alfa aurrera, gero-ta gehiago indartuz eta gero-ta gehiago handituz: lankai eta tresna berriak erosi, lantetxea hazi, langile berriak hartu, josteko makinagintza ugaritu, eredu berriak sortu. . .

Baina Banco de San Sebastián-en "iturria" ia agortua zedukan ALFAk, eta besteren baten laguntasun beharrean agertu zen. Hori horrela zela-ta, Madrileko Banco Industrial-ari dirubide egipen bat eskatu zitzaion. Honela, Banco de San Sebastiango bere kontu irikian zedukan zorra, epe luze araupetu batetan bihurtzea zen helburu. Izan ere, josteko makina salketa, epe luzeetan ordaintzeko emana zenez, Donostiako banketxeak ez zion ematen bere letrentzako hiru hilabeteko epe-betetzea baizik eta, noski, benetan larri zen Alfaren diru-eragintza ardura.

Hara baina, Madrileko Banco Industrialak ukatu egin omen zion diru laguntza hori. Zergatik ordea? Toribiok berak dioenez,

Errepublika Gobernua alde bakar baten fabore zela inork esan ez zezan. Hain zuzen ere, ALFA elkargoa sozialista zen; Prietok, Toribio CAMPSAn Gobernuaren ordezkari buru jarria zedukan; orduko Ministro de Hacienda zen Jaime Carner jauna ere sozialista zelako eta... , garbi agertzen da zer erreparuk atzera bota zuen diru laguntza hori.

Dena den, luzera jota, benetan onuragarri zetorkion ALFAri ukatze hori. Hogeitamaseiko gudu ondoren hartzekodun edo akreedore handiena Banco de San Sebastian zelarik, banketxe honen esku etorri zen ALFA fabrika. Baina kontu egin dezagun zer gerta zitekeen Banco Industrialak ezer hartzekorik ukan izan balu. Orduan, jakina, banketxe hori Estaduarena izaki, Valladolidera aldatua izan zitekeen, Falangeak bere eskuetan hartu nahirik 1936ko gudu garaian horretarako egin zituen ahaleginak ikusi bait ziren.

Horra ba hor ALFA, handik eta hemendik Donostiako Banketxearen eskuetan dugu.

1936an berrehun bat langile ditu, bost-sei miloeko kapitala eta bere hamasei urteko bizitzan inoiz dibidendurik banatu gabe.

1936ko gudua eta ondorena

Urte horretan ukan genuen gudu zoriak eraginik, ALFA zati handiena Bilboko Deustora aldatu zen eta han jarraitu zuen lanean. Baina josteko makina alde batera utziaz, harmagintzan ari izan zen. Gehien bat fusil fabrikatze, eta hondatuen garbitze eta eraberritze lanean izan genuen.

Bai Valladolidera eta bai Asturiasera ere lantegi atal bana aldatuak izan omen ziren, eta nekeak ugari gudu ondoren Valadolideko lankai eta tresnak berriz eskuratzen.

Gudu garaian ALFAk 1920az geroztik egin zuen dena galdu zuela esan genezake, eta berrien berriz hasi beharra egon zen.

Gudu ondoren, Gobernuak konfiskatu egin zuen ALFA, bere

ateak itxi, eta *koperatiba* horrekin zer gertatuko zenaren beldurra zegoen. Baina, hona hemen, Banco de San Sebastián banketxea agertzen zaigu eta bere diru-hartzekotasun indar guziaz baliatuz, lantetxea lehengo langileen eskuetan jarririk aurrera eraman zuen. Banketxe honek ALFAn sartuak zituen diruen indarrak eraginaz, Valladoliden Falanjeak zedukan Alfako zer pilo guzia berriz Eibarrera ekarri ahal ukan zen, eta Gobernuaren aurrean —konfiskantza jaso araziaz— ALFAren buru bihurturik lehengo langile zaharrei dei egin zien.

Beraz, Banco de San Sebastián-en eskuetan osoki gelditu zen ALFA. Baina lehengo langile denak deitu bait zituen, nolabaiteko elkartasuna bidean jarri ahal ukan zuenez Alfaren egitura berrian, aurrera abia-arazi zuen lantegi hau banketxe horren zuzendaritzak.

Zalantzarik ez dago bazkun kapitalista bilakatzen zaigula gertaera horrekin. Orduantxe MAQUINAS DE COSER ALFA, S.A. izena hartzen du eta honen kapital-jabe handi eta indartsua Banco de San Sebastian dateke. Banketxe honetako gizonak, bertako buru jarririk, Administrazio Kontseilu berria eratzen dute.

Dena dela, halere, langileei akzio-jabe izateko aukera eskaintzen zaie. Izan ere, noski, langileek lehenik zedukaten eskubide hori, eta burutzak horrela onartuaz akzio-jabe berri bidez eratu zuen bere elkarte-lantegia. Horretarako, aski zen lehengo akzio zaharrak berriengatik trukatzeari. Akzio zaharrak berrietan bihurtze honek zerbait istilu atera bazuen ere hasieran, azkenez lehengo ia langile denak berriz Alfaren lanean hasi ziren. Bazirudien akzio zaharrak ematean errenuntzia bailitzan egiten zela eta, hori zela-ta, bat edo beste kanpoan gelditu zen bere burua lehengo baltzukide zahar kontsideratu nahi zuelarik, hau da, lehengo koperagintza era zaharraren izpiritua gordetzen zuen ustetan; akzio zaharrak berriengatik trukatu gabe kalean gelditu zen horrela. Beste guti batzuek, ordea, politikagatik, atzerrian herriratu ezinik. Hauen artean, Toribio Echevarria lehengo ardura-burua bera.

Hor dadukagu, beraz, gudu ondorengo ALFA berriz jaioa. Alde batetik, akzio zaharrak berrituaz, lehengo langilez osatua, eta bestetik banketxeak jarritako diru bidez 3.000.000 pezetako kapitala egina. 1940. Martxoaren 7an, Luis Barrueta notarioaren bidez, MAQUINAS DE COSER ALFA, S.A.ren izatasuna hiru agiri ofizial bidez eratzen da.

Hiru miloeko kapital hau 60.000 akziotan banatzen da. Ize-nezko azkio bakoitza 50 pezetakoa da.

Bigarren urratsa ere garrantzitsua da: Urriaren 28an Banco de San Sebastián-ek ALFA elkargo zaharrari eta berriari egindako prestamoen ordainketaren kondizioak mugatzen dira.

Azkenez, diru egoeraren garbitasunari zegokion "activo" eta "pasivo"aren alde ordaindu beharra izanik, urte bereko Azaroaren 16an, "Sociedad Cooperativa Alfa" elkargo zaharraren ondasunak "Máquinas de Coser Alfa, S.A." berriaren alde jartzen direla agertzen da dagokion eskritura bidez.

Gudu ondoren salketa garai oso ona gertatu zitzaion ALFAri. Guduak etxe asko puskatu bait zuen, josteko makinagintzak inoiz ez bezalako merkatu sendoa aurkitu zuen Espainia barruan. Geroago ordea, munduko Gudu Nagusia zela-ta, SINGER eta beste etxe batzuen konpetentziaren itzala makaldu egin zen. Honela, ALFAri benetan merkatu oparotsua heldu zitzaion, Espainiako gudu aurrean ezagutu ez zuen lakoa alegia.

Garai horren merkatu zabala ikusita eta Toribioren baliotasunaz gogoratzen zelarik, honela mintzatzen omen zen "B.H." bizikleta fabrikaren buruetako Cosme Beistegi jauna: *Hau auje-hau ezagutu baleu Toribiok, San Andres kaletik Ermua-raiñoko fabrikia eginda eukan oiñezkero.*

Harrez gero eten gabeko goraka luzean etorri zaigu ALFA gaur arte: lankai berriak erosi, automatizazioa hobetu, josteko makina egitura gaurkotu eta ugaritu, merkatu berriak bilatu eta eskuratu, egintza gehitu, kapitala handitu, bere salketa ugarien

bidez mundu osoan ezagutarazi, eta, nola ez, langiletza eta tailerrak hazi.

1957. Apirilaren 12an, akzio-jabe batzarrean erabaki zutenez, "E" zeritzan serie berri baten 240.000 akzio gehiago ateratzen da. Akzio hauek —"E" sail edo atalekoak izanik— 60 miloe pezeta osatzen dute, baina "F" saileko beste 10 miloe pezeta gehitzen da oraindik 40.000 akzio bidez. Horrela, 150.000.000 pezetatan bihurtzen da haren jabekideen kapitala.

Gaur egun 350.000.000 pezetakoa du bere jabekideen kapitala (C. Social), eta 435.000.000koa eskuan edo erreserban dukeena.

ALFA lantetxea oso modernoki eratua da. Gaurdaino esku-ratu ahal ukan duen zenbait egintza hoberen bereganatzen saiatu da. Produzioa sailka eragiteko automatika biderik hoberenak sartu ditu bere tailerretan. Ez gaitezke hemen gehiagozko zehazketan sar, luzatu eta luzatu besterik egingo ez ginakeelako.

Alfakoen teknika aurreratuari esker, 1947an josteko lankai industrialala egiten hasten da; Espainia osoan lehenena alegia. Une haretara arte etxeakoa soilki egin du. Bere gertutasuna bide dela, urte berean exportatzen hasten da.

Bere egintza handi eta aurreratuaren eraginez, ALFAk, gaur, 700 josteko makina ateratzen ditu egunoro modelu ezberdinetan: etxekoi makinak, industrialak eta artizanatarakoak.

Inglaterra, Alemania, Chile, Argentina, Brasil, Mexiko, Frantzia, Argelia, Congo... guziz 70 naziotara bidaltzen du. Makina kalidade oneko eta ospe handikoa izatetik at, benetan ongi antolatua da honen salketa bidea.

Baina ez da horretan gelditzen ALFA. Bere merkatua ugaria-goa izan dadin eta bere iraupena benetan sendoa, josteko makinaz gain beste ekintza batzuetan ere sartua da.

Izan ere, josteko makinak herri aurreratueta ukan lezakeen etorkizunaren azterketa sakona eginga bide da zenbait soziolo-

goren aldetik, eta, noski, gaur egungo emakumearen *liberatze* garaietan, josteko makinaren salketa-bidea guttitu egin da, emakumeak ez bait du lanik nahi etxean. Horrela, bere mirabetzat badu etxean zer nahi garbiketa, lehorketa eta gainontzeko gertaketa-tresna automatiko anitz. Jantziei buruz ordea, emakumeak kanpoan eginiko jantziak erosten ditu, neurriz eginak eta “pret à porter” edo nola nahikoak, baina ez du etxean, ahal delarik, lan gehiago ukan nahi.

Arrazoi horiegatik, josteko makinaren salketa-bidea murriztu egin da. Halere, soziologilari horiek egin dituzten araketen bidez, josteko makinaren beste era batetako etorkizun bat ikusten omen dute. Hau da, etxeoandreak zenbat-eta gehiago mekanizatzen duen bere etxea, hainbat eta *ocio* esango genukeen asti-denbora edo atseden-denbora ugariago eskuratzen du. Baina denbora hori zerbaitetan bete behar izango duenez, noski, *hobi* bailitzan edo denbora-pasa alde jantzi eta bestelako josketak egiten ari izango omen da. Horretan bide datza —orain salketak gutitu diren arren— geroago berriz salketa horiek izango omen duten goraka abiatzea.

Beraz, gaur egun beheraka badator ere salketa hori, geroago berriz, agertu ditugun arrazoiengatik goraka joango omen da.

Dena den, ALFAk bere neurriak hartuak ditu, eta josteko makina industrial eta artesanirakoei indar emanaz alde batetik, beste egintza batzuetan ere finkatu nahi du bere aurrera-bidea. Horrela ditu, josteko makinatik at:

- a) Automozio eta lur-lantzeko makina egintza.
- b) Mikrofusiogintza.
- d) Fundizioa bi eratan; nodular eta perlitiko eran.
- e) Nahiz explosioko nahiz elektrika motorrak.
- f) Badu Zarautzen *Muebles Alfa* deritzan erredize edo mueble lantegia.
- g) Berrizen ordea, MAFISA lantegia bitartez, Phillips Screw, S.A.ren torlojugintza.

h) Bere *Serveta Industrial*-ean, Lambretta eta Honda *scooter* eta ziklomotorrak, eta baita ere metalezko erredizeak eta automobilarekiko lan bereziak.

i) Bukatzeko, badu ere *Revestimientos de Poliester ALFA*, S.A. izenarekin, poliesterezko langintza ugaria.

Areago: Mexikon bere beste makina-lantetxe eratxiki edo filiala daduka eta oso osorik berea du.

Garbi ikus dezakegunez, beraz, ez da, ALFA, aintzinako bere josteko makina lanez soilki gelditzekoa, lan ugari eta aterabide ezberdinak eginaz ezaguna izateko baizik mundu osoan.

Fabrika modernu eta handi honek 1.700 inguru lagun mantentzen du Eibarren bertan daduzkan lantegietan. *Serveta Industrial*-aren bidez beste 300 lagun; Zarautzen beste 300; Poliesterezko lantegian 40 lagun; Mafisan 30 eta Mexikon 100 langile. Mundu zabalean zehar ordea, duen hainbat ordezkari-etxetan 3.100 lagun gehiago.

Dagizkien gauzen kalidade eta salneurriak non-nahiko konpetentzia mailan jartzen direlarik, badu ALFAk berebiziko etorkizuna. Geroak esango duenez, aldian aldiko zoriak eta beharrak eraginik, zer-nahi egiteko egokiera hoberenaren jabe da.

ALFAko langileen onurak

Gaur egun ALFAko langileak beste zenbait lantegi eta fabrika kapitalista pribatuetan ez duten hainbateko abantail eta onurak ditu:

Alokairua.—Guti-gora-behera lantegi pribatuetan diren antzekoak. Baina beheko mailetan hangoek baino handiagoa dute; erdikoetan gutiago eta goi mailetan zerbait gutiago bide dute. Gain-sari bereziak ere badituzte.

Akzio-jabetasuna.—Langile eta enpleatu guziak dira akziojabe. Gutien eduki dezakeenak ere 50.000 pezeta ukan behar du.

Beraz, denek dute lantegian, bai tartetasun, bai hitz eta hautamen. Hortik datorkio guzientzako dibidendu banaketa ere.

Ezbeharrean laguntza

- a) *Gaixotza babesa*: Bi bat urteko gaixotza izanez gero, irabazpen osoa jaso ohi du. Seguro Obligatorio delako horretatik eta ALFAk bereziki duen Montepio bidez ere datorkio laguntza-bide hori.
- b) *Kirurji-operazio*: Honetan muga gabeko ordainketa egiten omen dio Montepioak. Bai kontsulta, bai zirujano-lan, baita ere klinikako egonaldiaren gastea, osorik ordaintzen zaio langile gaixoari. Halare, gaixoaren arakate kliniko batetarako, klinikan egiten dukeen gastearen erdia ordaintzen zaio. Baina goi-zirurgia edo teknika aurreratuak behar direnetan, S.O.aren bidetik jo behar du.
- d) *Sendagile espezialistak* etxeakoak daduzka. Kontsulta normalak direnean erdia ordaintzen zaio langileari. Montepioaren aldetiko kirurji eta sendagile arazoetan ez du S.O.ak zer ikusirik.
- e) *Errezetak*: % 50eko jeistea egiten zaio. Baina honetan S.O.E.aren bidez merkeago eskuratzen dituelako sendakaiak, bide honetatik jotzen du jendeak.
- f) *Odontologia*: 6.000 pezetako neurri bateraino % 25a ordaintzen da.
- g) *Puerikultura*: Kongsultorio bat du Montepioak; bi midiku, praktikante bat eta enfermera batek osatzen dute. Hamalau urte artekoentzat da eta guziz dohan gainera.
Midiku eta praktikante hauek etxeetara egiten dituzten ikustaldien ordaintze erdia egiten du gaixoak.

- h) *Sendategiak*: Birika edo bularreko gaitz eta psikiatriko sendategietako gastoak guziz dira ere dohan (hutsean).

Ekonomu-denda: Alfak dadukan ekonomu-dendaren bitartez, beste inongo saltokietan aurki ez daitezkeen salneurri merkeetan saltzen zaie Alfakoei etxerako behar den gehiena. Halare, *auto-servicio* eran antolatua ez denez eta jende asko pilatzen delarik denbora asko galtzen bait da, askok eta askok beste toki batzuetara jotzen omen du.

Irakaskintza: Haurrentzako bere eskola ederra du. Berak ordainduriko 5 maisu eta bost maistra dituelarik, 11 urte arteko 400 neska-mutiko darabiltzi. Ume bakoitzeko 50 pezeta ordaintzen du guraso langileak. Goi-mailetako irakaskintza kanpoan egin behar den arren, badu ALFAk beka bidezko laguntasuna gazteek beren karrerak aurrera eraman ditzaten.

Umeentzako udaldi lekua ere badute Ondarroako Arrigorrrin. Neskatilek hilabete egiten dute, eta beste xanda batetan mutilek beste hilabete. Gaixo samarrik baldin badaude, Errioxako Laguardiara bidaltzen dituzte. Bularreko gaitza dutenentzat ordea, Lezan dute senda-lekua.

Jubilatzean: Langile jubilatuek badute bere diru-babes berezia. Alde batetik Estaduaren bidez legez jarrita dagoena, baina bestetik, horrez gain, Montepioaren bidez jasotzen duten laguntasuna.

Heriotzean: Langile baten heriotzean, bere familiakoei 50.000 pezeta inguru eman ohi zaie. Horretarako 25 pezeta uzten ditu langile bakoitzak diru hori bildu ahal izateko.

Etxe-lorkera: Langilea etxe premian baldin bada, edo-ta dukeena baino hobe batetara aldatu nahi badu, ALFAk diru aurreratzea egiten dio nahi duen etxea eros dezan. Diru aurreratze hori gehien ere 100.000 (ehun mila) pezetakoa bide da eta % 4ren

korritua gaineratzen zaio, bost urteko epe luzeenaren bidez zor hori ahitu dezan.

Koperatibagintza

Atal hauxe da benetan sozial aldetik ALFA zer den azertu nahi badugu, bere "koperatiba" izatasuna ulertzeko behar dukegun intentzio zabala.

Ez dezakegu uka ALFAren sortzaileak koperatiba-gile eta -lari zintzoak zirenik. 1920. urteko gizon haiek sozialismoaren bidez zedukaten gizajustizia eta demokraziaren ikuspegiak, zuzenki eta dudarik gabe *koperatibalan* ekintza batetara bultzarazi zituen.

Noski, garai haretako koperatibak ez zuela, agian, gaurregun emana zaion taxu zehatz eta mugatua. Baina berrogeitahamabi urte alferrik iragan ez direlarik, orduko gizonek zuten izpiritua benetan sozial ekintza ametsez bete zenik ezin uka. Beraz, garai haretarako, eibartar haien elkargoa koperatiba ekintza jatorra genuen.

Gizon talde hura osoki politizatua zateken. Sozialgintza aldetik ez zuten, behar bada, bertako denek, nahi bezalako buru janzkera. Baina ez dut zalantzarik jartzen hauen gidari zebil-tzanek bazekitela zer nahi zuten eta nola egin behar zuten beren helburuak lor zitzaten. Toribio Echevarriak bazekien nora zihoan eta haren zenbait jarraitzailek, hura bezain preparatua ez bazen ere, bazekien harekin bide zuzenean zihoala eta gizon harekin gauza handiak lortzeko bidean abiatua zela. Hauxe da gizon argi, zuzen eta langileen inguru gertatu ohi dena.

Toribioren argitasuna eta zintzotasuna ezaguturik eta horrez gain bere etenik gabeko lana, ondorengoek bazekiten bide onean jarriak zirena.

Sozialismoaren iturrian edaniko urak irakatsi zien beren jo-

kabidea elkargintza zela, baltzuketza; kapitalaren aurrean langileak zuen morrontza puska eta kapitala, nolabait ere gizonaren menpe jarririk, produzio-emantzaren banaketa zentzuzko eta justu batetan eragitea.

Toribiok berak diosku (2): *Gizarteak menpetu egin behar du ekonomia eta bere zerbitzuan jarri.*

Gizon haiek bazekiten zer egin. Arazoa nola egitean zetzan eta horretarako izango zituzten eragozpen eta koskak zela gainditu.

Gizonak lanaren ekoizpen osoarekiko eskubidea du. Baina hori praktikan jartzeko era ezberdinak daudela dakusagu gaur egun; batak era batetara idealizatzen du bere bidea eta besteak beste batetara. Nola nahi dela ere, kapitalista lantegi pribatuengandik at eratutako zenbait lagunaro elkartasun sor liteke, baina batak bestearekiko desberdintasunak ukan ditzake.

Produzio-baltzu edo enpresaren egitura, bere sozial aldetik, goi zuzendaritzan eta arduratzan bederen, lankideen Batzar Nagusi bidez eragina izango da, hau da, Bazkunaren nahimen eta nagusitasunaren erantzun. Hortik, gehienek erabakiz Artezle Batzordea sortuko da. Artezle batzorde hau ekintzaren arau eta jorkabide orokorren eta ejekutibu dateken Zuzendaritza bidez egi-teratzen den goi-jestio atala da. Batzorde honen barruan bertan sortuko da ere azterketa eta goi-antolabide edo arbitraje atal bezala Begiraletza deritzatekeena.

Sozial ikusmira hau zuzen-demokrazi erabakiz eratzen da. Dударik ez, baltzuketza sozial eta ekonomi eskubideen erantzuna izango dela, eta baita ere beren ordezkariak eskatzen dituen eskaeraena.

Baina ez gaitezke ereduak ematen gel. Nahi hainbat dago eta bata bestea baino hobeagoa. Inghaterran Rochdale-ko lehen kooperatiba (1844) haretatik gaur arte anitz ensaiaketa izan dugu mundu zabalean, baina denak guziz berdina izan ez arren, gu-

(2) *La experiencia socialista en España vista desde mi pueblo* (México).

tienez, kooperatiba izan dadin, *ekonomiko-sozial* sistema berri baten egiturari sartu behar genuke haien izatasuna. Ez da, sarri, erraza zein den osoki kooperatiba jatorra eta zein “asoziatibu” hutsean gelditzen dena mugatzea.

Euskal Herriak aintzinatik du elkargintza izpiritua. Hauzolanak, basoen “komunal” elkargoak, alimalia eta pizti arrapaketak, arrantzaleen kofradiak, zenbait “hermandade”...

Gaurko zentzu hestuan, kapitalismoaren gehiegikeriak eragirik, gizarteko sozial justiziaren bila doaz kooperatibak. Produktioaren arabera banatze berdinki bat lortu nahi dute; berarengandik dateken emantzaren banaketa proportzionala izanaz, ekin-tza eta egintza osoa langile denena eta denentzat aukera berdinetan jarriaz. Kooperatibaren nahi nagusia elkarrekilakoa da. Demokrazia du zimendarri, eta baltzukideek kultura aldetik aski jantziak izan beharko dute.

Kooperatibagintza, demokrazia arauz egingo denez, —bestela ez bait litzake kooperatiba—, norbere gobernanzarako lagunik hoberenak hautatuko dira. Hautaketa hau egin ondoren zeharo errespetatua izan beharko du hauen aginteak. Horrela izango du kooperatiba batek, anarkian eta konfidantza gehiegian eror ez dadin, agintzaren bortitza alde batetik eta begirune eta itzal zintzoa bestetik.

Bakoitzaren izatasun eta kultura aldetik ondoen jantziak direnak izango dute aurrerabide eta gora igotzea.

Kooperatibaren ekintza-izpirituak gizonaren alderako abantail ekonomiko huts eta soilarengandik urruti izan behar du. Ekonomi aldea ez dateke garrantzitsuena. Gizona *eragin*, egin, eratu, buruz eta moralez jantzi ere egin behar du kooperatiba ekintzak.

Bestalde, elkargintza batek ekonomiaren *gizatze* eta sozializatze sakona dakar.

Lankide-baltzu hauetako zenbait modu izan daitekeela esan

dut, baina gutienez pondu hauek bete beharko ditu: gizon bakarra oso mugatua denez eta horren kontzientzia izanik, elkarte baten onerako litzakeen sozial eta ekonomiko izate baten alde jarri gure ekintza.

Ekintza oso hau lagun bakoitzak libreki onartuaz, askatasun batean izango da, noski, kooperatiban hartzen diren erabakiak elkarte osoaren on eta probetxurako izango direlarik, edo behar dutenez bederen, kooperatibaren gidatzaileek gaurko gizartea justizia-bide batetan jarri nahirik, sozial eta ekonomiko egitura berri baten egarri izango dute kapitalismotik ahal denik eta urrutien.

Kooperatiba bat ez da langilea dibidenduen edo diru banaketaren egarri izateko. Hori kapitalista mentalidadea litzake. Horregatixe ukan behar du kooperatibagileak sozialtasunean sakan irakatsia. Kooperatibagintzak, langileen heziketa ere aberastu behar du, ez ekonomia aldetiko laguntasuna bakarrik ukan. Kooperatiba jatorra eta justua ez da gelditzen —edo ez du gelditu behar— bere bazkideen ona soilki lortu nahiean, bere ideal barruan mundu osoa kooperatibatzea baizik: denen onurak guzientzat izanik. Beraz kooperatibalariak izpiritu zabala ukan behar du: askatasun, sozial justizia eta elkartasun ikusmira hedatsua.

Ez da, beraz, kooperatiba ekintza, alde ekonomiko hutsean finkaturik izango. Hori ez litzake kooperatiba. Diru aldetiko abantail hutsak burgeskeria, konformismoa eta konsumo-merkatu biziera material hotza besterik ez lekarke. Hori egarri duena, horren bila bakarrik lebilkeena, ez da bere kolko barrenean kapitalista gai bat baizik. Alde gizakoi sendoa beharko du ukan kooperatibagileak. Lanaren kondizioei —pertsonaren dintasuna tarte dela noski— eskari moral eta sozialak dagozkie. Gizona nagusi bait da, kooperatiba ekintza osoa giza-baloreei makurtua gelditzen da.

Lankide-baltzu hauek langileen alderako abagune berdinak

emango dituzte, bai heziketa aldetik, bai lanarenaretik, baita ere osasun eta atsedeen denbora aldetik.

Koperatiba zentzu hestuenek ikusirik, *gizon bat boto bat* esan ohi da. Halere jokabide ezberdinak dagoz honetan. Batzutan lan betekizun baten ardura handiagoa delako-edo, horren arioren autarki handiago edo ugariagoa eman ohi da; edo pertsonaren jakinduria aldetiko bete-behar garrantzitsuagoak hautabide handi eta hedatuagoa eskutarazi dio zenbaiti. Hau guziaz, beti beti, Batzar Nagusiko bazkideek onartzen duten neurrian izango da justiziazkoa, ez bestela. Koperatiba batetan ez dago ugazabarik. Gizon batzuek aginpidea ukanen dute, baina aginpide hori beti bazkide guzien Batzar Nagusitik ateratako borondateari makurtzen zaio larrik.

Koperatiba batetan, baltzukide batek diru gehiagoko kapitala duela-ta, diru-indar horrek eraginiko autarki gehiago eman ohi dio elkargo batzuetan. Baina, badirudi, horrela jokatzean, kapitalista azpildurazko tankera hartzen duela ekintza horren bideak. Sozial justiziaz jantzitako elkargoan ez dago "kapitalistarik", ezta ere diru itzalak emandako indar eta aginpiderik. Aginpidea, indarra eta diruaren edozein kutsuk emaniko ospea beti elkartearen borondate batuaren azpian izango dira. Halere, jakina, koperatibagintza batetan diru gehiago jarrita duenak arriskatu ere gehiago egiten omen du, eta *zer-galdu* horri dagokion neurrian jartzen bide zaio boto eskubidetasun handiago hori. Horrela dakusagu alde batetan eta bestetan: hemen era batetara iritzi izan dute, eta han beste batetara. Bakoitzak bere erara ulertzen eta egosten du elkargintza.

Orain arteko kontsiderazio hauek ikusirik, galde egin dezagun: Zer-nolako koperatiba dugu ALFA, S.A. lantetxea koperatibagintza zentzu aldetik, alegia?

Goazen berriz bere sorkunera.

1920ko "ALFA, S.A. COOPERATIVA MERCANTIL Y DE

PRODUCCION DE ARMAS DE FUEGO” lan-elkartea koperatiba jatorra zen orduko gizonentzat.

Behin baino gehiagotan entzun ukan dugu: *ALFA ez da sekular koperatiba izan, S.A. kapitalista baizik.*

Esan-nahi hestuetara goazelarik, garai haretako giro, gertutasun giza-nahimen eta ahalmenak ere arakatu behar genituzke. Baita ere gizon haiek ukan zuten diruaren aldetiko urritasun gorria; banketxearen besoak ere, premiaren premia, nahi edo nahi ez, beren “sukalderaino” sartu zitzaizkien.

Toribio Echevarria “koperatibista” zen eta bere jarraitzaile izendatuenak ere bai. Dударik ez dago Toribiok-eta nahi zutena *koperatiba* jatorra zela, bere sozial justizia eta ekonomi erabilkera aldetik ere aztertuz. *Baltzukidego barne-ezaguera* eta *banaketa-ezaguera* bazuten, nolabait ere sendo. Baina agian ez horrenbeste zera esango genukeena, alegia, *Ekonomi baloreekiko kapitalizatze ezaguera* eta kontzientzia.

Toribiok garbi agertzen digu demokrazia zabal eta oso baten zale zela, eta izpiritu hori sartu nahi zuela ALFA izatasun barrenean. Ez dezagun, beraz, hori ahaz. Berak diosku (3) akzio ugariak ukaiteak ez duela ematen autarki ugaritasunik, banakoa baizik.

ALFAren elkargo-egitura, “koperatiba” hutsa da pondu askotan, eta zalantzarik ez sortzaileen borondate eta nahimenean osoki sozial justiziaz jantzirikoa zela.

Halare, zergatik zedukan *Sociedad Anónima* eraskina? Zergatik jarri zen ALFA barrenean lan egingo ez zutenen ere dirua, diru-jartzaile horiek akzio-jabe bihurtuz? Zergatik eman ziren *akzioak* eta ez *diru-utzia* koperatiba jator baten gisa? Zergatik ere zuen Banketxeak akzio-jabetza?

Toribio eta honekin burutzan izan zirenak hilak dira eta ezin horiei galdatu. Baina hor dugu nola eratua izan zen ALFA. Sozial ekintza bat, bera eraiki duten gizonen mentalidade eta izpiritu egi-

(3) *La experiencia socialista vista desde mi pueblo (México).*

turaz agertu ohi da eta orduko ALFAren ibil-indarra eta gogoia "koperazio" hutsezko zen: lankidetzaz; denek lan egin eta denen artean denentzat, demokrazia arauz, berdinki banatuaz bai emaitza materialak bai moralak.

Orduko ALFAren problemarik gordinenetarikoena *dirua* zen. ALFA sortu nahi eta nahikoa diru ez. Elkartu ziren langileak oporketa luze eta ikaragarri baten ondoren dirurik gabe. Beraz, nolabait ere hasi egin behar eta, bai langileen artetik, bai zenbait laguntzaile aldetatik lehenbiziko kapitala eskuratu ahal ukan zen.

Dakigunez, kapitala hamar hogereleko akziotan banatua zen, baina akzio horiek % 10en korritua emateko bidean jarriak ziren arren, ez omen zen 1936 arteko ALFAren hamasei urtetako bere ibileran inoiz "dibidendurik" banatu langileen artean, ezta ezin akzio-jaberenean.

Alde batetik, diruaren premia larri ondorenak ALFAren el-kargoari kapitalista usai zerbait eman zezaiokeen, baina ez zen hori, garbi esanda, araka-saio harek berarekin zeraman izpiritua, kidez hutsa baizik: lankidetzaz, baltzukidetzaz.

Bestalde, *Sociedad Anónima* bilkera, aintzina batetan elkargo edo "koperatiba" zentzuzkoa zen, nahiz eta ondoren kapitalista huts etorria izan.

Badago beste arrazoi bat. Ez zegoen, 1920an, koperatibagintzarako legerik. Beraz, ez zitekeen ALFA, lege aldetik behintzat, koperatiba eratu. Koperatiba bidea 1931ko lege batek ireki zuen, eta 1942 urtean lege hura eraberritua izan da. Harrez gero, 1943ko Azaroaren 11n erreglamentatua. Ordudanik dugu zilegi koperatibagintza.

Beraz, legepe, koperatiba taxuz eratu ezin zitekeelarik ALFA, agian, "S.A." eraskina jarri zioten bere sortzaileek, eta akzio bantantzea ere jarri. Horrela ote zen? Arrazoi bat izan daiteke. Baina ez dakigu.

Buka dezadan atal hau. ALFA, behar bada, ez da inoiz kope-

ratiba jator jatorra izan, hau da, gaur egun zenbait alderditan ditugun kooperatiba modernoen taxu eta adiarazpen hestuz eratua, baina orain berrogeitamar urtez joanik begiratzen ari garenez, haren sortzaileak benetan *koperatibalari* eta *koperatibagile* bikainak genituen. Haien izpiritua eta giharra hori zen, ez beste. Gizon haiek ezaguturik, haien ideal-bideak eta nahiak horren ongi ezagutzen ditugularik, ALFA, bere sorkunean kooperatiba gogo hoberen eta jatorrenean eratua izan zela esan dezakegu.

Xehetasun bat: Diru aldetiko larritasuna bazuten arren, ALFA sortuaz batera, Eibarren langileek bataz-beste irabazten zuten eguneroko mailatik 12 pezetaraino jaso zitzairen alfakoei, eta, horrez gain, jarritako lan neurritik gorako ekintzari zegokion gain-sari berezi bat.

Amicia

Gaur egungo MAQUINAS DE COSER ALFA, S.A. aski demokraziz eratua da eta zenbait pondutan kooperatiba jator baten izpirituz moldatua dugu. Halere, non-nahi bezalatsu, bada haserrea, tikimikia, elkar ikus ezina eta diskonformidadea majo. Langile xeheak nagusikeria ugari dela esaten du; aginpidetzan denak, ordea, ez dagoela baltzukideen artean kooperatiba ez kooperazio izpiriturik. Betiko leloa: gizonen arteko zein-nahi erakundetan ezagutu ohi ditugun liferentziak.

Hara baina, nola nahi dela ere, ALFA, S.A. lantetxeak duen egiturak badu gaurregun ere oraindik kooperatiba baten zerbait ezpala eta kutsu edo ondorio: Dirua oso banatua dute langileen artean eta alde honetatik langilea da ALFAren nagusi indartsuena nahiz eta, diru-utzia izan gabe, akzio-jabetzak taxutzen duen arren. Zerbait zehaztasun ikus dezagun alegia:

- a) Langileek kapital osoaren % 78'60 dute akzio bidez banatua; akzio-jaberik handienak 670.000 pezeta ditu ak-

ziotan eta 120 lagun daude maila horretan. Akziojaberik xipienak 65.000 pezeta daduzka eta hauetariko 366 lagun dira neurri horretan direnak. Multzo bi horien tartean daude akziojabe diren beste langile eta enpleatu guziak. Beraz, dirua aski eta zabalki banatua da; akziojabe zaharrenek dute, noski, akziotan diru gehien, baina badirudi ez direla aberatsegi eta horregatik ia esan genezake ez dela akzionista indartsuegirik. Gainera, 670.000 pezeta akziotan 120 lagunek baldin badute eta 65.000 pezeta 366 lagunek, bi horien tartean 1.214 lagun dira oraindik langile eta enpleatu artean. Horrela dute, bada, kapital osoaren % 78'60 langile eta enpleatuek.

- b) Sukursal eta filialen artean, eta jubilatatu, heredatu eta alar-gunen artean banatua den kapitala % 14'25 da, hots, akziotan, noski.
- d) Banco de San Sebastián-ek du gutien, hau da, % 7'15 eta ehuneko honek 25.000.000 pezeta osatzen du.

Gaur, agian, ALFAk horrela erabakiko balu ez luke banketxe horren dirujabetza beharrik. Baina honen itzala nolabaiteko garrantia ere omen da munduko salerostegi luze-zabaletan. Hortik at, ALFAk zor ere zor dio Banketxe horri bere bizi-bide osoan eman dion laguntzagatik.

Bere administrabide aldetiko egitura S.A. kapitalista baten eran eratua baldin bada ere, badu, ezin uka, kooperatiba zentzuzko atalik; badu bai sozial justizia eta demokrazi eskubidetasunik langile eta enpleatuen alderako.

Begira ALFA, S.A. honen organigrama, 148. horr.

Egitamu hori begiz pixka bat joaz batera besteengandik nabarmentzen diren bi atalez jabetzen ginake: a) Akzio-jabeen Batzarre Orokorraz; b) Batzorde Kontsultibuz batez ere.

Akzio-jabeen Batzarre Orokorra.—Soziedade Anonimo guzie-

tan bezala, Batzarre honetan izendatzen da Administrazio Kontseilua. Kontseilu honek urtean behin eman behar dizkio kontuak Batzarrari. Langile eta enpleatu guziak akziojabe bait dira, Batzarre honetan badute bai hitz eta bai boto. S.A. kapitalista hutsetan akzio-jabeak diru jabe direnez, langile eta enpleatuak morroi dirateke. Hara baina, ALFAn langile eta enpleatu guziak dira hain zuzen akzio-jabe. Beraz, Batzarre Orokorrean badute langile eta enpleatuek eskubide eta indarrik sendo. Hitz batean, lantetxe beraren eta jectioaren jabetza ere badute. Honetan nabarmentzen da batik-bat koperatiba batetan langile guziek bai hitz, bai autarki eta bai jabetza duten eran, edo antzera bederen, ALFAn ere justiziaz eta demokrazi arauz nolabait ere eratuak direla.

Batzorde Kontsultibua.—Administrazio Kontseiluaren eta Akziojabeen bitartekotza betetzen du batzorde kontsultibu honek. Izenak berak dioenez ez du ejekutibutasunik. Ez dago batzorde honetan botaziorik. Ohar, botazioa Batzarre Orokorrean bai egon daitekeela. Batzorde kontsultibu honetan aurkezten dira kontseilarien izenak. Legez hala jarrita ez badago ere, langile talde bakoitzak (tekniko, ofizioko langile, langile espezializatu, ardu-rakko) bere kontseilariak ditu Administrazio Kontseiluan. Batzorde honetan, kontseiluak berak baditu bere ordezkioak eta, bestaldetik, langile sailen aldetik osatua da. Kontseiluaren eta langileen artean aukeratzen direla kontseilariok esan genezake. Ikus dezakegunez, batzorde honek duen zereginik garrantzitsuenetariko bat kontseilariak aurkeztea litzake. Beste bat ere, eta oso berezia, akzioak banatzeko direnean nola banatu eta antzekoak erabakitzea.

Urtean zenbait aldiz, Kontseiluak enpresaren arazo guzien berri ematen dio batzorde honi. Eginkizun hau oso garrantzizkoa da, teorian besterik bada ere, praktikan Akziojabeen Batzarre Orokorrak ezin bait du urtean behingo Batzarre batetan Kontseiluaren egitekoa juzgatu. Esan dezagun batzorde hau langileen eta akziojabeen (langile guziok, ikusi dugunez, gehiago edo gutiago akzio-


jabe bait dira) ordetza dela. Batzorde hori botazio bidez eratzen da eta, beraz, demokrazi arauz egina dela ikus dezakegu garbiki.

Horra hor Eibarko *Máquinas de Coser Alfa, S.A.* lantetxearen historia zehatz samar emana. Bakoitzak bere irizpidea jar beza. Baina gauza bat dago garbi: Eibarko herriak eginiko ekintza eta egintza ausarta da ALFA. Herri batek amets egin zuen; herri batek pentsatu; herri horrek berak moldatu, zuzendu eta aurrera jaio-arazi. Ekintza herrikoia dugu, beraz, ALFArekiko ekintza; kooperatiba batez amets eginiko ondorena.

Horregatik dago ALFA lantetxea horren hestu loturik Eibarko herri eta historiari eta hainbeste eta hainbeste eibartarrek bizi-arazi bait dio berari, ez genezake, gaurregun, Eibar Alfa gabe uler. Bertako langile ez garenok ere gure gure dugu kooperatiba nahian galditu zaigun ALFA, S.A.

Aldi hura bizi izan zuen eibartar izpirituak sortu zuen kanta eder baten zati honen bidez bukatzen dut:

“...eiten dira bizikletak,
josteko makinak;
laster egingo dira ere
automobilak.
Bizi bedi Eibarko herria,
zabal zazu aurrera bidia”.



MONDRAGOEKO KOPERATIBA ENTSEGUA

anjel larrainaga

Artikulu hontan, Mondragoeko koperatiba saioaren berri lau bat ematen ahaleginduko gara. Halabeharrez, labur izango gara, horrialde hauek inposatzen duten laburtasunean ahalik eta argien izaten saiatu nahirik.

Aipatu saioa adiaraztean metodologia zerbait erabiltzearren, atal batzu berezten ditugu:

A.—Mondragoeko koperatibismoaren historia.

B.—Gaurko errealidade eta hedapena.

D.—Ideologia eta enpresa estruktura.

E.—Amaia.

Goazen, besterik gabe, entseguren hastapenetara.

A. HISTORIA

Indarren eta medio ekonomikoen mugimendua erakartzen duen giza ekintza orotan, esperentziak irakasten digunez, beti aurkitu ohi da eragile bat. Eskuartean darabilgun ekintza honek,

koperatibismo honek, ere ukan zuen adore-gizon bat: A. Arizmendiarrieta, alegia.

1941.ean heltzen da Mondragoera. Garai hartan, gerla ostea, erabateko ideial gabezia nabari zen, gerlak erakarritako *shock*-ak alienatuak aurkitzen ziren herritarrak. Urte berean, A. Arizmendi *Unión Cerrajera*, S.A.-ko Ikasle Eskolan sartzen da irakasle bezala; eta gazte talde bat sortzen hasten da, HOACen barruan, gerorako sozialki gertatzen diharduelarik.

Lehen abiada honek bigarren urratsera darama berehala: 1943.ean *Mondragoeko Eskola Profesionala* sortuko da, herri osoari irekia eta bertako "Acción Católica"ren bazter-ekintza bezala. Azkenik, 1948.an, *Hezibidearen eta Kulturaren Liga* eraikitzen da, elkarte independente eta dretxo osoko bezala.

Eskola Profesionalaren eraikuntza azpimarkatu dugu, mugimendu giziaren sorburu eta labe delakotz: eskola hontatik irtenak dira enpresa berrien sortzaileak, eskola hontatik zabaltzen ziren sortzen joan diren antolamendu sozialen muina izango ziren ideiak.

Kronologikoki, lehenik eraikitzen den koperatiba ULGOR da. 1955.ean eratzen da, Gasteizen, "Sociedad Anónima" gisa; guti barru, 1956.ean, Mondragoera aldatzen da, hemen poliki-poliki estrukturakera berezi bat —zenbait elementu koperatiburekin— ematen zaiolarik. Azkenik, 1959.an, Lanaren Ministerioak haren Araudia afrogatzen du eta Koperatiba Elkarte Industrialia bilakatzen da.

1959.ean gaude, eta Mondragoen, ULGOREz gainera, beste koperatiba bat hasten da lanean, ARRASATE, gaiari buruz jadanik eginik dauden istudio eta ekinbideez baliaturik. Tenore hontan, baita, Elorrioko FUNCOREkin harremanetan jartzen dira, eta gerorako determinatzaile izango den akordio bat onartzen da, hots: *Lankideen Kutxa Herrikoia* sortzekoa.

Zertarako moldatzen da *Lankideen Kutxa*? Hasiera batetan, koperatibetako partaideen gaixotasun eta zahartzaro-sariaren pro-

blemaren soluzio-bide bezala. Hasieratik beretik, pertsonalidade berezi eta zehatz batekiko multzo gisa sortzen da. Koperatiba honek, hastean, erabiltzen zituen koantidadeak hain ziren ohargarriak, non kredituez eta beste finantza laguntzez lagundu ahal ukan bait ziren partaide ziren koperatibei. Berehala, Aurrezki Kutxa ohizko baten antzera jardutean, posibletasunak hainbateraino gehitu dira, gaur gero esan bait daiteke kapitala ez dela oinarrizko eragozpenik inguruko koperatiben eraikuntza eta funtzionamendurako.

Une hontatik aurrera, *Langileen Kutxa*-k mugimendua hedatu beharraren kontzientzia sortzen du bere zuzendariengan; hortarako zerbitzu berri bat sortzen du bere baitan: Enpresa-Atala, koperatiba berrien zirikatze eta aholkatze xede bakarrarekin.

Pondu hontan gehiago luzatu gabe, eta mugimendu honen eboluzioaren hastapenak arakatu ondoren, ikus dezagun.

B. EGUNGO ERREALIDADE ETA HEDAPENA

1971. urtearen azkeneko datu ofizialak jakin-iturri ditugula, gure koperatibismo honen antzeko ideologia duten eta *Langileen Kutxa*-ri atxikiak dauden koperatiben imitazio bat egin dezagun.

koperatibak	zenbatekoa	partaideak
INDUSTRIALAK	47	9.335
—fundizio eta forja	4	930
—ekipo ondasunak	10	1.590
—tarteko ondasunak	16	2.546
—luzaroko kontsumo ondasunak	8	3.345
—etxegintza	5	757
—beste	4	167
KONTSUMOKOAK (EROSKI)	1	16.841
NEKAZARITZAKOAK	4	1.491

COPESCA (Arraintzako 14 kop.)	1	187
ZERBITZUAK	2	138
<i>GUZIRA</i>	55	27.992

Lauki hontan koperatibak eta partaideak ikusi ditugu; partaide bakoitzak ez darama berekin nahi-ta-ez lantokirik, zerbitzuko eta kontsumoko koperatibak ere tartean bait daude. Hori dela-ta, motz geratuko ginake esposizio hontan, baldin sortu diren lantokiak aipatzeko uzten baditugu: ikus dezagun, bada, azken urteotako eboluzioa numerotan emana:

urtea	lantokiak
1965	3.395
1966	4.202
1967	5.082
1968	6.418
1969	7.400
1970	8.053
1971	9.335

Zehatzago mintzatuaz, eta *Langile Kutxa*-ri dagokionez, azken (1971-XII-31) garbiketa ofizialeko datuak ematen ditugu jarraian:

Urteko ahorro garbia	1.461.992.751
Ahorratzaileen zenbakia	108.502
Bulegoen zenbakia	54
Negoiazioaren tamainia	95.679.063.797
Ahorro osoa (guti gora behera) . . .	5.000.000.000

Gain begiratu honek zera adiarazten digu printzipioz, hots: Gipuzkoako langileriaren % 10 guti gora behera koperatibista dela (koperatiban lan egiten duela) eta, bestalde, kontutan edukitzeak diren medio batzu lortu direla.

Irakurlea xifrez gehiago ez nahastearren, noan hurrengo atalera.

D. IDEOLOGIA

Mondragoeko saioari "koperatibu" baderizkiogu, eta baderitzaio, ez da printzipioz esan nahi prezeski koperatiba tradizionalen kontzeptuen baitan sartzen dugunik.

Gure esperentziak hau bakarrik nahi du izan: baliagarria, alor sozial nahiz ekonomikoan; zeren —esanak esan— enpresa bezala gailentzen ez den enpresa batek deus guti egin bait dezake gizagintza alorrean.

Hona produzioaren eragilerik oinarrizkoenei eta gure saioaren baitako honen kontzeptuatzeari buruzko gogapen zenbait:

KAPITALA: printzipioz eta bortizki, dretxo sozial oro ukatzen zaio; legezko interesaren ordainketa bakarrik ukanen du. Sobera- eta pilatu-lantzat (honela dio Araudiak) kontzeptuatzten da.

Kapitalaren alderdi ekonomikoari so —kapital sozialari alegia—, partaideek damatenarekin osatzen da; partaideok, partaide izateagatik beragatik, lantokiaren kostoaren parte bat ordaindu behar dute. Gainera, eta enpresaren bizitza ekonomikoa zehar, banakako egintza batetan banatu gabe ondasun soziala (autofinantziaketa) sendotzera iragaiten diren onurei esker gehitzen joango da kapitala.

LANA: koperatibaren giltzarria da hau. Gizonak, gizon bezala osa dadin, eta desarroilo soziala bere neurrian eragin dezan, duen bidea da lana; beraz, dretxo bat da, baina baita eginkizun eta erantzukizun bat ere.


Hortarako, lana beti dintasunez egin dadin, elkarlotua eta diziplinatua izan dadin saiatu behar du koperatibak; izan ere efikazia, beti kontutan eduki behar den hautakuntza naturalaren lege bat bait da, utopiatan nahiz mitotan erortzeko arriskutik libratzekotan behintzat. Tesi honen baieztapen ofiziala Araudi Sozialaren lehen hiru artikuluetan aurkitzen da.

Partaideek eginiko lan honek, salmenten emaitzen banaketa

garaian (teorikoki exerzizioaren bukaeran egin behar litzakeena) hartzen du bere ordaina. Bi sumagarrik osatzen dute ordainketa ekonomiko hau: langile-aurrerapena, bakoitzaren ohizko presu-postuaren eskakizun bazterrezinei dagokiena eta printzipioz inguruko (hauzoko) bataz-besteko alokairu mailaren arabera taxutua; hitz gutitan, batez ere kontsumora zuzentzen den lanetiko irabazia da. Hau "Retorno koperatibu" delakoaz osatzen da: irabazi garbi banagarriek baldintzapetzen dute honen neurria eta aurrerapenaren proportzioz izan ohi da haren koantidadea; exerzizio ekonomikoaren bukaeran egin ohi da banaketa hau; aurrerapena, berriz, hamabostoro nahiz hilorro banatu ohi da. Koperatibistak bere enpresa zeregina betetzearen regularki inbertsiorako ematen duen irabaziaren parte da "retorno"a.

Honela lanaren ordainketa koefizientetan ezartzen da, hauen aldagarritasunik handienak 1etik 3rako aldea admetitzen duelarik.

Lanaren eta kapitalaren koperatiba baitako zeregina ikusi ondoren, hona Araudian aurkitzen diren ideologia aldetiko beste ideiak: *libertatea* (erlijioari eta politikari buruz), inolako argitasunik behar ez duena noski, eta *demokrazia*, "gizon bat boto bat" den aldetik, jarririko kapitala haintzat hartzeke; garrantzi handikoa da alderdi hau, organu agintariak bozketa zuzenez hautatzen direnaz ohartzen bagara.



Lauki honen aurrean, "Sociedad Anónima" batenarekin gonbaratzen bada, desberdintasun nabaririk aurkitzen da, ez hainbat organuen hautaketari buruz, izaera kooperatibuak hauei inposatzen dizkien zeregin eta berezgarriei buruz baino.

Haatik, oinarrizko taxuerari begiratzen badiogu, ohartuko gara —izatez eta *funtzionaltasunaren* ikusponduetik— ezberdintasun handirik ez dagoenaz aurreko eskema honen eta aipa geneza-keen "Sociedad Anónima" batenaren artean.

BILTZARRE NAGUSIA: dudarik gabe, honen eta S.A. baten taxuera aski desberdinak dira. Hemen, biltzen eta bozematzen duten pertsona batzu badira, ez dute hori dadukaten kapital zatiaren eskumenez egiten, baizik lan bat egiten dutelako soilik. Honen ahalmenak S.A. batetakoak bezain agintetsuak dira, baina kooperatiban personok enpresari askoz lotuagoak daude, barrutik ezagutzen bait dute, honen jabe izan eta bertan lan egiten dutelarik.

Urtean behin elkartzen den organu honen jarduketa norma-lean ez da orain arte larrialdi berezirik azaldu.

ZAINZAILA KONTSEILUA: organu hau legeri kooperatibuak inposatzen du; eragiletasun urria du jeneralean, nahiz-eta onuragarriago egiten duten konponketa eta bitartekotza zereginak ematen zaizkion; orain arte, ordea, ez dirudi honen eskuhartzea beharrezko izan denik.

BILTZARRE AGINTARIA: organu bereziki kooperatibua da hau, Biltzarre Nagusiko ordezkariak efektibu eta pertsonal bat berekin duelarik. S.A. batetako Administrazio Kontseiluaren antzeko zereginak ditu nolabait ere; baina harenak baino hedadura handiagoko besterik ere badu, honengan elkartzen bait dira kooperatiba - enpresa izaki biak.

ZUZENDARITZA KONTSEILUA: organu arras enpresariala da, kooperatibu gisako hainbat osagarririk ez bait da aurkitzen hemen. S.A. baitako Administrazio Kontseilua aurkitzen dugu hemen kontraespilatua, neurri batetan noski, askoz argiago. Goi

mailako ejekutibuen biltzarrea da, nahiz-eta organu STAFF bat ere izan, bere eremutzat enpresa duelarik, honen produzio-, komertzio-, ekonomia- eta finantziaketa-arduren ekintza alderditan (entidadearen politika enpresariala bategiten duelarik), joera nagusiak Biltzarre Agintariak baitetsi behar baditu ere.

KONTSEILU SOZIALA: langileen ordezkari organu bat da, ez hauen koperatzaile partaidegoagatik, langiletzagatik baizik. Enpresa kapitalistetan "Jurado de Empresa" datekeenaren pareko da neurri batetan. Egia da, ez duela juridikoki harek ainako ahalmenik, baita haren kontzezioa gaintitzen duela ere, ordea: errepresentatibua izatez gainera (hots, 20 langileko kontseilari bat hautatzen da), pertsonal politikaren alderdi oinarrizkoak jasotzen ditu eta langileek langile bezala dituzten problemei aurremateko eta erantzuteko gailu eraginkor baten zerbitzua ari da egiten. Pertsona bat berarengan aurkitzen den bikoiztasuna (hots, partaide koperatzaile, batetik, eta enpresan langile-egitekoa betetzen diharduena, bestetik) argitzeko ikusbide egoki bat da hau.

JERENTZIA: elkarte batek osaturiko organu bat da egun, derrihor horrela izan beharrik ez badu ere. Kontseilari-delegatuak —Biltzarre Agintaria ordezkatzan du hemen— eta jite ejekutibuko eginkizunetan jerente bakoitzaren ekintzak, bakoitzaren espezialidade alorrean, dute azken hitza, hots: teknika eta produzio alorretan fabrikazio jerenteak, eta administratibu-komertzialean administrazio jerenteak.

ZUZENDARIAK: gure laukian ez ditugu denak aipatu, berezien batzu baizik, hierarkia mailez ohar gaitezen. Sistimaren baitan axola handiko atalak dira eta, Zuzendaritza Kontseiluko bazkide direlarik, leku gailena dute entidatean.

Organurik behinenei eman begirada hontan, nahiko garbi geratu da gure enpresa industrialen erakunde antolamendua.

E. AMAIA

Hitz batetan: on ala txar da kooperatiba? Langilearen askatzerik erakartzen ahal du? Gerorako soluzia ote? Gure erantzuna:

Lehenik: gaur arte erabat egingarri azaldu da bere produzio-, ekonomia- eta sozial-alderdi orotan.

Bigarrenik: kanpai joka hasteke, hamar urtetan lorturiko hazkunde eta desarroilo mailari suspergarri derizkiogu.

Hirugarrenik: utopiak eta enpresa teorikoak alde batetara utziaz, praktikan eta errealidade bezala, sasoi hontararte zertu gabeko egiztapen eta jestio jardunbide eta kondizio sozial zenbait erakarri du.

Bestalde, eta egiari men, hau ere aitortu beharra dugu: alegia, giza egintza orok hutsegite handiak ukan ohi dituela eta, logikoki, hutsegiteok askoz ere atzemangarri eta somagarriagoak direla kooperatiban. Bere gizonak izan dadin nahi dutena izango da kooperatiba, zeren —bere buruari izen hau eman arren— planteatu dugun xede sozial honengandik, hots, lanaren gizatiartzea eta jestioaren erantzukizuneko partehartzetik gertuago edo urrunago aurki bait daiteke.

Bestela esan: gure saioa egiten ari da uneoro; dinamika hau da, hain zuzen, ene ustez, berezgarri sakonena, eta herriak egoera zehatz bakoitzean behar duenaren arabera antolatuko da. “Kooperatiba reboluziora doa, sozialismora doa, edo kapitalismora doa” baieztatzen nahiz galdetzen denean, irrifarra beste irtenbiderik ez dagoke askotan; kooperatiba, bertako gizonak gidatzen duten lekura bakarrik joango bait da. Eta baldin gizonarengan konfiantzarik badugu, gizon hau aipaturiko premisa eta ideien inguruan elkartzen denean —honen desarroiloa galerazten duten bide herstuetatik at— zergatik ez dugu kooperatibagan konfiantzarik ukanen?

koperatiba nora

KOPERATIBISMOA, ZERTARAKO...?

koldo gorostiaga

Ezin uka kooperatibismoak, urte gutiren buruan, berebiziko gorakada ukan duela Euskal Herrian.

Euskal kooperatibismoa, txit berria delarik ere, duela hamarrurteko bat inork pentsa zezakeen baino bortitzagoa da jadanik. Bortiztasun hau dela-ta, gure herriak egun dituen arazoetan koperagintzak ezinbesteko garrantzia du.

Ikus dezagun kooperagintzako eginkizun honek gure Herrian oraingoan eta etorkizun hurbilenean duen eragin kartsua. Beharrezko zaigu honetarako bidean topatu ditugun gertaera zenbaitengandik nolabait urruntzea, hots, beren analisirako egoki daitekeen ikuspegia eman dezaigun gutieneko astrazio bat egitea.

1.—KOPERAGINTZA IDEOLOGIA BEZALA

Aldez aurretik, askotan gogoan hartu ohi ez den baina, aurrerago ikusiko dugunerako, garrantzi berezia duen zera batez ohartu behar dugu. Esan nahi dut: Kooperatibismoan badagoela bi alderdi berezgarri, alderdi ekonomikoa, eta alderdi ideologikoa, alegia.

Sarri askotan koperatibismoaren alderdi bat ezagutzen da soilki: aberasbiderako formula egoki den koperagintza bezala, alegia, ekonomiaren zernahi sailetan aplikagarria eta ondorio praktikotxo onuratsu eta txito bikain batzu dituen.

Haatik, koperagintzak, bizi-arau eta gizarte erakundearen eredu bezala, moral-aspirazio eta balio batzu barnehartzen ditu eta alde hontatik ia guziz ezezagun da, baita koperatibekin harremanik duenarentzat ere sarritan.

Alabaina, koperatibismo mugimenduaren —bere forma idealean har— xederik nagusiena, ondorio ekonomiko batzuen lortzea baino areago, zerau da: bere baitako kideen heziketa bat, gizarte erakundearen giza kondizioarekin adosago legokeen bizi sistema bateruntz eraberritze bat sorrarazteko, prozesu bedakor eta bilkor baten bidez.

Egun, gizadiari planteatzen zaizkion arazorik zailenak —hala nola: desarmagintza eta bakea; inperialismoaren desegite eta herrien askatasuna; nazioarteko lankidegoa; herri atzeratuei laguntza; gose, analfabetismo eta gaisotasunen aurkako borroka; giza *hábitat*-aren defentsa; giza eskubide besterakaitzen garantia; elkartzeko, norbere iritzien adiarazteko deretxoa, etab.— arazo denok, koperatiba ideologiaren iritzitan, erantzunik egokiena koperatibazko formularen aurkitzen dute.

Koperagintza, beraz, teknika ekonomiko bat soilik ez, baizik eta ideologia bat ere bada, erakutsi sakonekoa. Honegatixe zaigu axola guri formula horren eragipenak gure herrian ukan duen ondorioa. Alabaina, eragipenaren ondorenak neurtzean sortzen da problema, hain zuzen ere.

2.—KOPERATIBISMOA NOLA BALIAZTATU?

Koperatibismoa baliaztatzerako goazela, zernahitan bezalatsu, bi galdera sor dakizkiguke: zein aurre eskema har genezake

koperagintzaren aurrean? Zein da hemen erabil genezakeen balio hierarkia?

Guk, ordea, galdera hauei ez diegu zuzenean erantzunik emanen, analisiaren ondorioa abiapontuek determinatua izan ez dadin; alderantziz, aurre-jarrera batentzat lekurik geratuko ez den maila batetan ezarriko dugu arazoa.

Horretarako, aski da kooperatibismoa politika arloan ematen den zenbait erantzun-eredu desberdinen aurrean ipintzea; gonbaraketa baten bidez ikusiko ahal dugu erantzun-eredu horietarik zeinetan duen leku egokia koperagintzak. Adibidez:

Estadu jakin batetan gertakizun politiko-sozial batekiko eman daitezkeen erantzun-eredu desberdinak hauk lirake:

A.—Egitura politiko-sozialen funtsezko onarpena; aldaketarik onartzekotan, sistema oinarrian arriskatzan ez duten haiek zuzenesten dira soilik, eta bera finka dezakeen eginbide oro onartzen.

B.—Egitura politiko-sozialak *de facto* onartzen dira, baina aukeran jarriez gero ukatu egingo lirake; eta beraz, egitura politiko-sozial horiek beste batzuek trukatzeko bide posible oro hartzen da, sistemarekin zuzeneko buru-joka aparte.

D.—Egitura politiko-sozialak erabat baztertzen dira, ahalik eta lasterreko aldaketa politiko-sozialera zuzentzen den egitarau oro babestuaz, sistemaren aurka zuzenki joan gabe aldaketa soziala lor dezaketen indarrak gogortu ditzaketen egitarauak barne.

Hiru joera-eredu hauk lengoia politikoan kontserbakor, erreformazale eta iraultzaile deritzaienei dagozkie.

3.—HAUTAPEN POLITIKOA

Inoiz, kooperatibismoa aipaturiko hautapen politikoetarik edozeini lotua ager daiteke, baina beti ere salbuespen bat litzake berau, normala ez.

Garaiotan, egitura sozial kapitalistadunak diren mendebaldeko herrietan, kooperatibazko teoria eta praktika B moldeari, hots, erreformazaletasunari, egokitzen zaizkio funtsean. Eta mendebaldeko joera honen baitan Espainiako Estatuak zenbait bezezitasun eskaintzen du; ez da esan nahi, ordea, arazo honetan salbuespen bat denik.

Izan ere, gure artean ematen den kooperatibismoa lehen seinatu ditugunetatik B moldeari osoki jarraitzen zaio: Onartu *de facto* onartzen da gure herrian dadukagun *statu quo* politiko soziala, baina hala ere gizarte demokratikoago eta bidezkoago bat lortzean daduka jarria bere ardura. Ahal duelarik, A jarrera moldekoekin buruz-buruko oldartzapen bat sahestu egiten du eta, berdin, D jarrera-moldean integratzea ere.

Alabaina, guk ezagutzen dugun koperagintzak, printzipio mailan bederen, egungo sistema politiko-soziala sostengatzen duten balioak berez ukatzen dituzten egiturak aldatzeko eginahalak egiten ditu: gizarte agintezale, utilitarista eta pribilejiozale baten aurka, printzipio demokratiko, moral eta berdinzaleek gidaturiko gizarte bat lortu nahiaz.

Koperatiba ekintzak, horregatik, ekonomiazko erakunde batzu sortzean du bere ardurarik nagusia, gero arian arian erakunde horiek Herriaren premia sail oro bere baitan hartzen joan dadin, marigora baten antzo (abeltzaingo, nekazalgo, industri, arraintza, kreditua, heziketa, kontsumua, etab. . .). Gaurgero esan dezakegu (han-hemen txit bakan diren arraintza eta ikastola koperatibak salbu), beste koperatiba motak Euskal Herri guzian ondo zabaldurik daudela, toki guzietan garrantzi berdina ez badute ere.

Beraz, koperagintzaren printzipioak gure herriaren luze-zabalean hedaturik daude. Ikusagun, bada, zein puntu zehatzetan hezur-mamitzen den beraiek degiten egitura sozialen erreforma.

4.—KOPERAGINTZAREN EKINTZA BERRITZAILEA

Koperatiba ekintzaren azterketatik ateratzen den lehen alderdi garrantziduna koperatiba orok berez dakarren *ondasun sortzea* da.

Nonahi koperatiba bat sortzen delarik, badirudi bertan hura gabe sekula sortuko ez litzakeen ondasun multzoa sortzen dela hamaika aldiz. Hau ezin argiago ikusten da koperatiben inbertsioak, irabazpen ekonomiko bat lortzeko gabe, eta horrek eragin gabe, beste behar bat betetzeko egiten diren kasuetan, hau da: enplegu-, aberasbide naturalen probetxamendu-, bizitegi- etab.-beharrek eraginik.

Koperagintzak sortzen duen ondasunak zuzen zuzenean du eragina koperatiba elkargoa osatzen duten kideengan —hau herritarrak ohi dira gehienbatean— eta koperatiba lekutua dagoen herrian ere bai zeharka; bigarren eragin hau, nahi eta ez, koperatibaren eta herriaren handitasunak determinatzen du, jakina.

Horrezaz gainera, ordea, koperatibazko ekintzaren bidez ez litzake zuzenean helburu ekonomiko bezala ipintzen diren behar haiek asetzea bakarrik lortuko (hau da, bizitegi, industriazko produktu kontsumuaren objektu, etab. beharak asetzea) baizik eta ondasun sortzearen bidez behar hauk aseztu gero, koperatibazko ideologiak ezarri dituen helburuak lortzeko oinarria ere jarria legoke.

Lehen esanik dugun bezala, koperatibari ez zaio aski enpresa ekonomiko izatea soilik, baizik eta giza aurrerapidezko xede batzu lortu nahi ditu. Logika maila batetan mintzatuz, ekonomi-ekintza hori bide bat da, azken helbururako xede bat, hau da, gizarte zuzenago bat sortzeko, *bide bat besterik ez dela* esango genuke. Zentzu hontan, koperatibazko enpresa orok sortzen duen oinarri ekonomikoa koperagintza bidez edukazio-programa oso bat aurre-eramateko *egokiera bat* baino ez litzake izango. Honela, kope-

ratibaren elkargozko egiturak printzipio demokratikoen praktikatzea erraztuko luke, zeren eta egitura hori elkartekideen interesen oihartzuna izango bait litzake, organu desberdinen bitartez (elkartek berak hautatuak izanik hauk ere).

Demokrazia maila honek beronek ere, hots, buruzagiak azpikoek hautatuak izateak, besterik gabe, aski kontrasterik suposatzen du enpresa hauk lekukurik dauden ingurumen sozio-politikoarekiko. Baina jokaera demokratiko honen ondoan koperagintzak giza heziera eginkizun handi bat ere bete dezake, bere baitako kideen artean lehenik, herriko biztanleen artean gero; heziera hau giza aurreragailu nahiz politikarako lehen urrats izan daiteke.

Maila hontan, heziera mailan, egin dezake koperagintzak indarrik handiena gizarte egituren erreforma aurrera eramateko: koperatibazko ekintza haztenago eta populazioaren ahalik maila gehienak gogaera (*mentalidad*) berritzeko posibletasunak handitzenago. Gogo berritze honen mamia zera da, bizirik dirauten egitura sozialen erreformatarako ideologia bat finkatzea. Erreforma hau *egitura horien beroien etengabeko eboluzioan* oinarritzen da; honetara, mentalizazio hori, besterik gabe, erreformatasun handi bat eragiten lihoake.

5.—INDAR POLITIKOEN JOKOA

Oro har, esan daiteke gaur egun Euskal Herrian koperagintza eragin erreformista horren desarrollo eta hedapen bete betearen etapan aurkitzen dela, haren ekintza arloa aski zabala bait da eragin hori enpresa mugetatik at, herriko biziera orotan ere nabari dadin.

Zenbait milaka gizonen eguneroko praxia, (Herritar klasetarikoak gehienbat —nahiz eta Peninsulako beste alderdietatik etorririkoak guti izan— egungo egitura-berritzeko joerarekin bat da-

tozenak) eta praxi horren ondorio politiko sozialak ezin dakizkieke beste jarrera-molde A atzerazale eta D iraultzaile bi horiei ohar-kabe iragan, eta A eta D ohartu ere ongi ohartu dira, beren politikazko ardurak kooperatibismoak diharduen arlo berean bait dituzte.

Zeintzuk lirake, orduan, A eta D jarrera-molde hauek kooperatibismoarekiko segurutik hartuko lituzketen jokabideak?

A jarrera-moldeak, kontserbakorrak, egungo "statu quo" politiko-sozialak funtsezko aldakuntzarik sofritu ez dezan lehiatzen denak eta haiek indargogortzen dituen berrikuntzari baizik atxikitzen ez zaionak ez du, printzipioz, koperagintzaren haziera begi onez ikusten, bai bait daki jakin haren lehiak "statu quo" hori ekintza erreformatzaile bidez gainditzera zuzentzen direna. Alabaina B jarrera-moldea erreformazalearen antzera, ez zaio zuzenki A jarrera-molde kontserbakorrari oldartzen, berau ere hari oldartzen ez zaion era berean.

Kontserbakorrek badakite erreformismoak —kooperatibismoak, beraz— helburu desberdinak dituen arren, egungo "statu quo" delakoaren jarraitasunari lagundu dezaiokeena: koperagintza-klasa herritarrengan mamitzen eta hazten da, definizioz, bere politika aurrera eramateko D jarrera-molde iraultzaileari funtsezko zaion giza elementuan, hain zuzen. Era hontara, kooperatibismoak bereganatzen duen pertsona multzoa ugaritzen den heinean hazten da iraultza jarreraren indargetasuna ere eta, D jarrera-molde hau A jarrera-moldearen berezko eta elkatu ezineko etsaia denez gero, azkeneko hau, funtsean, bere ahuleziarekin indarberriturik ateratzen da.

Hontara, zeharka bada ere, koperagintzaren goraldiak kontserbakorrei mesede egiten die.

Kooperatibaren haziera horrek, ekintza erreformatzaile orokar baten bidez, egunen batean sozial aldakuntzan erabateko eraginik ukaiteko dukeen posibletasuna saihesten saiatuko da, arrisku bat

bezala. A jarrera-moldea, kooperatiba desarroilo hori kontrol hertsia baten pean gordez, kooperatibismoak bere erreformismoa dela kausa, gogo txarrez beda ere, onartzen duen legeriaren bidez batik bat.

A jarrera-moldea, bestalde, kooperatibismoarekin zerbait jasanez baina gehiago ere bada; ekonomiaren sail heri-zahar haietan edo egonezin soziala baretuko duten erabakiak ezinbestean eskatzen dituzten zenbait beharren premitasuneko alderdi haietan kooperatiba berriak pizkortu eta sortzeko erraztasunik eta ahalmenik ere badu.

Honela sistemaren hutsegirik nabarmenenak eta izka-mizka gordineneko puntuak kooperagintzaren bidez emetu daitezke, kapitalismoaren karraskek sortaraziriko sozial nahaspilen kolpeak biguntzen dituen biguingarri baten gisan jokatuz. Honekin Boteak eskuratzen duen blokearen pitzadurarik arriskutsuenak beteak izan daitezke, era hontara kooperagintza egituren sendotzapenerako elementu guziz baliotsu bat bilakatzen delarik.

Honekin, bidenabar, D jarrera-moldea nabariki indargetuko litzake, iraultzaleek, jakina denez, sistemaren hutsegiri eta gizarte barneko etenbehar edo tentsioez ondo baliatzen bait dira beren iraultza borroka arik eta gehiago finkatzeko, kontserbakorren bizkarrean zartada gogorra ezarriaz.

Ondorioka, eta konklusiobidez, badirudi A jarrera-moldearentzat B jarrera-moldea eta, zehatzago, kooperatibismoa ez dela etsai bat, baizik eta, xuxenago, konpetitzaile bat dela; izan ere, bataren eta bestearen xedeak desberdin diren arren, kooperagintza alderdi askotan bataren eta bestearen lagun bait da.

Aldiz, ezin daiteke hain errazki esan D jarrera-moldeak, iraultzaleak, kooperagintza lagun duenik, nahiz eta haren eta kooperagintzaren xedeak artean, haren eta A jarrera-moldearen xedeak artean baino idekotasun gehiago egon.

Kooperatibismoak ere konpetentzia egiten dio proselitismo iraultzaleari, eta horrek bere-berea duen arloan egin ere, hots,

langile multzoen artean, are mingotsagoa, beraz, konpetentzia. Izan ere, kooperatiba formularen erakar indarra bortitza da.

Egitura bidezkoagodun gizarte bat zertzeko bidea, ekintza iraultzale ezkutukoak berekin daraman zapalkuntza sofritu behar gabe noski, eta bidenabar bizibide erosoago bat lortzeko era, horixe da kooperatibismoak herritar klaseei abantailaz eskaintzen diena.

Ekintza iraultzalearen arriskuak eta honen arrakastaren zalan-tza, langile gehien batzuentzat geldigailu edo frenu handi bat dira, sakonki erroturiko izpiritu iraultzale baten jabe ez direnena baitipat. Eta areago, arrisku horiek gabe, onura berdina lortzeko, eta berehala lortzeko, egokiera bat dutelarik.

Horrezaz gainera, koperagintzak dagien "statu quo" dela-koaren sendotzapena gogoan hartzen badugu —lehen esan dugu sistemaren hutsegin nabarmenenak leundu eta eztitu egiten dituela— ezin harrituko da inor D jarrera-moldearentzat koperatibismoa ardurazko konpetitzaile bat bakarrik ez (herriaren bezerotza kentzen diona), baizik eta borrokatu behar den etsai bat ere baldin baledi.

Koperatibismoak, beraz, bi indar kontrakoren erdian dihar-du —kontserbakorra eta iraultzalea— eta hauek harengan duten eragina negatibua da beti: alde batetik, A jarrera-moldeak eman dezaiokeen laguntza beti ere onurakorra, komenentzizkoa izanen da, eta, beraz, koperatibismoari dagokion erreforma sozial xedeen kontrakoa. Eta bestetik, D jarrera-moldeak koperatibismoari egiten dizkion erasoaldiek, A jarrera-moldeari —*bere etsai nagusiari*— egiten dizkionak bezainbat sarri eta gogor ez badira ere, koperagintzak hartu duen bidea eragotzi besterik ez dute egiten.

Baina, bi indarren (A eta D) artean koperatibismoak duen oreka geldikaitz hori zertara joango da bi jarreroren arteko aurkatasuna gailurrera irits dadinean, hau da, sistemaren krisia gaizkoatzen eta abagune iraultzale batetara lerratzen denean?

6.—KOPERATIBISMOA ABAGUNE IRAULTZALEAN

Ez zaigu eman bihar gerta daitekeena ezagutzerik, baina bai logikabidez, efektoak eta kausak lotu bidez, gerta daitekeena alde aurretik jakitea, eta hontara, badugu gaur biharko gertakizunak eragin ditzaketen kausei buruzko ezagutzarik.

Lehenbizikoz, eta lehen esanaren arabera, *abagune iraultzalea ukatzen edo eragozten duten indar horietarik da koperatibismoa ere.*

Jakina da, eboluzioa ageri den bertan erreboluzioa zailagoa bilakatzen ohi dena, eta egitura sozialak tinko gordetzen diren hartan, aldez, Historiaren aldakuntzarako joera aldaketa iraultzaile batetara lerratzen dena, aisa lerratzen gero.

Arik eta egitura sozio-politikoaren indar berritzaileek epe labur batean erabakitako erreformak lortzen ez dituzten artean, orduan eta handitzenago joango dira posibletasun iraultzaileak, kontserbakor/iraultzaile arteko elkar-joka osoa izango den abagune iraultzailera iristeraino.

Koperatibaren izaerak berezko duen abagune iraultzailearen eragozte gogoan hartuez gero, esan genezake, abagune hori sortzekotan, koperagintzaren lehen jarrera haren aurkakoa izango dela; izan ere, bere praxia legezko barruti baten barnean mugatu izan du beti, Iraultzak birrindu nahi dituen muga barnean hain zuzen.

Zaila da, egiazki, praxia iraultza kontrako batek —eboluzio-bidezko praxi oro da iraultza kontrako— Iraultza abagunea etor dadinean bere jokaera alda dezan, nahiz eta bere xedeetarik asko Iraultzaren xedeengandik hurbilago egon zutikako egiturengandik baino.

Gainera, urteak zehar A jarrera-moldearekin, kontserbakorrekin, batera edo bizikidego batean ihardun izateak elementu bi-

koitz batez hornitu du koperatibismo jarrera. Batetik, jarrera iraultzaleetan arras bitxia den jokamolde bat bereganatu du. Eta bestaldetik, eta baitipat, interes kópuru oso bat biltzen joan da, —zenbat eta koperagintzaren desarroiloa handiagoa, hainbat eta kopuru ugariagoa— babestu behar dena eta, abagune horretan, koperatibismoaren praxi berritzailea gordezale bihurtuko duena (interes edo onura horiek gorde eta defendatu behar direlako); orduan bere betebeharrerformatzailea galdu egiten du, erreboluzioak ez bait du eboluziorako tarterik uzten, praktikan.

Zalantzarik gabe, izango da hasiera-hasieratik iraultzaren aldetik jarriko den koperatiba sail edo kiderik ere, aurreralkuntza geldiak betetzen ez dituenen eta, beraz, aldaketaren premiaz saskonkiago ohartzen direnen artean baitipat. Ez dirudi, alabaina, kide hauek koperatiba gorputzetik eten arren, koperatibaren pisu osoa iraultza aldera iraultzeko gauza izango direnik.

Azkenik, eta aterakizun gisa, hastapeneko *koperatibismoa zertarako?* galderari zihurki samar erantzun genezaioke: koperatibismoak ez duela balio Iraultza egiteko. Koperatibismoak erreforma bide bat urratu du eta berari jarraituz gero ezin daiteke iraultza buruarinkieriatan eror.

Koperatibismoak, beraz, gizarte erreforma eta eboluzioa eragin dezake eta aski du.

Gizartearen aldakuntza bideak hautatzean koperagintzak jendea erreforma-aldakuntza batetara darama. Jende hainitzek osatua du iraultza-amets haietatik bere joan-etorria eta ez da berehala sartuko dagoneko ahantziak diren umekerietan.

Euskeratzaile: joxe arregi

EUSKAL KOPERATIBISMOA
HARO BERRI BATEN ATONDOAN
gurutz ansola

Koperatibismoaren etorkizuna ez dago loturik ez bakarrik produzioaren erakundeari, ez eta ere lantegi-koperatiben iztituzio eta araudiari. Bi alde horiei, batean eta elkar, dago loturik koperatiben etorkizuna.

Erakundea denez, xede arrazoizkoak ditu koperatibak. Helburuetara iritsi ahal izateko, ahalik modu onenean erabili behar ditu eskuarteko indarrak: lana, teknika, dirua. Lantegiaren barruko bizitza eta kanpotiko harremanak, bestalde, gizarteko eta ekonomiako mugimendutara eta aldakuntzatarara moldatu eta taxutu behar ditu.

Koperatiba, alabaina, ez da erakunde hutsa. Erakundea berez tresna teknikoa da, zeinez giza-kemenak helburu jakinetara mugiarazten eta gidatzen bait ditugu. Iztituzioa dela, bide batez, esan dugu, koperatiba lantegia. Koperatibak dadukan araudia, balore erabaki batzuk lortzeko pentsatua eta asmatua izan dela, alegia, eta araudiaren gaitasuna eta egokitasuna hontan frogatzen dela, hain zuzen, elkarteak bere balore nagusitzat ezarri dituen xedeak mamitzen. Araudiak nahi-ta-ez egitura gogortuak dira eta

gogortasuna hontatik sortzen da, elkarteak bere gain ezartzen dituen balioetatik. Zenbat eta balio hirmoagoak ezarri, hainbat trinkoagoa eta finkatuagoa izanen da araudia eta izitutuzioa.

Koperatibaren bi alde hauek, erakunde malgua eta araudi finkatua, elkarbaturik aurkitzen direlarik, koperatiben bizitza eta etorkizuna alde bi horien harremani loturik daude.

Produzio-erakunde eta elkarte-araudi jakin batzuen barruan ahalegintzen dira koperatiba-lankide guziak. Baina kide guziak ez dira berdinak. Berdintasuna agian badute lantegia eta elkarte aurrera eramateko asmotan. Asmoa, ordea, bere maila astratuan dago. Eta bakoitzagan asmoak determinazio bereziak hartzen ditu, hots, pentsaera, ideologia, lanbideko kategoria eta beste izaera anitzen arabera. Gauza berezkoa da, horrexegatik, taldeak koperatiben barnean ere sortzea eta agertzea.

Halaz ere, pondu hontan, koperatiba-lankideen ezberdinean, alegia, alde nagusi bati soilik lotuko gatzazkio. Koperatibetan ere, ezinbestekoa da batzuk Agintari, besteak Menpeko izatea. Esan beharrik ez dago koperatibetako Agintariak ez direla ez autokratak, ez paternalistak. Konstituzionalak direla esango genuke, araubidez eta demokraziaz hautatuak bait dira. Baina Agintari eta Gidari direnez gero, berek pentsatzen dute, eta, hein batetan, ezartzen ere lantegiak jarraiki behar duen bidea. Hitz batean, berak dira erakundearen buruzagi eta politiko.

Koperatiba lantegia ez dago, beraz, ongi konprenitzerik, produzio-erakundeari soilik ala elkarte-araudiari bakarrik behatzen badiogu. Barrenago sartuz, lankideen artean ere berezkuntza egitea bidezkoa da. Alde batetik, lansaria jasotzen duten langileak produzio-aginduak konplutuz. Bestetik lankide-agintariak, industriaren gidari eta politikoak. Egia da guziak direla lankide eta lansaria ere guziek jasotzen dutela, norberaren mailaren arabera. Halaz ere, beharrezkoa da berezketa horren bidez Agintari taldeari duen nortasun berezia ematea.

I. TEKNIKA HAROA

Azterketa sakondu ahal izateko, beharrezkoa da konzeptuak dinamizatzea, hau da, produzio-erakundearen eta iztituzioaren artean, gidarien eta menpekoen artean, sorreratik honuntz zer nolako mugimendu dialektikoa agertu den miatzea.

Teknika arazoa agertzen da nagusia, lehenbiziko lantegi kooperatibak sortzen hasten diren denboran. Kontutan eduki behar da, kapitalista lantegietan zeuden teknikorik hobetsuenak irten zirela eta elkartu, kooperatiba-mugimendua sortzera. Lehenbiziko helburua zen lantegi berriei produzio-erakunde indartsua ematea; produktoa kostu ekonomikoan atera, kapital iturriak sortu, lantegiak hazibidetan abiarazi.

Iztituzio eta araudia, bide batez, sakonki pentsaturik eta mamiturik zeuden. Aldi hortan, haatik, produzioaren kezka gailentzen dira eta beste arazoak, iztituzio aldekoak alegia, geroagorako itzalean geldituko dira.

Kontutan eduki behar da, hasiera-haroko kooperatiba-lankideak —gehienak behintzat— ideia handi horren zerbitzurako bu-lartu eskaini zirenak zirela, eta orduko egiteko larrian, hau da, erakunde tekniko berriak sortzeko egitekoan, zeharo murgildu zirela, iztituzioaren etorkizunari idealismo sutsu batez behatuz. Ez dute zalantzarik, sortzen hasi diren lantegiek, eta “gizarte-berriak” berak ere, harmonia eta kanore taxuzkoa izanen dutela, egunen batean, baldin lehenik eta aurretik lantegiak sortzeko ekintza honi buru argiz eta nor bere hilduraz eskaintzen batzaitza.

Teknika-haroa deitu diogun haro hontan ez da, beraz, menpeko-agintarien arteko hauzi latzik agertuko. Ez da, bestalde, gauza zaila gertakari hori aditzen. Orduraino, langileen balioa, kooperatibetan beretan ere, zera zen, lankide bakoitzaren ofizioa eta lan-indarra. Kooperatibismoaren izpiritu berria han bait zegoen,

egoera hori hornitzeko eta gainditzeko. Buruak, berriz, gidatzaile areago ziren, agintari baino. Esan nahi da, industria berriak sortzen eta eraikitzen txahutu beharra zedukatela beren jakite, kemen eta oldar guzia. Ez da harritzekoa, horrexegatik, den lantegirik handienak berak ere izena sortzaileen deiturak elkarturik asmatzea (ULGOR).

Guzien helburua, gidatzaile eta menpekoena, pondu jakin batera zetorren: industriaren hildo aukeratuan urrats seguruak eta hirmoak ematen hastea: produktoa salneurri onean ateratzea, autofinantza iturriak erretzea. Beste era batetara esanez, lehenik lantegi bat edo beste oinarri sendoetan eraiki, ondoren, esperienziaren arrakastaz, kooperatibismoaren mugimendua, Arrasatetik eta Leniz Bailaratik hasiz, Euskal Herri osora hedatu zedin.

Ekonomismoaren arriskua

Kanpoko jendearen konportamendua nolakoa izan zen aldi hortan? Galdera honi erantzun taxuzkoa eman ahal izateko, ingurumariak aurrez maneatu beharra dago. Kapitalisten aldetik, zer esanik ez dago, herra bizia jaiki zen, lehen momentutik, mugimendu berriaren baitara. Langileriaren aldetik, berriz, zer etorkizun izango zuen jakinmina. Euskal talde anitzetan, mugimendu berriarenganako oniritzia sortu zen, bai eusko industriaren eraberritzea erakar zezakeelako, baita kapitalismoaren sistema eta zenbait egitura suntsitzera zetorrelako ere.

Kulturazko sailetan, ordea, kezka beltzak hedatzen hasi ziren eta bai gerora are indartu ere. Arrasateko mugimendua *ekonomismo* periltsu baten saretan eroria ez ote zegoen, beldur zen anitz euskalzaile. Gaurrengungo munduan, industrietan xoilari behatuz, kultura baztertuta gertatzen bait da, eta jendetza hazkuntza eta demografia neurritz gainera, inmigratio gehiegizko baten bultzadaz. Ideologia iraultzaile edo erreboluziozaleentzat,

prinzipioez berez gaitzetsia erortzen zen kooperatibismoa. Honek klase-borrokaren kontradizioak baztertu nahi dituela, eta, agian ohartzeke, sistema kapitalistaren kide eta lagun bihurtzen zela kooperatibismoa, alegia. Hasiera aldi edo "teknika-haro" hortan, alabaina, ideologia horien etsaigoa hitzetan eta paperetan agertu zen soilik.

Geroago, ikusiko dugu "kanpotikako taldeen" joera eta estrategija zertan gorpuztu den.

II. HEDAKUNDE HAROA

1960 urtean, Lankideen Kutxa Herrikoia sortzen dute Arrasaten, kooperatibismoaren mugimenduko Gidari argi eta bizkorrek.

Diru-etxe hau, alde batetik, Aurrezki Kutxa baten antzera, herri-diru aurreratua bereganatu eta administratzeko sortzen da. Beste aldetik, Lankideen Kutxa Herrikoiak, Industrial Banketxe batek bezala jokatzen du. Banketxe industrialek baino are sokenago asmatu dituztela beren bideak ere, esan daiteke. Sozio eta kide egin bait ditu kooperatiba lantegiak.

Arrakasta bikaina erdietsi du L.K.H.k alde bi horietatik. Beha, hemen, zenbait ezagutgarri.

1. 1960 urtean: Bulego bakarra; 1970ean: 54 bulego.
2. 1950-64 urteetan: Libretak: 7.313; 1970ean: 87.807 libreta.
3. 1960-64: Diru aurreta bildua: 123.859 pta., 1970ean: 2.863.000.000 pta.
4. Lantegi-kide zenbat: 1970ean: Industrialak.... 45
Besteak..... 8
5. Eta guzua mukurutzeko: Gipuzkoako Produkto Industrialaren parte handi bat, kooperatiba-lantegiek emana da. Zenbat? Ehuneko 13, hain zuzen.

Naturaleza berri bat agertzen du, beraz, kooperatiba mugimenduak, bigarren haro hontan. Lantegiak teknika aldetik ongi finkaturik eta oinarriturik daudelarik, erakunde zabalagoa eta maila goragokoa sortu da. Erakunde honen atalak ez dira lantegi industrialak bakarrik, baita kontsumo, arrantza, lurgintza eta zerbitzuetako enpresak ere sartzen dira. Produzio-enpresaz gainera, Finantza atala sortu da eta, kontutuan eduki behar da, finantza-erakundeak gizartean arras barnera sartzen direla. Zeren diru-etxeak herri osoarengana hurbildu nahi izaten du, herri-diru-aurre-ratua bereganatzeko asmotan.

Lehen aipatu dugunez, Arrasateko gizon argi eta bulartsuak izan dira, gehienbat, L.K.H.ren sortzaile eta gidatzaile.

Sendotze-harocan buruzagiak agertzen dira

Haro berri hontan —ezinbestekoa zen— agerkizun berriak nagusituko dira: bai mugimenduaren barnean eta enpresa kooperatiben baitan; baita gizartearekiko harremanetan ere, gizartetaldeek, bidenabar, kooperatiba-mugimenduarekiko jokabidea eta estratejia aldatu egingo bait dute.

Beha ditzagun, bada, aldi hontan, esate baterako 1960-67 urtetan, agertzen diren fenomeno berriak. Azterketa taxutzeko, kontzeptu hauek erabiliz: arrazionalizazioa eta iztituzioa; agintemaita eta langile-maita.

Arrazoizko sistimak nagusitzen dira kooperatiba askotan, bai produzio-erakundetan, bai araudiaren adieran eta erabileran ere. Sendotza haro hontan, goragoko gizarte maila batetara igotzen dira mugimenduaren lehen gizonak: buruzagi bihurtzen dira, eta indar politiko baten jabe ere bilakatzen dira, batipat finantza atalak lortu duen zabalera eta hedadurari esker.

Bidenabar, lankide-agintari-gizartearen arteko erlazioak beste maila altuagora gaineratzen dira. Has gaitezen Arrasateko talde

buruzagitik. L.K.H.k produzioa eta herri-diru-aurretua elkartzea lortzen duen une beretik, Buruzagiak eginkizun eta erantzukizun astunagoen aurrez aurre aurkitzen dira. Arrazoibideak, (arrazionalidadea, alegia) ez dago orain lantegi bakoitzeko maila xoilera errendatzerik. Lantegiak handitu dira (ikus, Ulgor), batu dira (ikus, Ularko), elkartu dira (beha, L.K.H.), hainbat indartu ere, non Industri Planifikazioaren Zentroa sortzen du Lankideen Kutxa Herrikoiak bere baitan, aurreruntz industria berriak sortzeko erabakiak, jakite handiz gogoetatu eta mamitu ahal izateko. Zentro horretan, ekonomilari, injinadore, arkitektu, soziologilari, finantzalari, hots, industria modernuak eskatzen dituen teknikoak, elkar-turik dihardute etorkizunerako hazibide onurakorrenak bilatzen.

Gehiago, ekonomiaren erresponsabilidade handia eta zuzen zuzenekoa hartu baldin badute ere, bide batez gizartearekiko erantzukizun utzezina ere bereganatu dute Buruzagiek. Eta erantzukizun eta eginbide hau, gaurregun ez dagoela industrial egitamurik arrazoibidetan eramaterik, gizarteko faktoreak eta bariabileak ere kalkuluetan sartu gabe. Bestalde, mugimenduaren handitzeak eta lantegi kolektibuak dakartzien irabaziak, nolabait herri-gizarteari ere zor zaizkionak direlarik, inbersioak ezin dira pentsamolde eta intres pribatuz soilik ez asmatu, ez heren errentabidea kalkulatu, ez erabaki. Herri-produktoa, hein batetan behintzat, gizarte inbersioetan ere eralgi behar bait da. Zehatzago adiarazteko, hara esan, ez dela aski lantegi berriak eraikitzea, lanpostuak ugaritzea, saldurak hedatzea, irabaziak pilatzea. Ekin-tza horietarako egiten diren inbersioekin batera —eta aurrez balitz hobe, eskuarki—, irakaskintzan, kulturen, hirigintzan, infrastruk-turan eta eskualdeak industriaz hornitzean, gizarte edo kolektibu inbersio eta diru eralgipen handiak egin beharrean aurkitzen direla.

Ideologiaren sostengua

Hori guzia, alabaina, ekonomi planifikazio nahiz gizartearen aurrerapena, Buruzagiek berek, pentsa, erabaki eta konpliarazi dezaketela, ez dute zalantzarik. Izpiritu sortzaile honek ideologia bortitz bat du sostengu: azken helburua, gizarte berria ernetzea; iraultzabidea, kooperatibismoaren langite emankorra eta gizatarra; oinarria, industriaren produktibitatea eta kapital-metatzea. Bide horietatik datorke, azkenik, bai herrikideen ontasuna, bai gizarte-sistema eta egiturak behetik gora aldatu eta berritzea.

Zer mugimendu nabaritzen da kooperatibetako lankideen baitan, Buruzagien eginkizun, indar eta pentsaeraren aurrean?

Langileak, lamsariak, autofinantza

Langileen multzoan, mailen berezkuntza egitea guziz beharrezkoa da, azterketa astratuegia izan ez dadin.

Kontutan eduki behar da, lehenik, lankideen kopurua 3.395 zela 1965 urtean. 1970ean, aldiz, 8.053 lankide. Bistan dago, hazte hori, langile jakitunez eta trebatuez, ez dagoela lortzerik, hain epe laburrean. Kopuru hortatik, anitz eta gehienak peoi espezializatuak direla, ez zalantzarik ukan.

Badago, beraz, berezkuntza bizia langile-taldean ere. Goreneko lanbide-abiladeta eta jakitatea dutenak, oro har, gertu eta hurbil aurkitzen dira ezagun eta lagun dituzten Agintariekin eta *Batzorde Zuzendari*-koekin. Beste gehienak, ordea, —batipat lan-tegi handietan— urruti daude bai kooperatibismoaren izpiritutik, eta baita beren agintariak nor eta nolakoak diren funtsez jakitetik ere.

Talde ugarien eta berrien honi lotuko gatzazkio, bada, gure azterketan, ezen talde hori, intres partikularrez eta psikologia guziz propioz eta bereziz, bait dago kooperatiba lantegietan. Ikusiko

denez, tarte luzea dago agintarietatik behereneko mailako langile-talde ugari hontara. Ez hori bakarrik, kontradizio ukaezinezko horiek, kooperatiba iztituzioarentzat ziri sartzaile bilaka daitezke, geroago esango den legez.

Kalifikatu gabeko langile-talde honen bizimaila, behereneko mailan aurkitzen denez gero, gorago ikusten dituztenei behatuz, ez da deus harritzeko, atzerapen hori kendu eta berdindu nahi izatea. Bestalde, langile multzo hau agintarietatik urrutiena dago, psikologiaz eta balorez. Haiei ez dago ekonomi erresponsabilidaderik eskatzerik; gehienez, zera, produzio-katetariko emankortasunaren erantzukizuna. Ulertzen erraza da, beraz, multzo hori, alde batetik lansarien desberdintasunaren aurka jaikitzeke prest aurkitzea; baita ere, bestetik, inbersioen premia latza ez aditzea eta autofinantzaren kontra jaikitzea. Ez dago ukatzerik, jokabide hori ekonomi-arrazoibidearen kontraharira datorrela. Halaz ere, ez da ahaztu behar, kategoria behereneko langile multzo hori, eguneroko biziera astunari itsatsirik dagoela zuzenen eta printzipalki, eta adimen-ezagumenak bizimoduaren hesi hertsietan mugaturik daduzkaten gizonei ez dagoela goimailako kontzientzia ekonomikorik eskatzerik.

Agintariak saiatzen dira informazio ahalik zabalena ematen. Baina, goitik beherako eta behetik gorako harremanak arras gaitzagoak dira, bide ordekatik eta horizontaletik datozenak baino.

Nork ukatuko du, kontradizio horiek, deskoperatibista den ideologiak, bere estratejiaren aldera erabil eta esplota nahi dituenik? Asmaketak ez direla, argi eta garbi dago. Sortu berriak diren konfliktu, eskabide eta borrokak hor daude frogatzen.

Kontrako eraso hauen helburuak, bi aldetatik agertzen dira: batetik, gazte jakitunak staff-etan kokatu; bestetik, langile mailatan eta, printzipalki, kalifikazio leherenekoetan hazia erein. Horrela, mugimenduaren barnean nahi-ta-ez sortu behar duten kontradizioak miatuz eta jorratuz, borroka latz eta anitzetan makurraren

bidez, Gidariak erre eta akitu-arazi, azkenik aginte-erakundeetan ordezkari berriak ezarri, beste ideologia eta beste erakunde politiko baten zerbitzari.

III. GIZARTE KONTZIENTZIAREN HAROA

Autojestioa ideia berria eta besarkagarria dugu zalantzarik gabe. Praktikan mamitzen, ez neke gutikoa. Halaz ere, etsipenik gabe helburutzat eduki behar duguna. Helburu erakargarria, zeinetara abenturismorik gabe eta zihurtasun lehiatsuz urratsak zuzentzea merezi duena.

Jokabide horretan doaz koperatibak eta bi frentetan eta barrutitan lehiatzea dagokie: barneko eta kanpotikako barrutietan.

Barneko barrutian, *Bigarren Hogeigarren Mendeko* industriak etendurarik gabeko eraberritzeak eta kapitalizazioak eskatzen ditu, eta horretarako beharrezko diren bide eta moienak tinko finkaturik eduki behar ditu koperatibak. Jakite handiak eta arrazoibide zehatzak eskatzen ditu erakunde ekonomiko horrek. Erakundea ez da aski produzio-egitatean ezartzea; iztituzio demokratikoa ere ezinbesteko baldintza da. Agintariak hautatzeko, nahiz heren eginak kontrolatzeko. Baina demokraziaren egitekoa da baita ere, Buruen eginkizun propioa hots, eraberritzea eta kreatzea, debekuz eta zoztorrez ez antzutea. Hori ez dago behetik-gorako eta goitik-beherako dialektikarik gabe lortzerik. Eta dialektika horren arima dira informazioa eta helburu nagusiekiko batasuna. Informazioaren erantzule, Agintariak dira. Hek, zintzoki eta zehazki berri ematera mengoaturik daude. Baina, beste hainbesteko kondizio larria eta premiazkoa da baita ere, mugimenduaren helburu nagusiekiko elkargoa eta batasuna.

Ergeltasuna litzake, alabaina, zera uste izatea, koperatiba

batean sartzea aski dela, alegia, izpiritu horretaz jabetzeko. Erru-
ren batean erori baldin bada koperatibismoa, gure herrian, hontan
herori da, gure iritziz: abiada bizkorregiaz haztea eta hedatzea.
Ez dago ukatzerik, ekonomiaren eta gauregungo industriaren
eskakizunak hertsia eta biziak direla eta aurrera eginaz bakarrik
sarritan garaile atera daitekeela, esan nahi da, lantegiak zabal-
duz, handituz, ugarituz. Halaz ere, koperatiba, produzio-erakun-
dea eta iztituzio soziala da. Biok, aldara ezin daitezkeen elkarta-
sunez baturik daude eta batak bestea eta besteak bata kondizio-
natzen du.

Lantegi berriak sortzeko erabakiak

Neurriz, beraz, handitu eta hedatu behar du koperatiba mu-
gimenduak. Neurriz haztea, gainera, egokitu daiteke ekonomiaren
eskakizunetara. Nolaz? Alde batetik, zer industria-abar sortu behar
diren azterketa sakon eta zabal baten bidez hautatuz. Bide hon-
tatik —hautamenak nola mamitu, alegia— ez gara hemen urrutira
aurreratuko. Zeren luzea eta gurutze-bide anitz dituen bait da.
Esango dugu, haatik, industrien aukerarena ez dela errentabide
barrengo edo irabazbide finantzerua bakarrik kontutan hartuz
eta kalkulatur egin behar. Industriatzearen erabakiak eskatzen
du, bide batez, inbersioak ekar dezakeen kanpotiko irabazi eta
kostuak ere neurtzea. Gaur, ekonomi pentsaera gizartekoiak ez
dezake ontzat har, inbersioak barrengo irabaziari bakarrik be-
hatuz erabakitzea. Inbersioak, lantegi beretik at ere, irabazietan
nahiz kostuetan eragin printzipala izan bait dezake. Irizpide hauen
hildotan abiatuz, txit posible da, peoi multzoz osaturiko lante-
gien orde, kapital tekniko anitz eta “materia arre” ugari eskatzen
duten lantegiak aukeratzea.

Industri-abarrak irizpide zuzenez hautatzeaz gain —barrengo
frentea taxuz ordenatzeko—, zabaldu egin behar da koperatibis-

moaren pentsaera. Hontan ere, agian, ez da behar hainbat lan egin. Arrasatetik at, non eta nola izan du, bada, aldartea, euskal gazte langile gai batek, kooperatibismoaren mezua entzun, gogoe-tatu eta onartzeko?

Ekintza hori —benetan latza gaurrengungo egunetarako, apos-toladutzaren gisa eraman beharko bait litzake— asmoz eta jakitez asmatu eta egin beharko du kooperatiba mugimenduak. Izpiritu hori ez bait da berez' erretzen ez hazten gure gaurko gizarte alorretan.

Ingurumenaren eraginak

Kanpoko barrutiari eta ingurumeneko gertakizun, indar eta mugimenduei ere egin dadila adi kooperatiba elkarteak. Kooperatiba mugimendu hau, hemen, herri-gizarte hontan sortu eta errotu delarik, herri-gizarte honen egoeraz eta etorkizunaz nahi-ta-ez bere pentsaera propio batez jabetu behar du. Ez bakarrik ekonomia alorrean, baizik kulturaren ere bai. Ekonomismoan ez du erori nahi kooperatiba mugimenduak. Ez du inolaz ere pentsatzen, materialismo hertsia batek, hots, produzio-indar eta produzio-erlazio soilek, herri-gizartearen bizitza osoa determinatzen, erretzen, erabakitzen duenik. Aldiz, dialektika jori eta biziagoz, behetik go-runtz eta goitik beheruntz ikusten ditu indarrak eta eraginak herri-gizartean. Ekonomiak badu eragina politikan, gizartean, kulturaren, pentsaeran, sinestetan. Baita ere, alabaina, sinesteak, pentsaerak, kulturak, gizarteak badute eragina eta influentzia ekonomian. Herri-gizartea osotasunean dakus kooperatiba mugimenduak eta horrexegatik, hain zuzen, hedatzen, indartzen eta gizarte-botere baten jabe egiten doan arabera, nahi-ta-ez beharturik dago gizarte-herri osoarekiko pentsaera eta estra-tejia mamitzera. Uste eta itxaro dezagun, kooperatiba mugimendua jadanik heldu dela *herri-gizarte kontzientziaren harora*.

Gehiago eta azkenik. Koperatiba-mugimenduak bere barne bizitza kanpoko etsaien erasoetatik begiratu ahal izateko, ingurumenetan gertatzen diren gertakizunetz informazio zehatza biltzea ez du aski. Informazioa onurakorra izango baldin bada, egitamu eta plan bat eduki behar, bai albisteak bildu, bai informazioak aditu ahal izateko. Aurrez premia eta mengoa sentitu behar bait da, zer gertatzen den eta gerta daitekeen bila abiatzeko. Aingerukerian datzanak, uste du, sarritan, bere barneko uste on eta kontzientzia zuzena direla kanpoan eta ingurumenetan gertatzen denaren ispilurik garbiena. Esperientziak ikaskizun latzak egozten dizkio horrelako ameslariari.

Nondik datorkio, beraz, koperatiba mugimenduari herri-gizartearekiko pentsaera baten eta estratejia baten premia eta mengoa? Barnetik eta kanpotik; hobeki esan, bere bizitzatik eta higiduratik beretik. Bizitza ez bait du soilik barnekoa, hau da, produzio-erakundea eta elkarte-iztituzioa. Goragoko mailara igan da koperatiba-mugimendua, gizarte eta publiko mailara, alegia.

Herri-gizartearen kontzientzia oso batera esnatu eta ernaituko ahal da, garaiz, euskal koperatiben mugimendua?

Haro berri honen atondora heltzen dakusgu Arrasaten ernez hazi emankorra.

ARRASATEKO KOPERATIBISMOA: IPARRALDETIK BEGIRA
Ramuntxo Kanblong

Arrasateko lantegi-koperatiben omena handia da Ipar Euskal Herri guztian. Garai batez, Hego-aldeari berriz ohartzen ari ginen garai batean (1967 urte inguruan), iparraldeko jendeok Arrasateko Koperatiben itxurarekin ikusi izan dugu Hegoaldea. Geroztik gauzak aldatu dira, baina egiazko mito bat bihurtu da memento batez Mondragoeko Koperatibismoa Iparralde guztiarentzat. 1965 urtearen azken aldetik hasi eta orain arte, badakigu 4.500 edo 5.000 Iparraldeko jende, bereziki gazteak, izan direla Arrasateko itzuliaren egiten.

Bestaldetik ez dugu ahantzi behar Frantzian eta bereziki Parisen asko hitz egin dela "entrepresaren erreforma" delakoaz, azken hamar urte hauetan. Bloch Loiné jaunaren **Pour une réforme de l'entreprise** (Saril 1963) hasi eta gaurko C.F.D.T.-aren "autogestion" famatua delakoraino liburu, artikulu, bilkura eta eztabaida asko izan da hemen. Zer izan behar du entpresak? Nola behar dira langileak elgarrekin kudeatu? Azken finean norena da lantegia eta nola behar dira zatitu eta errepertitu entpresaren fruituak? Ez dezagun ahantz ere De Gaulle-k "participation" edo "partzuer-go" delakoa nahi izan zuela lantegi gehienetan sarrarazi (omen?) eta Vallon jaunaren legearen inguruan zer nahi eztabaida ibili izan dela. Hain zuzen ere Vallon, Capitant eta bere kidekoak interesatu izan dira Mondragoeko esperientziari. Eta Pariseko soziologoek "Collège Cooperatif" delako goi mailako ikastetxean lan egiten

(*) Azken unean iritsi zaigun lan hau interesgarri delakoan ematen dugu; besterik ezinean, eraskin bezala argitaratzen da (Zuz. oharra).

dutenek, gomiotu ere zituzten Arrasateko buruzagiak, beren esperientziaren berri eman zezaten, denen aintzinean, Parisen.

Hor ikusten dugu beraz, ez bakarrik Iparraldean, baina Parisen ere, omen handia izan dutela Arrasateko Koperatibek. Eta lasterka idazten ari garen lerro hauetan bi ohar edo ikuspen nahi genituzke agertu, eta hau, esperientzia bezala nola sentitu dugun Arrasateko mugimendua, teoriaren aldetik baino gehiago.

I. Euskal Koperatibismoa empresa bezala

Badakigu segur, gaur egun, kritika asko azaltzen dela, ez bakarrik Koperatibismoari buruz baina gure ekonomia, Mendebal Europa eta Ipar Ameriketa alde hontako ekonomia moldeei buruz alde batetik, bai ere ekonomia industrial osoari buruz beste aldetik. Industria eta empresa edo hobeki lantegia bera eta hauen lan moldeak hauzitan ezarriak dira gero eta gehiago azken urte hauetan.

Hala ere zenbait gauza oroitarazi nahi genituzke, iduritzen bait zauku, kritika hoiei irekia geldituz, hainitz urtez oraino lan molde hauek iraunen dutela gizonen artean.

Lehenik gauza mirengarria dela, oraindik oraingo hontan demokrazia entpresan sartzen eta bizitzen ikustea. Europako herri gehienak horri buruz indartzen ari dira aspaldian eta bereziki azken urte hauetan. Beraz ez dezagun mesprexa (maizegi entzun dugun bezala Mondragoetz) alde hau. Segur mirengarria dela eta ahal bada hobetu behar dela.

Bigarrenik langile arteko elgertasuna bai lan moldeetan, bai auzo laguntzan, bai eritasunei dagokien segurantzetan eta abar. Gure ustez lan moldeetan gero eta gehiago sartzen ari da hau industriako lantegietan. Hala ere Mondragoen bezenbat ez dakigu non badagoen. Bestalde segurantzako sistema onak, hobeak diruaren aldetik beharbada badaude. Baina gehienetan, Estaduak, non ez den Segurantza Etxe zenbaitek kentzen du langileei honen kudeatzeko boterea, edo bederen azkarki ttipitzen. Hemen berriz, langileek berek kudeatzen dute hori. Beraz egiazko autojestioa sail hontan ere sortzen dute.

Hirugarrenik entpresarako izpiritua elgertasun hortan. Berriki ere (1), hau dela, entpresarako izpiritua, alegia, Arrasateko

(1) Irakur, oso interesantea bait da "El Cooperativismo industrial de Mondragón" C.L.P. delakoak sinatua *Información Comercial Española* (Nº 467-468).

esperientziaren gauza baliotsuena eman dauku horko buruzagi zenbaitek. Eta hau bi aldiz egia da Iparraldetik begiraturaz. Entrepesarako izpiriturik gabe ez da posible ez industriarik eta are gutiago kooperatibarik. Estaduak denak beregain hartu nahi dituen garai hontan, eta hau Europako herri gehienetan, izigarri garrantzi handiko dela iruditzen zaiku, estruktura batzu sor daitezzen, denborak galdatzen dituen bezalakoak, dena ez dadien Estaduen eskuetan geldi. Bestalde hemen Ansola ekonomilari trebeak agertu daukun bezala Gipuzkoako deskapitaltzeari buruz, lan handia egiten dute Arrasateko Kooperatibek.

Bestaldetik, egia erran, gauzak diren bezala agertzeko erran behar dugu:

—Kooperatibak merkatu bati lotuak agertzen direla eta merkatu horrek dituen legeak segitu behar dituela ez baldin badute leher egin nahi. Gizarte aldaketan beren indarra etsenpluaren indarra eta esperientziarena dira gehienbat. Ez bait da guti. Behar bada ere, denbora joanez eta lehen oldar hura ezeztatzean, beren inguruko gizarteak dituen problemak agertuko dira kooperatiben barruan bertan?

—Euskal izaitearekin, kulturarekin, zer harreman dute kooperatibek? Berak euskal izaite industrial baten itxura hobereana bezala ote dira? Hasteko euskarari buruz ez dira beste lantegiak baino txarragoak, baina ez hobeagoak ere.

Zati honen bururatzeko erran dezagun, gure iduriko, eskolak garrantzi handiena duela kooperatibismoaren sortzean eta iraupean. Arrasaten ere E.P.P. delakoa hor dugu etsenplu bezala. Gero ere hontarik aterako dira kooperatibei geroa irekiko dietenak. Gizonen moldatzea hiru mailetan garrantzi handikoa du problema honentzat. Teknika aldetik, hau lehenik, beharrezkoena delakotz. Ekonomia aldetik, langile bakoitzak segi dezan eta sintzina eraman ahalaz bere lantegia. Eta azkenik izpirituaren aldetik bistan dena. Izpiritu hori gabe ere egin daitezke entpresa azkarrak, teknikalari eta ekonomilari on batzuekin. Baina ez dira hauek kooperatibak izanen.

II. Iparraldeak nola sentitu dituen kooperatibak

Artikulu honen hastapenean erran dugu zein barnetik Mon-

dragoeko esperientziak hunki duen Iparraldeko jendea. Egiazki mito bat bihurtu da Mondragoeko izena bera hemen gaindi zenbait urtez. Haatik laister, harreman horiek aintzina zoatzilarik gauza batzuez ohartu gara Iparralde hontan.

—Industria giro batean sortuak zirela lantegi berezi horiek. Industriarik ez zen tokian beste edozein entrepresa bezain zail zegoela koperatiba baten sortzea. Gainera erran dezakegu hemen, laborari (nekazari) seme asko industri lanak gehiago harritzen zituela koperatiba sistimak baino, Mondragoeko itzulia egiten zutelarik. Egia erraiteko hainitz gaztek Arrasate lantegien bitartez ikusi du industriaren aurpegia, lehen aldikotz. Asko harrituak gelditu dira zer lan molde dorpea den kadena bateko lana, beren lanak jestuak libreago uzten bait ditu.

—Jadanik erran dugun bezala, nahitaez merkatu bati lotuak zirela koperatiba horiek eta merkatu horren parterik handiena, mugaz bestaldean zegoela. Ezen ezagutza eginez ginoazin hastapen hortan, askotan amestu izan bait dugu koperatiba horiek mugaz gain jauzi eginik lantegi zenbait ezarriko zutela Iparralde hontan. Erran dezagun beti garbiki mintzatu direla hontaz Arrasateko buruzagiak. Herriak berak behar dituela sortu koperatibak. Hauek ez direla kanpotik jinen.

Baina koperatiba eta industriaren ezagutza berri hoiei esker gauzak aldatuz (izpirituak bereziki) joan dira Iparralde hontan.

—**Lehenik** industria begi onez ikusten ari dira jendeak. Ezen duela bospasei urte, Iparraldeko “intelegentsia” guzia industriaren kontra zegoen. Edo bederen industriaren alderako karra arras ttipia zen hemen gaindi. Holakorik ez aipatzea hobe! Aita Xarritton-ek Hazparneko Eskola Teknika abiatu zuenean (1960an) arras euskaldun ikasle guti jin zitzaion. Erran dezagun ere eskola berri hori abiatzean “Superior” berri gartsuak deskubritu zuela Mondragoeko esperientzia eta holako zerbait hemen piztu nahi zukeela. Geroztik euskaldun gazteak gero eta gehiago abiatu dira teknika ofizioetara buruz.

—**Bigarrenik** Ipar euskal herritar asko ari zen ohartzen industriaren alde zerbait egiten ez bazen, Iparraldea osoan hustuko zela eta osoki turismoari buruz bihurtuko. Erantzun bezala bi mugimendu, oraindik gazteak segur, baina aspaldiko partez, herrikoak berekoak ikusi ditugu sortzen.

Lehena industriari buruz erran (edo hobeki sola, noizpait egin beharra bait zegoen) dezakegu Arrasateko buruzagi batzuekin Hendaian 1967ko abenduan egin bilkura baten ondotik Saint Martin jauna abiatu zela Baionako Komerzioko eta Industriako Ganbara indar berritu beharrez. Geroztik, kontrario asko izanagatik, jaun honen inguruan muntatu da talde bat eta Ipar Euskal Herriko bazter guzietan jendearekin mintzatzen ibili ondoan gure ekonomiaren estudio oso bat agertu zen 1971n. Geroztik oraino Iparraldeko alkate eta erakunde profesional gehienak elgarretaturik sortu da U.D.I.B. batasuna, Britainia-ko C.E.L.I.B. famatuaren antzera. Lantegi zenbait ere etorri da Iparralde hontarat. Baina dagoneko erran bezala, aspaldiko partez, Ipar Euskal Herriak erakunde politiko-ekonomiko azkar bat sortu du eta puska bat bederen Mondragoen sentitu izpiritua ondo bezala izan da hori.

Bigarren mugimendua Eñaut Etxamendi laborantzako injinadoreak oinarriturik sortu da: baratzakarien egiteko talde berri batzu. Donapaleu inguruan Errecort senator zenak muntatu zuen 1945eko gerla ondoan "Lur Berri" deitu laborantza kooperatiba. Arrakasta ederra izan du honek, eta laborariak asko lagundu ditu, bereziki artoaren ekarrarazteko tekniken ikasten. **Artoaren iraultza** bat izan da orduan Iparraldean. Baina, egia erraiteko, "Lur Berri"k erakunde bezala asko egin badu, ez du egiazko kooperatiba moldean egin. Hontaz gazte asko jabetu da Mondragoeko itzulia egitean. Gaur egun asmo handiak daduzka "Lur Berri"k (handitu eta azkartu bait da) bereziki haragi egiteari buruz. Baina erakunde bezala jokatzeko kooperatiba baino askoz gehiago.

Aldiz baratzekariak egiteari jokatzeko diren taldeak, zinez berriak dira eta entrepresa izpiritua berri batekin hasiak ditugu. Lehenbaitlehen erakunde bat muntatu behar lukete elgarren artean.

Huna laburzki eta lasterka bada ere, zenbait oharpen erakusterat emaitako nola ikusia, senditua eta hein batean konprenitua izan den "Mondragoeko izpiritua" Iparralde hontan.

III. Iparraldean eta Parisen izan diren bilkura zenbaiten edo agertu diren artikulu zenbaiten berri

—Aita Larzabal-ek "Herria" astekarian agertu zituen, gure

ustez, lehen artikuluak Arrasateko esperientziaz 1964 urri edo azaro aldean.

—Geuk “Enbata”n argitaratu izan genuen artikulu andana bat. Xehetasun gehienak Mondragoen Arrasate lantegiaren buruzagietarik izana zen Edur Arregi-k emanak. “Enbata” n° 41 (1964ko azaroa), n° 42 (1964ko abendua), n° 45 (1965eko martxoa). Mintzaldi bat ere eman genuen geroxeago (1967 hastapenean) Pariseko Euskal Etxean. Mugimendu honek propaganda handia egin zuen 1967ko bozaldian Arrasateko esperientziaz.

—Pariseko “Elgar” deitu kazetan Legarralde jaunaren artikulu eder bat (n° 183) 1967ko otsailean.

—Baionako “Activités en Pays Basque” Komerzio eta Industriako Ganbararen errebista ofiziala n° 202, 1967ko urtarrilla. Zenbaki berezi honek, foto ederrez hornitua, artikulu jakingarri batzuen bidez erakusterat eman nahi du zer den Mondragoeko esperientzia bere osotasunean. Zenbaki berezi hau asko zabaldu izan da Frantzia guzian eta honen bitartez bereziki ezagutu izan da, lehen urrats batean, Mondragoeko esperientzia.

—“Breiz” Bretoin-zaleen aldizkarian. N° 111. 1967ko urtarrileko zenbakian. Hosto bateko artikulu goxo eta pollit bat. Honen bitartez bretoinei jakinarazi nahi izan zen Mondragoeko esperientzia.

—“Cummunauté” 1967ko hirugarren zenbakian. Frantzian kooperatibismoaren aldizkari ofiziala da hau. Honen burua da Gray jauna, Desroches “College Cooperatif” delakoaren buruzagiak ere idazten duelarik hemen. Bi jaun horiek beste askorekin, soziologo bezala ikertze eta irakaskintza lan asko egiten dute gai hauetaz ez bakarrik Pariseko unibertsitateetan baina ere Hego Amerikan eta Afrikan. Autogestionearen bultzatzaileak izan dira. Zenbaki horrek hamar bat hostotan ekartzen du Mondragoeko esperientziaren bilduma laudoriotsu bat. Esperientzia honen berezitasunaz ere asko hitz egiten da hemen. Aldizkari eta jaun hauen bitartez heldu zen Pariseraino Mondragoeren fama.

1967ko azaroaren 10ean Frantziako **Caisse Centrale du Crédit Cooperatif** delakoan Aldabaldetrekua jaunak eman zuen hitzaldi bat, Arrasateko kooperatiben presentatzeko. Erakunde hau da Frantzian C.L.P.-ren iduriko banketxe bat. Ezen Frantzian ere badaude 500 bat kooperatiba, 30.000 jendeak hoietan lan egiten dutelarik.

Baina egia erran, ez dira Mondragoen bezalako moldeetan eraikiak, langile askok dirurik sartu gabe lan egiten bait du hoietan. Haatik maleruskki hauek ez dituzte besteen dretxo berak lantegiaren barnean.

Ikus hontaz "Entreprise", n° 627. 16-sept-67:

(500 entreprises, 30.000 personnes: pour les cooperatives fin de la periode héroique). Koperatiba hauetan ezagutuena eta handiena da A.O.I.P. delakoa (**Association des ouvriers en Instruments de Precision**, 4.000 langile). "La Telemécanique" deitu lantegia ere ezagutua da bere koperatiba itxuragatik (baina ez da egiazko koperatiba). Lan moldeen aldetik esperientzia interesanteak egin izan dira azken lantegi hontan.

—Gero beraz erran bezala Mondragoeko buruzagi batzuekin bi elgar hizketa oso interesanteak egin izan ziren Hendaian 1967ko urriaren 15ean eta abenduaren 10ean. Hogei ta hamar bat lagun aldi bako tx, herriko auzapez eta apez, sindikalista, lantegi buruzagi, irakasle, ikasle, gazte eta abar. Denetarik bazen hor. Parte segurik, hor sortu zen Ipar Euskal Herri hontan ekonomiari buruzko izpiritu berri hori (2).

—Eta azkenik, baina hain segur frantsesez argitaratu den libururik osoena eta beste bilkura eta errebista askoren esperientzia bildurik ekartzen duena **Les Cooperatives Industrielles de Mondragon** de Quintín García, avec préforce d'Henri Desroches. Editions Gumières. 12, av. Soeur Rosalie. Paris XIIIe (Collection "Economie Humaine").

1970eko abenduan agertua da liburu hau. (Geuk 1972ko hastapeneko "Herria" kazetan aipatu genuen).

160 orri dauzka, esperientziaren ikuspen oso bat emaiten du sei kapitulutan. Desroches jaunaren aintzin solasa interesanetarik da. Bibliografia luze bat ere badakar koperatibismoaren esperientzi az. Dударik gabe frantsesez agertu den libururik osoena Arrasateko esperientzi az.

(2) Nork edo nork nahi balu bilkura horietako bilduma ttipi bat ikusi, geuri eskatzen ahal du. Bestalde 1967ko urte hastean beste elgar hizketa bat ere egin izan zen Baionan "Funcor"eko Esparza jaun buruzagiarekin.

KOPERATIBAK

elkar-lanean



JAKIN sorta

7

prestatzen

euskal herriaren atarian

J. L. Lizundia: LURRA ETA GIZONA.

J. M. Barandiaran: ETNIA ETA JATORRIAK.

L. Mitxelena: HIZKUNTZA.

P. Lafitte: HERRI-LITERATURA.

R. Villasante: LITERATURA LANDUA.

J. A. Arana: EUSKAL MUSIKA.

J. San Martin: EUSKAL ARTEA.

J. M. Eizagirre: EUSKAL FORUAK.

R. Bozas-Urrutia: EUSKAL KIROLAK.

Elkar-lanean: EUSKAL INDUSTRIA.

A. Zubikaray: ITSAS-BIZITZA.

Elkar-lanean: EUSKAL ARKITEKTURA.

euskal herria ezagutzeko lehenen liburua